

**Ezker Abertzalearen bilakaera**  
**02.**Formakuntzako bigarren blokea





ernaigazte.cc

## 2014ko uda

Teoria maite dugulako nahi  
dugu praktika bizi, praktikan  
bizi. Egutero borrokaren bi-  
dea argitzen duten iraultzaile  
errepresaliatu guztiei. Eta  
bidean galdu ditugunei.



<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/2.5/deed.eu>

# AURKIBIDEA:

## 0. HERRI TXIKI BATEN HISTORIA HANDIA:

### 1. SORRERA ETA INSURREKZIO FASEA

Testuingurua / Lehenengo hazia: EKIN / Ibilbide luze baten hasiera / Lehenengo asanblada / Bigarren eta hirugarren asanbladak / "Intelektualei karta" eta euskal udaberria / Laugarren asanblada V. Asanblada / Espiralaren hasiera / Oinordekotza galtzearen beldurra / Ogro Operazioa / Langile Frontea / Miliak eta Polimiliak / Galderak

### 2. HAUSTURA ALA ERREFORMA

Testuingurua / Transakzio demokratikoa / Lehenengo hauteskundeak eta estrategia aldaketa / KAS alternatiba / Borroka da bide bakarra / Gerra zikinak etenik ez / Lehen aldiz hauteskundeetan / Gernikako Estatutua / Jarrai, Kas-Blokearen barne / Lemoiz apurtu! / Euskadiko Ezkerraren saldukeria / PSOE gobernuan / Beruna negoziazioaren truk / Soldaduska honi ez! / Arjelera bidea / Ezker Abertzalea aitzindari / Ajouria Eneako paktua / Galderak

### 3. ARGELETIK LIZARRA-GARAZIRA

Testuingurua / Argeleko negoziaketak / Argelen ajeak eta Bidart Bide baten amaiera / Txinaurri prozesua, Nazio Eraikuntza / Matxinada Lizarrara bidea / Lizarra-Garazi akordioak, prozesu Soberanista / Blokeoruntz / Galderak

### 4. ILEGALIZAZIO FASEA

Testuingurua / Terrorearen kontrako guda Euskal Herrian / Haika gazte, jaiki hadi / Ezker Abertzalea legez kanpo / Martxoaren 11 / Anoetako proposamena / 2005-2007 negoziazio prozesua / Atzera bueltarik ez / Berme bakar bat ere bete gabe / Galderak

### 5. ZUTIK EUSKAL HERRIA

Testuingurua / Borroka armatua berriz ere 2007-2009 / Tres cifras en encarcelados / Loiolako elkarrizketen irakaspenak / Eztabaida zabaldu beharra / Zutik Euskal Herria / Konfrontazio armatuaren gainditzea, Gatazkaren konponbidea / Indar metaketa / ETA vs Estatuak-etik, Euskal Herria vs Estatuak / Ezker Abertzalea berregituratzen / Danak ala inor ez / Aldebakartasunaren bide luzea / Galderak





0.

**HERRI TXIKI  
BATEN  
HISTORIA  
HANDIA:**

Ezker Abertzalearen, eta oro har Askapen mugimenduaren historia bat egitea zailegia da. Ezinezkoa. Azken 55 urteetako bilakaeran ere ezin da gelditu, lehendik ere Askapen Mugimenduaren borroka egon baitzegoen. Izan ere, euskal herritarrok herri bezala gure burujabetza galdu genuenetik, ez dugu borrokatzeari utzi. Urte bakar bat ere ez da pasa, zapaltzaileen kontra antolakuntza eta borroka maila ezberdinak asmatu eta praktikan jarri ez ditugula.

Baina Ezker Abertzaleak inflexio puntu bat suposatzen du Euskal Herriaren historian. Munduko mugimendu iraultzaileen ondarea jasoaz, Euskal Herriari estrategia politiko koherente eta erradikala eskaintzeaz gain, gure herriaren biziraupena bermatzeko esperantza izan baita. Gutxi balitz mundu ikuskera berri bat ere proposatu du, abertzaletasun iraultzaileak dakarrena.

Abertzaletasun iraultzailearen bertute handiena, ez zen soilik izan afera sozial eta nazionalaren identifikazio eta ideologizazioa, baizik eta, ere, askapenerako estrategia bakar bat garatzeko instrumentu eraginkorrak sortzea.

Antolakuntza eta konfrontazio maila izugarriak kudeatzen jakin dugu betidanik. Herri txiki bezala estatuen gerra estrategiari aurre egiten, unean uneko aldaketak egin baina beti aurrera egiten jakinez.

Hori da agian, gure ondarrerik preziatuena. Beharren arabera estrategia moldatzen jakitea. Herriaren eskutik beti, herriaren beharrei erantzutea. Herritik herriarentzat bizi den mugimendua izan da betidanik Ezker Abertzalea, eta inolaz ere, segundo bakar batez ere ez du ezaugarri erraldoi hori galdu. Iraultzaileak herria behar du arrainak itsasoa bezala.

Baina bizi dugun fase politiko berri honetan, esperantzarako tartea handia egon arren ezin dugu arreta galdu. Ezin gara sistemaren apurrekin asetu. Dena nahi dugu. Eta dena dugu lortzeko.

Horregatik historiaren jakintza kritikotik abiatu behar gara, egungo erronkak hobe ezagutzeko. Ezin gara Askapen Mugimenduaren erronkez eta gabeziez aritu, ezagutu gabe, aurretik emandako ez-

tabaida eta irakaspenak. Gure mugimenduaren memoria historikoa dugu egiteko. Ikaragarritzko erronka, baina ezinbestekoa, batetik, gure herrikideen borroka handia ezagutu eta ohore egiteko, baina baita, eta batez ere, inork kontatu ez diezagun.

Historia idaztea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Eta noski, lan honek ez du helburu hori beteko. Lan hau ez da lan zientifiko bat, bere horretan, lan politiko bat baizik, urgentzia apur batez egina, bidenabar. Izan ere lan honen helburua militantzia gazteak Askapen Mugimenduaren historia izugarriaren berri txiki bat besterik ez izatea da. Gure gaineko benetako jakintza garatzeko irakurri eta entzuteko asko dugularik oraindik. Baita, noski, idatzi eta kontatzeko ere.

Gabezi izugarriak ditu lan honek, eta komeni da horrela aitortzea. Lehenik eta behin, eta agian akats larriena, Hego Euskal Herriko historia kontatzen du bakarrik (edo batez ere). Eta ez zaigu, noski oharkabean pasa. Baina bitarteko faltek eragindako hutsunea da. Hurrengo formakuntza planteamenduentzako erronka.

Bigarren gabezi nagusia hemen ezker abertzalearen zati bat besterik ez dela islatzen iruditzen zaigu, eta gehiegitan gazte zein herri mugimenduari ez zaio behar beste erreferentziarik egiten. Ezin da, noski askapen mugimenduaren historia ulertu euskalgintzako borrokak, mugimendu feministarenak, mugimendu kultural-musikalena, gaztetxe eta gazte asanbladena, mugimendu ekologistena, borroka internazionalistarena... eta abar luze bat kontenplatu gabe. Hori dena baita azken finean Askapen Mugimenduaren historia. Bistan da ordea, lan honen eremutik kanpoan gertatu behar zela, espazio faltagatik, behinik behin.

Azken gabezi nagusia, gure ustetan, testuinguratze eza da. Saiatu garen arren, argi dago, oso unilateralki ematen dela hau, eta egoera sozio-ekonomikoa, politikoa, artisitikoa, eta nazioartekoa ez dela kontenplatu, behar bezala. Noski, klase borroka, nazio askapen borroka izanik Euskal Herrian hartzen duen forman, bere erradiografia zorrotza egin beharko genukeela. Ordea, hau ere ez da nahiko genukeen eran garatu.

Ordea, uste dugu Ezker Abertzalearen bilakaeraren gako nagusiak azalduak geratzen direla, eta lehen ideia sakon bat egiteko baliagarria dela. Kapitulu bakoitzaren amaieran galdera sorta bat dago, taldean edo bakarka erantzuteko, eta eztabaida bideratzeko. Erantzunak ez dute zertan liburuxkan egon, eta bestelako euskarrietan bilatzea gomendatzen dugu.

Sakontzeko bibliografia hautatu bat egite aldera, lehenik eta behin, eta batez ere, aipatu behar dugu Iker Casanovak Txalapartarekin argitaratu zuen ETA 1958-2008. Medio siglo de historia. Lan hau erabili dugu guk oinarri gisa, eta informazio gehienak bertatik atera ditugu. Ordea, garaiko dokumentu historikoak ere erabiltzea ezinbestekoa da, guk Berria, Gara eta Egin-en dossier eta artikulua ezberdinak erabili ditugu, bai eta gazte mugimenduaren dokumentu andana jasotzen dituen Gazte matxinada, inoiz kontatu gabeko historia (Mujika, Garikoitz. 2004, Xirika argitaletxea).

Gainontzeko lan interesgarriak, bi biografia ezinbesteko Iker Casanova eta Paul Asensioaren "Argala" liburua (txalaparta, 1999), edo "El Hijo de Juanita Gerrikabeitia" (Jon Idigoras, Txalaparta, 2000). Edo gainontzeko eragileen historia baterako, adibidez, LAB sindikatuen historia I (1975-2000) eta II (2000-2005) biak txalapartak argitaratua. Eta gazte mugimenduaren gainean gehiago sakontzeko, aurretik aipaturiko Xirikak argitaratutako edota Txalapartak argitaraturiko Matxinada, Eoin O'Broin irlandako burkideak idatzitakoa.

Noski, bibliografia oro partziala izanik, hau bera ere horrelakoxea da, guztiz partziala. Baina tira, bidea egiteko baliagarria uste dugu. Noski, irakurtzeaz gain, esan bezala entzutea betebeharrak militante bat bihurtzen da. Guztion ardura da ondare historikoa belaunaldiz belaunaldi jaso eta transmititzea.

Askapen Mugimenduaren bide luzean hasiberriei ongi etorriak. Garapena gurea da eta!



*Borroka latz honetan, bizia galdu duten Eusko Gudariei eskainia dago lan xume hau. Batez ere, hau idaztean, Puerto de Santamariako sarraski espetxean hil ziguten Arkaitz Belloni, eta bere herrikide eta sendiari. Iraultzaile erraldoien bide beretik joateko ohorea dugulako.*

**Ohorez Agur!**



1.

***SORRERA eta  
INSURREKZIO  
FASEA:***

## Testuingurua

Mundu mailan aldaketa garrantzitsuak eman ziren hamarkadak dira II. Mundu Gerra ostekoak. AEB eta Sobietar Batasunaren erreferentziapen mundua bi poloetan banatzeko joera nagusitzen zen artean, 60. hamarkada erabakiorra izan zen estatu kolonizatzaileek (batik bat Frantzia eta Britaina) zapalduetako nazioentzat. Izan ere, orduan hasi zen deskolonizazio prozesu gisa ezagutzen duguna. Batzuk arma bidez eta beste batzuk modu baketsuagoan, asko izan ziren subirautza eskuratu zuten nazioak, batez ere Afrika eta Asian.

Herritarren altxamendu iraultzaileak eman ziren nazioartean: kolonizazioaren atzaparretatik ihesi Afrikan subirautzaren aldeko gerra gogorrak izan ziren, Kuban herritarrak boterea hartu eta AEBek ezarritako kontrolatik askatu ziren, independentziaren aldeko gerrari ekin zioten Angolan, FLNk gobernua negoziatzera behartu eta independentzia lortu zuen Argeliak... Kasu askotan, independentziaren aldeko borroka iraultza sozialarekin batera eman zen eta hori garrantzitsua izango da munduko herri zapalduentzat. Halakoa izanik testuingurua, 1960an NBEk autodeterminazio eskubidea, eskubide unibertsal gisa aitortu zuen.

Estatu espainiarrean, nazioarteko babesaren zeukan diktadura baten aurreko oposizioa ahula izan arren, egoera ekonomikoak eraginda ezegonkortasun handia zegoen. Langileen migrazio handia eman zen hamarkada honetan, estatuko puntu ezberdinetatik Madril, Herrialde katalanak eta Euskal Herrira mugitu zirelarik milaka langile. Euskal Herriak aldaketa sakonak bizi zituen; alde batetik demografiaren izugarritzko hazkundea ematen da, industria ia txoko guztietara hedatzen da modu horretan langile klasea ezkeraldetik harago sendotzen delarik, nekazar eremuetatik hiriguneetara migrazio esanguratsua ematen da hala, euskal identitatean garrantzitsuak diren elementua desagertzeko arriskuan jarriz (euskara, baserria...).

## Lehenengo hazia: EKIN

1951-1952 artean nazionalistak ziren ikasle talde batek Ekin izeneko taldea eratu zuten ikasketa eta formakuntza politikoa sustatzeko nahiarekin. Ikasle hauek elkartzen hasteko arrazoia PNVk

maila teoriko zein praktikoan abertzaletasuna bultzatzeko egiten zuen ekarpen maila urriarekiko atsekabea izan zen. Bi desberdintasun nagusik bereizten zuen Ekin PNVtik: maila teorikoan, izaera akonfesional eta aurrerakoiak eta maila taktikoan, Euskal Herriaren defentsan lan eraginkorragoa egiteko beharra. Ekinen helburua mugimendu politiko berri bat sortzea izan zen eta horretarako hausnarketa politikoen plazaratzeak (Ekin aldizkariaren bidez batik bat) eta kideen formakuntzak berebiziko garrantzia izan zuten.

Eztabaida ugariren ostean, 1955ean Ekin taldea PNVko gazte adarrekin, EGIrekin bateratzea adostu zuten, elkartze horrek ordura arteko mugimenduaren sendotzea eragin zuelarik. PNVn baitan gehiengoak ez zuen begi onez ikusi elkarketa eta horrek EGIren baitan ere bi bando bereiztea ekarri zuen; batzuk Ekinen tesiekin bat zetozenak eta besteak alderdiaren diziplinarekin aldekoak. Azkenean, 1958an EGI bateratuak eta EKINek Deban burutako bilera batean, Euzkadi Ta Askatasuna sortzea adosten dute.

Erakunde berriak abertzaletasunaren historikoaren oinarri ideologikoak berrikusi eta landu zituen. Hala, euskal identitatearen “nukleoa” zen arraza, hizkuntza eta kulturagatik ordezkatzeko zuten eta ordura arte politikatik hain hurbil zegoen erlijioa baztertu eta akonfesionala izendatuko da erakunde sortu berria. Gai sozialetan aldiz, nazionalismo historikoaren jarrera ezkertiarretatik ekin zion lanari, eta Euskal Herriaren eskubideen defentsan bitarteko guztiak erabiltzearen alde agertu zen.

## Ibilbide luze baten hasiera

ETAk bere hasierako urteetan Liburu txuria izeneko argitalpena erabili zuen formakuntza bitarteko nagusi gisa. Liburu honen edukietara jotzen badugu, orduko ETAren pentsamenduaren nondik norakoei buruzko ideia bat egin dezakegu. ETAren hasierako pentsamendua egituratzen duten hiru ardatz nagusi aipatuko genituzke: abertzaletasuna (abertzaletasun klasikoaren ideietan sustraitutakoa gehienbat), borrokarekiko determinazio handia (bere gain hartuz erakundearen helburuei erantzungo dien funtzionamenduak dakarren sakrifizioa) eta errealitate sozialari erantzungo dion programa bat (PNVrena baino aurreratuagoa baina komunismotik ere



aparte kokatzen dena). Hasierako pentsamenduaren ezaugarri horiek urte luzez iraungo duen eztabaida ideologiko sakonaren abiapuntu izan ziren.

ETAk, bere burua ezagutarazi eta jendartearen begietatik zilegitasuna irabazteko, aktibismoan oinarritu zuen bere ekinbidea. Hala, leku ikusgarrietan ikurrinak jartzea, oktabilen banaketa edo kaleko margoketak egitea eguneroko ogi bihurtu ziren. Garai horretan nazio zapalkuntzari erantzunez egiten ziren ekintzak izenpetzeko "Euska erresistentzia" kontzeptua erabiltzen hasi zen. Modu horretan, egituratu gabeko jendeari ere ahal zuena egiteko aukera eskaintzen zitzaion eta aldi berean, edozein antolakunderi ondorio larriak ekar diezazkioketen ekintzak bere gain hartzea ekiditen zen. Geroz eta ekintza gehiago egiten ziren baina poliziarentzat oraindik ezezaguna zenez ETA, EGIren ardurapean jarri zituen orduko gertaera guztiak. 1959ko azaroan polizia operazio handi batek EGIko ia egitura guztia desegin zuen, segurtasun arloan zeuden hutsuneak nabarmen geratuz. Atxilotuak tortura gogorak jasan zituzten eta poliziak ETAko zenbait militanten izenak ezagutu ahal izan zituen horri esker (poliziarentzat guzti horiek ere EGIko parte ziren). Urte horretako abenduan egin zituen ETAk bere lehen ekintzak leherkariekin eta poliziak EGIren kontrako sarekada berri batekin erantzun zuen. Ondorioz, EGIko parte izatearen akusaziopean izan arren, ETAko zenbait kide atxilotu zituzten. Errepresioak, bitarteko ekonomiko eta materialen eskasiak eta erakundea indartzeko beharrak, borroka armatua lehentasunen artetik kendu eta erakundeak bere burua egonkortzeari ekingo zion. Horretarako, militante berrien kaptazioan, formakuntzan eta propaganda eginkizunetan jarri zen buru belarri.

Nahiz eta ETAk 1959an egin bere lehen ekintzak lehergailuak erabiliz, hurrengo urteetan erakundearen egonkortze lanei ekin zien eta ez zen 1961era arte izango berriz ekintza armatu pisutsu bat egin zuela. Frankoren gobernuak 25 urte Bakean izeneko kanpaina jarri zuen martxan Errepublikaren aurkako altxamenduaren 25. urteurrena ospatzeko. Kanpaina horretako ekimenak espainismoaren eta faxismoaren gorazarre hutsa ziren eta ETAk uztailaren 18ko data ospatzera zioan falangistaz beteriko trena deskarrilatzeke asmoa zuen. Azkenean trenak oreka galdu bazuen ere, ez zuten lortu

trenaren ibilbidea saboteatzea. Momentu berean Donostiako erdigunean ETAko militanteek hiru bandera espainoli su eman zioten. Hurrengo hilabeteetan frankismoaren izua zabaldu zen Euskal Herria, 1961eko uztailetik irailera bitarte ia 200 lagun atxilotu baitzituzten gaueko operazio polizialetan eta horietatik gehienak torturatu egin zituzten eta Madrilera eraman merkantzia bagoietan. Atxilotu guzti horietatik 29 izan ziren gartzelaratuak eta horietatik bakarrik zazpi epaituko zituzten. 7 auziperatuak lehen gerra kontseiluko biktima izan ziren urriaren 28an eta kondena luzedun ETAko lehen preso bilakatu zirelarik. Atxilotu guzti horiei, ihesaren bidea hartu beharko duten militante taldetxo bat gehitu behar zaie, muga modu klandestinoan lehen aldiz zeharkatu zuteneko ETAko militanteek.

## Lehenengo asanblada

Frankismoak bere ekinbide errepresiboarekin aurrera jarraitzen zuen bitartean eta langile klasearen protestak gora egiten zuten artean, 1962ko maiatzean ETAK bere lehen asanblada burutu zuen Lapurdin. 14 delegatuk parte hartu zuten asanblada horretan (horietako bat ere ez zen emakumea) eta hiru ardatz nagusiren gainean eztabaidatu zen: estrategikoki, erakundeak nazio askapena jartzen du helburu nagusitzat (Euskadi bateratu eta euskaldun gisara ulertuta); askapen soziala (bi jarrera zeuden: sozialista eta sozialdemokrata; azken hau gailendu zen); eta antolakuntzari dagokionez, asanblada Biltzar Nagusi gisa izendatu eta erakundearen organo gorena izango da. Biltzarren artean Aginte Batzordeak beteko zuen zuzendaritza papera eta militanteek kuota bat ordaintzea ebatzi zuten.

Esparru ideologikoari dagokionean, Printzipioak izeneko dokumentu bat egin zuen publiko zeinak bi orrialdetan orduko ETAREN ideologia biltzen zuen eta aurkezpen karta osatu zuen. Dokumentu honek lau zati zituen:

Sarrera: ETAK bere burua Euskal askapen nazionalerako mugimendu iraultzaile gisa definitzen du. Horrez gain, Euskal Herria (Euskadi) sei herrialde historikok osatzen duela baieztatu eta honen eskubideak aldarrikatzen ditu bai burujabe izateko eta baita hori bermatzeko bitarteko guztiak erabiltzeko.

Aldarrikapen politikoak: ETAk Euskal Herrirako sistema demokratiko deszentralizatu eta ordezkagarria defendatzen zuen, zeinak giza eskubide eta eskubide politikoak bermatuko zituen. ETAk herrietatik sortzen zen federalismo europar bat onartzen zuen eta akonfesional gisa definitu zen. Horrez gain, arrazismoa, migratzaileen bereizketa eta militarismoa errefusatzen zituen.

Aldarrikapen sozialak: alor honetan liberalismoaren bukaera aldarrikatzen zuen eta jabetzaren dimentsio sozialaren aitortza. Oinarritzko produkzio sektoreen sozializazioa eta ekonomia nazionala planifikatzea eskatzen zuen. Enpresen kogestioa eta kapitalaren gainetik lana jartzea defendatzen zuen bestelako neurri sozial bartzuekin batera; hala nola, sindikatuen papera, seguru sozialen luzapena eta politika fiskal progresiboa.

Aldarrikapen kulturalak: ETAk kultura egitura sozialaren oinarritzko zutabetzat zeukan. Horregatik aldarrikatzen zuen eskolaratze plan sakon bat beste hobekuntza bartzuekin batera hezkuntzaren esparruan. Euskara hizkuntza nazional bakarra izatea, eta ondorioz, lehentasunez tratatzea. Euskal unibertsitatea sortzea eta euskal kulturaren balioen babesa ere defendatzen zuen.

Finean, ETAREN lehengo asanbladak ideiak ordenatzeko balio izan zuen, adostasunezko printzipioak argitu erakunde guztiaren artean eta egituren definizioan sakondu. Asanblada honetatik kolegiatutako zuzendaritza bat eratzen da eta arduradun nagusien artean ondoko izenak aurkitu ditzakegu: Julen Madariaga, Txillardeggi, Patxi Iturrioz, Benito del Valle, Lopez Dorronsoro, Irigarai eta Agirre. Barne eztabaidekin batera, tentsio soziala ez zen baretu, eta langile mugimenduak egindako greba orokor arrakastatsuek bi ondorio nabarmen utzi zuten: 1) ETA eta langileriaren arteko harremana estuagoa izan behar zela eta 2) indartzen zihoan aktibismo nazionalaren aurrean estatuaren erantzun errepresiboak ez zuela etenik izango.

## **Bigarren eta hirugarren asanbladak**

1963an ETAREN bigarren asanblada burutu zen, oraingo honetan parte hartzaileen kopurua 17koa izanez, tartean bi emakumez-

ko. Baina bi emakumezkoen parte hartzea ez zen izan berezitasun bakarra, iparraldeko antolakunde abertzale zen Enbatak ere parte hartu baitzuen ETArekin hartu-emana izan ostean.

Lehenengo asanbladan gai ideologikoek pisua hartu bazuten, bigarren honetan antolakuntzari dagozkion kontuak izango dira. Erakundearen zabalkunderako kanpaina bat abiaraztea adostu zuten, baita Zutik buletinaren tokiko bertsioak egitea ere. Horrez gain, arduradun ardua daukaten militanteek euskara ikas zezaten epe bat ezartzea zehaztu zuten eta kuoten bilketarako zein kolaborazio ekonomikoetarako neurriak hartu zituzten. Borroka armatuari dagokionean, urtean bizpahiru ekintza esanguratsu egitea adostu zuten eta hiru militante liberatu zituzten. Aginte Batzorde berria herrialdeetako arduradun, alor militarreko arduradunak (Julen Madariaga) eta bi errefuxiatuk osatuko zuten.

Bigarren asanblada honetan askapen nazionalaren aldeko nazioarteko beste mugimendu batzuen pisua nabarmena izan zen. Esanguratsua da adibidez, ETAk orduan Euskal Herria sei zonaldeetan banatzen zuela baina horiek ez zeukatela herrialde historikoen mugekin zerikusirik. Izan ere, sei zonalde horiek Mao Zedongen doktrina militarri jarraiki borroka armatuaren beharren arabera-koak ziren.

Bigarren asanbladaren osteko Zutik-en, herritarrek inizatiba hartzeko beharra jendarteratzen da argi utzita zeintzuk diren jarraitu beharreko erreferentzia internazionalak (Argelia, Tunes, Txipre, Kuba, Txina...) eta borroka armatuan parte hartzeko deialdi zabala luzatu zen.

ETAk ekaitzi gabeko bi lan teorikok garrantzia handia izan zuten orduko ETAn: alde batetik, Frantz Fanon argeliarraren *Los condenados de la tierra*, eta bestetik, Federico Krutwigen *Vasconia*. Lehenengoak, askapen nazionalen borroka armatuaren erabilera defendatzen du, herri kolonizatueta eliteen papera kritikatzeko du zapalkuntzaren kolaboratzaile gisa eta herri borrokaren zuzendaritza eta antolakuntzaren beharra azpimarratzen du. Bigarren lanetik aldiz, ideia berritzaile batzuk hartu zituen ETAk. Izan ere, autorearen helburua nazionalismo berri bat proposatzea zen, akonfesio-

nala zena, ezkerrekoa eta etnia zein kultura izango zituen ardatz identitario gisa.

Bigarren asanbladaren ostean ETAk berregituratze nabarmen bat izan zuen. Ikurrinak jartzea, kaleko margoketak eta panfletoen banaketa izan ziren ETA berrindartuaren ohiko akzioak. Baina ekintza horien ausardia handiagotzen zihoan hauen kantitatearekin batera; horren adibide da radio Tolosaren emisio etetea komunikatu bat helarazteko. Ohiko propaganda ekintzak gainera, txibato eta faxisten kontrako noizbehinkako erasoekin tartekatzen hasi ziren. Baieztapen nazionalari zuzendutako ekintzez gain, langileria lotutako borrokak ere garrantzia handia hartzen zihoazen ETAREN jardunean. Baina berrantolaketaren beharra hain zen nabarmen zen gai horiek asanblada berri batean eztabaidatzea baloratzen hasi zen.

Aktibazio sozial horren ondorioz erakundea errepresio golpe iraunkorren jopuntu izan zen, ia egiturarik gabe gelditzeraino, baina bere emaitzak ere ematen hasi zen erreferentzialtasunari zegokioanean. Oraindik orain, abertzale gehienentzako PNV zen erreferentziazko alderdia, hala eta guztiz, jeltzaleak geldiene ideologikoan murgilduta zeuden eta horrek eragotzi egiten zion Euskal Herrian piztutako errealtate sozial berriekin eta Euskal Herrian piztutako errealtate soziala oztopo bilakatu zitzairen. Geroz eta handiagoa zen ETAREN jarduna alor sozialean (ikastolen mugimendua, kultura arloan..) eta horrek mugimendu abertzalearen baitan PNVk zeukan hegemonia absolutua pitzatzea ekarri zuen.

1964ko urtea ETAk mezu positibo bat zabalduz hasi zuen: alde batetik, estatu espagnolaren mende egon beharrean, nazio gisa dauzkan eskubideak oinarri hartuta euskal herritarrei dei egiten die etorkizun hobea bat eraikitzeko. ETAREN aburuz hutsegite bat da Euskal Herriaren eskubideak estatu espagnolaren gorabehera politikoeekin lotzea eta hargatik barnebiltzen du urte hasierako manifestu horrek PNVri kritika inplizitu bat. Beste aldetik, borrokan parte hartzeko deia egiten zien herritar guztiei.

PNV eta ETAREN arteko aldea geroz eta nabarmenagoa zen, ETAk Fanonen ekarpen teorikoak bere egiteak, ideologikoki batzuen



eta besteen arteko aldea markatu zuen. Izan ere, ETAk defendatzen zuen herri kolonizatutako burgesia antinazionalista zela eta PNV zen Euskal Herrian burgesiaren ordezkari. Maila praktikoagoan ordea, ETA langile borrokara lotzea eta horren ondoriozko sozialismoarekiko hurbilketa zegoen. Hala izanik, erakundea PNVreki-ko urrundu eta ELA edo Enbata bezalako eragileekin harremanak estutu ziren.

ETA prest agertu zen borrokan jauzi kualitatibo bat emateko, teorizazio lan bati ekiteko eta borroka armatuaren erantzun zabalago bat artikulatzeko. Giro horren fruitu da Julen Madariagak ekoitzitako La insurrección en Euskadi izeneko dokumentua, zeina 1964an argitaratu zen Cuadernos izeneko sailaren 20. zenbakian. Dokumentua, Euskal Herrian gerra iraultzaile bat martxan jartzeko gida praktikotzat hartu daiteke eta hurrengo urteetan erakundeak izango zuen taktika azaltzen du besteak beste.

1964ko martxoa eta apirila bitartean, ETAk bere hirugarren asanblada ospatu zuen. Biltzar honetan bereziki antolakuntzaren alorra landuko zuen, errepresioaren aurrean berrindartu asmoz.

Arestian aipatu bezala, geroz eta eragin handiagoa zeukan ETAk mugimendu abertzalean eta PNV horren jakitun izanda, hordago bat bota zuen 1964ko aberri eguna Gernikan ospatzeko deialdia zabalduz, gerratik lehen aldiz ospatuko zena hegoaldean. Bi eragileen arteko alde handia izan arren, ETAk ere babestu zuen Aberri Eguneko deialdia Itsasun egingo zenarekin batera. ETAk hura babestu zuen baita Itsasun egingo zena ere. Izugarritzko arrakasta izan zuen deialdiak, 30.000-60.000 bitarte pertsona batuz. PNVk zentzu positiboz betetako komunikatu bat zabaldu zuen, eta aldi berean, ordura artekoa baino diskurtso erradikalago batekin hitz egin zuen. Gernikako Aberri Eguna euskal erresistentziaren indarrak neurtzeko termometro bihurtu zen. Hala, nazio askapenaren alde elkarlanean abiatutako dinamika baten eta espazio politiko propioaren arteko aldarriaren arteko borrokan sartu zen ETA.

Testuinguruari dagokionean, Euskal Herriko kaleetan aldarri nazional zein sozialari lotutako protesta garrantzitsuak izan ziren, urte horretako maiatzaren leheneko jendetza horren isla izanez. Azken

urteetan bizitako polizia operazioen ondorioz ETAko hogeit hamar preso zeuden kartzelan eta hainbat borroka lerro ireki zituen. Alde batetik, presoek beraien bizi baldintzak hobetzeko eta batez ere, estatus politikoa aitortzeko zenbait dinamika jarri zituzten martxan espetxe barruan. Baina dena ez zen espetxera mugatu eta barruko mugimenduak kalean ere islatu ziren. Donostiako estropadetan, euskal presoei elkartasuna adierazteko lehenengo manifestazioa egin zen 1964ko urrian.

## “Intelektualei karta” eta euskal udaberria

1964ko urte bukaeran “Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos” izeneko dokumentua idatzi eta zabaldu zuen. Karta honen asmoa jendartean ETAREN idearioa plazaratzea zen. Sektore intelektualak nazio gatazkari lotutako posizio bat hartu eta harremanak estutzeko helburuarekin hamaika argudio azaltzen zitzaizkien. Helburu horrez gain, intelektualak nazio askapenaren aldeko borroka batzeko ere bazen dokumentu hau.

Dokumentuak Euskal Herriaren analisi bat egiten du. Ikuspegi sozioekonomikoari dagokionean, ETAREN aburuz langileriak gainditzea lortu behar duen egitura zapaltzailea da kapitalismoa. Aldaketa hori, errokoa izan behar da eta bestelako eredu ekonomiko baten eskutik lortu daiteke bakarrik, produkzioa pertsonaren beharren menpe dagoen eredutik hain zuzen. Behin hori azalduta, status quo mantentzeko sistemak erabiltzen dituen defentsa mekanismoak aztertzen ditu eta horren aurrean iraultzaren bidez Euskal Herri bateratu eta independente baterako egitura sozial berriak sortzearen beharra azpimarratzen du.

Alor kulturalean hirurogeiko hamarkadan Euskal Herrian udaberri kultural gisa ezagututakoa bizi zen. Sasoi horretan kulturalki ordu-arte inoiz eman gabeko zabalkundea ematen da, egiazko berpizkunde bat eta sormenezko lan aberasgarriak zenbait esparrutan. Oteiza, Ibarrola, Txillida eta kultura talde ezberdinek eragin handia zeukaten bai Euskal Herrian bertan baina baita muga horietatik harago ere.

Euskara oinarritzko elementu bat izan zen sasoi horretan: lehenen-

go hiru ikastolak sortu ziren eta euskara batuaren oinarriak finkatu ziren. Literatura sorkuntzak izugarrizko sustapena izan zuen, gerra aurretik baino euskarazko liburu gehiago publikatzera heltzeraino-koa. ETArentzat euskara zen euskal kulturaren ardatza eta kultura identitate nazionalaren oinarria zenez, hizkuntza zen euskal herriaren definitzen zuen elementu nagusia. Euskal kantu berriaren sorrera, bereziki Ez Dok Hamairu mugimenduaren bidez gorpuztua, kultur mugimendu honi izugarrizko hedapena eman zion eta musika sentimenduen transmisiorako bitarteko garrantzitsua bilakatu zen. Kolektibo horren kontzertuak, naziotasunaren aldarrikapenerako ekimen bilakatu ziren.

Euskal Udaberria ETAren sorrerarekin batera ematen da eta esan genezake erakundea horren sustatzaile nagusietako bat dela eta era berean, euskal udaberria sortzeko arrazoien ondorio. Izan ere, ETA ez da ulertu behar talde ekintzaile soil bezala. Iraultza teorikoa suposatu zuen bi alderditan, batetik, abertzaletasuna eta kultura ulertzeko modua aurrerakoi eta berritzailean; eta bestetik, borroka esparru guztiak irekitzeko beharrea, grina iraultzailea eta herriaren ahalduz. Gerra Zibila galdu zenetik, frankismo ilunaren atzaparrei aurre egin nahi zion herri oso baten aitzindari bihurtu zen ETA.

1965. urte hasieran nabarmena da ETAk geroz eta pentsamendu ezkertiarra daukala eta horren adibide ziren langileriaren erreallitatearekiko hurbilketa, migratzaileen integrazioaren alde kokatzea edo emakumearen askatasuna premiazko zat jotzea. Migratzaileen kontua abertzaletasunaren baitako eztabaida handietako bat izan zen. ETA bere sorreran arrazismoaren kontra agertu zen baina ukazina zen migratzaileek identitate espāñolekoak izanik, kontraesan ugari sortzen zituela erakundearen baitan. Gutxika gutxika nagusitu zen jarrera aldiz, migratzaileen integrazioaren aldeko eta euskal komunitatea bereizten zuen barrera psikologikoak kentzearen aldeko izan zen. Emakumearen gaiari dagokionean, euskal jendartearen gainontzeko erreallitate europarrak baina atzeratuagoa zegoen gai honetan. Hala, maiatzean argitaratutako Zutikeko artikuluan batean emakumeak bizi zuen zapalkuntza aztertuta eta beraz aldatzeko zenbait ideia proposatzeaz gain, erroko aldaketa global baten premia azaltzen du eta lehen urratsa etxe barrutik hasten

dela iragarri. Halako hausnarketek euskal feminismoaren abangoardia teorikoan kokatzen du, nahiz eta egia den teoriaren eta praktikaren arteko alde handia zela militante bakoitzaren jarrera ez zetorrelako pentsamendu kolektiboarekin bat.

## Laugarren asanblada

1965eko uztailan ETAko hogeit hamar militantek Loiolan egin zuten laugarren asanblada, orain arteko asanbladarik sakonena edukiei dagokionean eta erabakitzailea askotariko esparruetan. Egoeraren azterketarekin hasi zen asanblada, estatu frantses eta espāñoleko egoera soziala, politikoa eta ekonomikoa aztertuz hain zuzen. Horrez gain, bitartekoen lehen inbentarioa egin zen, historiako lehenengoa. Alde ideologikoari dagokionean, hausnarketa nagusia oinarri ideologikoak egokitzearen baieztapenean oinarritzen da. Langile mugimenduan parte hartzearen ondorioz, ETAko militante asko geroz eta hurbilagoak ziren marxismoarekiko eta ondorioz, askorentzat ez ziren erosoak Printzipioetan jasotzen ziren zenbait aipamen komunismoaren kontra. Hargatik, erakundeak dokumentu horri baliogarritasuna kenduko dio barne mailan, nahiz eta propagandarako bitarteko bezala erabiltzen jarraituko zuten. Marx, Engels, Lenin edo Mao bezalako teoriarari iraultzaileen ekarpenei aitortza ematen zaie modu ofizialean baina ez du horietako inoren pentsamendua bere egiten.

Baina asanbladako gai pisutsuena taktikoa izan zen, izan ere, aurreikusita zeukaten konfrontazio maila eta errealtatean ematen zena ez zetozeela bat. Ondorioz, ETAk ponentzia berri bat eztabaiatu eta onartzen du zeina orduko errealtateari egokituago dagoen. Ponentzia hori Jose Luis Zabalbidek idatzi zuen eta Gerra iraultzailerako oinarri teorikoak izenekoak zen. Konfrontazio zabal bat ematen den egoera bat planteatu beharrean, gerra iraultzailea gutxika gogortzen joango den prozesu gisa ulertzen da. Euskal Herriaren autodeterminazioa helburutzat daukan prozesu politiko eta militarri deitu zion Zabalbidek gerra iraultzailea. Dokumentu honetako ideia nagusia akzioa-errepresioa-akzioa zikloa izan zen. Hobeto ulertzeko, demagun antolatutako gutxiengo batek estatua erasotzen duela azken hau erantzutera behartuz. Gutxiengo horrek errepresio kolpetik ihes egitea lortuko balu eta herritarren artean

izua zabaldu ordez, jarrera errebeldea piztea lortuko balu, jada masa zabala bat izanik gutxiengo horri babesa erakusten diona, akzioa-errepresia-akzioa zikloa berriz hasi ahalko litzateke baina intentsitatea areagotuz.

Modu horretan ETAk onartzen du, iraultzaren lehenengo hazia gutxiengo bat izango dela eta beraz baztertu egiten ditu matxinada baten antzeko planteamenduak. Hiru etapa nagusi aurreikusten ditu ETAk:

1. Erakunde armatua existitzen dela ezagutaraztekoa.
2. Odol isuria ekarriko duten ekintzak egin ahal izateko baldintzen prestaketa.
3. Bitarteko guztien erabilerarena, nahiz eta indarke riazkoak izan, ziklo iraultzailea indartzen joateko.

Erakundearen aburuz, lehenengo etapa jada egina zegoen eta bigarren etapa ongi burutzeko ordurarteko propaganda lanekin jarraituz, maila guztietako ekintzak egikarrituko dituen taldetxo baten prestaketari eta errepresioari eutsiko dion egitura egokitzeari ekiten dio.

Egituraketari dagokionean, Buruzagiaren figura guztiz eskolaratutako Aginte Batzorde batengatik ordezkaturako zen eta ekintza armatu zein ekintza politikoari ekiteko, egitura paraleloaren bidez, prestatu zuen bere burua: informazioa, militarra, ofizina politikoa, egitura paraleloa eta herrialdeetako arduradunak jarritz. Azkenik, erakundearen egoera prekarioa medio, "bahiketak" izeneko komisia jarriko zuen martxan finantzaketa bitarteko bezala.

Erakundearen zabalpen etapa baten hasiera izango zela aurreikusi zitekeen baina hurrengo hilabeteetan bere lehenengo banaketa ekarriko duen krisi handia bizi izan zuen erakundeak. Arrazoa: askapen soziala emateko proposatzen ziren sozialismorako bide ezberdinen talka.

## V. Asanblada

Sasoi horretako langile mugimendua oso mesfidatia zen abertza-



letasunarekin zerikusia zuen edozerekin eta aldi berean, komunismoa aipatze hutsarekin izutzen zen abertzaletasuna zegoen. ETAren asmoa bi filosofia horiek askatzailetik daukatena bere egin eta teoria berri bat sortzea zen. Hau egitea ordea, euskal nazionalismoa eta ezkertartasunaren sintesia egitea, ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Gaia korapilatsua zenez, eztabaida urte luzeak eman ziren erakundean, baina barne kohesioa mantentzea lortu zuen definitu gabeko sozialismo batek eskaintzen zion anbigueta-teari esker. Hala ere, militantziaren adostasuna ez zen erabatekoa eta V. Asanbladako lehenengo egunetan zatiketa bat eman zen, EMK-tik hain zuzen, hasieran ETA-berri izango zena.

Zatiketa hori ulertzeko ezinbestekoa zaigu bosgarren biltzarraren aurrekariak ezagutzea. Bulego politikoko parte hartzaileak ziren batik bat errealtatearen gaineko azterketa espāñolistagoa egiten zutenak. Zutik idaztearen ardura Bulego politikoa zen sasoi horretan eta beraz, ikuspuntu espāñolista horrek kanpora proiektioa ere bazuen bertan argitaratutako artikulu ezberdinen bidez. Bulego politikoa pentsamendua azaltzeko dokumenturik egokiena Por una izquierda socialista revolucionaria izeneko zen, bosgarren biltzarrean eztabaidatzeko prestatu zuten ponentzia hain zuzen. Bertan, sozialismoa lortzeko erreforma mailakatu batzuk ematea proposatzen zuten estrategia gisa. Borroka armatuak funtzio laguntzailea izango zuen, garrantzia gutxiagoko ekintzak egitera mugatuz. Askapen nazionalerako estrategia bigarren maila batetan agertzen zen, lehentasun osoa ezkerreko sektoreak batu zituen euskal mugimendua sortzeari ematen ziotelarik. Izan ere, langile borroka, bereziki sindikalgintza, izan behar zen iraultzaren motorra.

Pentsamendu honekin beste ikuspuntu batek egiten zuen talka. Izan ere, militanteetako batzuk abertzaletasun iraultzailatzat eza-gutzen dena defendatzen zuten. Sektore honetakoak ziren adibidez Etxebarrieta anaiak, Eskubi, Bereño eta Jesus Mari Bilbao, eta hauen aburuz marxismoa eta abertzaletasunaren batura posible zen.

Bi sektore hauen arteko presioa geroz eta handiagoa zen eta ondorioz, 1966ko azaroan Aginte Batzordearen bilera berezi bat egin

zen Mutrikun eta bertan Patxi Iturrioz zein Bulego politikoko gainontzeko kideak kanporatzea onartu zuten.

Nahiz eta zaila egiten den ETA bezalako erakunde batetan españolismoa sustraitzea, sozialismoaren irakurketa lineal batek eraman lezake pentsatzera Euskal Herriko zapalkuntzaren arrazoia Estatu españoloko kapitalismo inperialista dela eta beraz, praktikoen eta solidarioena, lehendabizi estatuko gainontzeko langileekin elkarlanean kapitalismoa suntsitu eta ondoren autodeterminazio eskubidea eskuratzea dela. ETAko beste askorentzat ordea, planteamendu honen atzean zegoena ezkertiarrez mozorrotutako pentsamendu nazionalista españolola zen.

Abenduaren 7an egin zen ETAREN bosgarren biltzarra eta aurreikusitako moduan, ekidin ezina zen eztabaida ideologikoa eta kanporaketak etorri ziren. Hilaren 8an oraindik eztabaidak jarraitu egiten zenez, biltzarra hasi orduko bozkatu egin zen ea Iturriozek bilkura horretan parte hartu behar ote zuen, eta gehiengoak hala nahi izan zuelako, bera gabe ekin zitzaion biltzarrari. Ondorioz, Bulego politikoa eta Iturriozen aldekoak (42 militantetik 12) bilkura horretan ez parte hartzea erabaki zuten. Asanblada honetan, berretsi egin zen Bulego politikoen kanporatzea.

Behin kanporaketa onartuta, Iturrioz eta gainontzekoak ETA-berriena bere egin eta Zutik aldizkariaren kontrolaren jabe ziren heinean, honen publikazioarekin jarraitu zuten. Hala, asanbladaren osteko urteetan Zutiken bi edizio izan ziren. 1967an AST taldearekin batera (Alianza Sindical de Trabajadores), ORT sortu zuten (Organización Revolucionaria de Trabajadores), hurrengo hamarkadako talde aktibatuenetariko bat. Gutxinaka ordea, mugimendu abertzalearen erreferentzia ETAK hartu zuen eta ondorioz, ETA-berri bere izena erabiltzeari utzi zion eta baita Zutik publikatzeari ere. 1972an estatu españoloko mugimendu komunisten bateratu ziren MCE (Movimiento Comunista de España) sortzeko, bere euskal adarra MKI zelarik.

Asanblada osteko hurrengo asteetan, Zutiken bidez (44. zenbakia) ETAK bere posizioa argitu zuen eta bertan Euskal Langile Herria definitzen zen eraldaketa sozial eta askapen nazionalerako mo-

tor gisa. Lehen aldiz erabiltzen zen kontzeptu honek Euskal Herria lan eta bizi ziren guztiei egiten zien erreferentzia, eta garai horretan immigrazioa askapen borrokan lerrokatzeko balio izateaz gain, gerora Ezker Abertzaleak izan duen tresna teoriko sakonenetakoa izango da. Migrazioaren afera bere tesutinguruan kokatzea ezinbestekoa da: izan ere, aurreko mendeko 50. eta 60.hamarkadetan Hego Euskal Herrira, espainiar estatuko herrietatik 800.000 bat langile etorri ziren, aldaketa demografikoak eragin soziokultural garrantzitsua izan zuelarik. Euskaldun askok, kolonizazioa ikusten zuten bertan, eta mende hasieran bezala, maketo, manzanilo, belarrimotx eta gisak irainekin ziren ezagunak. ETAk behin betiko euskal arrazakeriaren kontrako diskurtso koherente bat osatuko zuen horrela.

Aurrerago KASek egindako klase sozialaren definizioaren barruan, euskal nazio askapenarekin bat egin dezaketenak definitzen ditu EHLren parte:

“Langile klasearen baitan dira soldatapeko langileak, kapitalak bere lan ez ordainduaren zati bat lapurtzen dietenak, bere lan indarraren kontrolaren kanpo daudenak eta bere erreprodukzioaren eta kapitalaren kontrol konstante eta aldakorrean direnak. Langile klasekoak dira etxeko lanen bidez eta esplotazio patriarkal-familiarraren bitartez, lan indar sozialaren erreprodukzioa mantentzen duten emakumeak. Langile klasearen barne daude, aparatu burokratiko-administratiboetako eta politiko-ideologikoetako langileak, bere etorkizunaren jabetza minimoa ez dutenak, ezta beraiei dagozkien erabakiena ere. Langile klasekoak dira biziraupen loturak direla eta, aurreko hiru kategorien menpe diren pertsonak.”

“Euskal jendartean, langile klaseaz gain, badira klase eta sektore sozialen multzoak sozialismoaren kausara batu litezkeenak. Horiek denak, gehiago edo gutxiago, euren artean interes komun batzuk dituzte bai eta kontraesan batzuk ere(baina ez antagonikoak). Klase eta sektore sozialen multzo hauek osatzen dute Euskal Langile Herria”

“Euskal Herrian bere lan-indarra saltzera behartua dagoena” izango da herrikoiki egiten den sintesi teorikoa, Euskal Herri Langilea

ulertzekoa.

Bulego politikoaren gora beherak gaindituta, ETak biltzarrekin jarraitu zuen oinarri ideologikoari lehentasuna emanaz. Horrela, bere burua euskal nazio askapenerako mugimendu sozialista gisa definituko du, lehen aldiz abertzaletasuna eta sozialismoa batuz, eta bere ideologia abertzaletasun iraultzailea dela zehaztuko du. Bestetik, antolakundearen egitura lau frontetan banatzen dute: Kulturala, Politikoa, Militarra eta Sozio-ekonomia (Frente Obrero gisa ezaguna). Nazio Fronte bat osatzeko apustua egingo du, beti ere independentista izango zena, eta burgesia txikiaren sektoreekin elkarlana egiterik ez dute baztertzen.

ETak bosgarren biltzarrean abertzale independentista, sozialista iraultzailezat aldarrikatu zuen bere burua eta nazio hizkuntza gisa euskararen aldekoa dela zehaztu zuen. Helburu horiek lortzeko, borroka armatua erabiltzea defenditzen du. Ia hamar urtetako ibilbidearen ostean, bosgarren asanblada erakundearen bigarren sorreratzat hartu dezakegu, gerora ETaren historiako salto kualitatibo nabarmenena suposatuko duena, eta historiako azken zatiketa ideologikoa.

## Espiralaren hasiera

Hurrengo hilabeteetan, erakundeak zehaztutako ildo ideologiko eta antolakuntza eredu berriak euskal jendarteari ezagutaraziko zizkion 48. Zutikaren eta 68ko aberri egunean idatzitako manifestu baten bitartez. Hauetan, balorazio positibo bat egiten zen erakundearen fronte ezberdinen ekintzen eta propagandaren gorakada zela-eta. Askapen nazional eta soziala gauzatzeko martxan jarritako mekanismo berrien eraginkortasuna ikusita (poliziak gerra deklaratu zion ETari), euskal jendarteko sektore batzuk gogor kritikatu zituen, bereziki ETA burges txikia zela zioten ezkertiar batzuei, eta abertzaletasun "akomodatua" burutzen zutenei. Txabi Etxebarrieta gazteak idatzitako agirietan, anbiguotasunaren garaia amaitutzat eman eta etortzear zeuden urte latzetan guztion parte-hartzea beharrezkoa zela azpimarratzen zuen.

“El que no alce la voz para protestar, el que guarde un “prudente” silencio es un cómplice de los torturadores. Que nadie diga “no sabía”, que nadie diga “cumpló ordenes”, que nadie puede decir “no quiero lios”. Para nadie es un secreto que difícilmente saldremos de 1968 sin un muerto.”

Manifestu hau kaleratu eta aste gutxira Euskal Herriaren borroka fase berri batean sartuko zen, hain zuzen, Guardia Zibilak azken agiriak idatzi zituen Txabi Etxebarrieta militante gaztea hil zutenean.

Txabi Etxebarrieta beste kide batekin kotxean zihoala, poliziaren kontrol batean gelditu eta matrikula egokia ez zela konturatzean, Txabik pistola atera eta Jose Pardines Guardia Zibila tiroz hil zuen. ETAko militante batek eragindako lehenengo hildakoa izan zen. Ihesean, Tolosako Benta Haundiraino iristea lortu zuten, baserri batean ezkutatzeko saiatuz, baina han beste kontrol batekin topo eginda Txabi Etxebarrieta ezagutu eta tiroz hil zuten.

Azkeneko urte luzean ezaguna egin zen Txabi, ez bakarrik erakunde-kideen artean, baita ere beste formazio politikoetan. Bere gaitasun politikoengatik V.asanbladan zuzendari lanak burutu zituen eta hurrengo urteetan lan ideologiko garrantzitsua egin zuen. Honengatik, eta bere heriotzaren testuinguragatik –inor hiltzen zuen eta borrokan hil zuten lehengo ETA kidea izango zen- belau-naldiz belaualdi borroka ikur bilakatuko zen Txabi. 23 urte zituen hil zutenean.

Saminez eta amorruz, Euskal Herria borroka fase berri batean sartzeko prest zegoen. Hilabete bat pasatzean zela, Gipuzkoako “Brigada Politico Social”eko komisario-buru eta garaiko torturatzailerak ezagunenetakoa zen Meliton Manzanos hil zuen ETAk, “aurrez prestatutako” lehenengo hilketa izango zena. Ekintza hau A-R-Aren espialaren ordurarteko adibide garbiena izan zen.

Hurrengo asteetan estatuak errepresioaren makinaria guztia martxan jarri zuen. Salbuespen egoera dekretatu eta ehundaka atxilotuak eman ziren, asteetara luzatzen zen inkomunikazioetan tortura latzak jasan zituzten euskal herritar askok. Hala ere, 1968an, ekin-



tza-errepresioaren estrategiaren baitan lortutako errentagarritasun politikoaz gain, plano organizatiboan berrindartuko zen, ehundaka gazte ETAn militatzera sartuko ziren, 600 kide izatera iritsiz. 1969an ordea, estatuak ezartzen zituen salbuespen egoera gogorretan, 2000 atxiloketa eman ziren, torturapean eta tiroketetan hildakoak ere gertatuz. ETArek ia zuzendaritza guztia atxilo hartu zuten Bilboko Artekalen eta Kantabriako Mogrovejo herriko sarekadetan.

Beraz, 70. hamarkadako hasiera ez zen bereziki emankorra izan. Antolakundea goitik behera berregituratu behar izan zuten eta "erretako" militanteak "erretagoardiara" bidali. Iparraldean egoera okertzen hasia zen, Gobernu Frantsesak geroz eta traba gehiago jartzen baitzizkien errefuxiatuei. Testuinguru honetan, Telesforo Monzonek besteak beste, Anai Artea antolakundea sortuko dute Ipar Euskal Herrian, errefuxiatuei babes-lan oso garrantzitsua burutuz. Deportazioak ematen hasi ziren, konfinamenduak, espetxeratzeko laburrak...

Zuzendaritza lanak hartutako militanteak abertzaleen fronte batera ordez klase-borrokara gehiago hurbildu arren, Nazio Fronte bat sortzearen ahaleginak egongo ziren, BAI kanpainaren (Batasuna, Askatasuna, Indarra) filosofia berriro landuz. Batasuna Eguna sortzearen ahaleginak egin ziren, baita burutu ere, nahiz eta PNVk, EGIren eta Nafarroako zuzendaritzaren nahiaren kontra, ez zuen parte-hartu.

## Oinordekotza galtzearen beldurra

1969.urtean, erakunde armatuaren zuzendaritza atxilotua izan denez, asanblada berri bat egitearen beharra ikusiko zen. Bertan, ika-mika gogorrak egongo ziren, bereziki, V.asanblan parte hartu zuten kide asko espetxeratuta, militante gehienak sartu berriak zirenez, aurreko bileretan erabakitako gauza asko berriz mahai gaineratu zirelako. Zuzendaritzaren helburua, PNV eta EGI politika iraultzailera (Fronte nazionala) erakarri eta langileen alderdi euskaldun bat sortzea izango zen. Fronte militarren inguruan zebiltzan militante batzuk ordea, "bostak" bezala ezagutuak, V.asanbladaren herentzia defendatuko zuten eta zuzendaritzak hartu

zezakeen bide espanyolistaz beldur ziren. Hauek, asanblada berriaren deialdia eta formak ez-legitimoak zirela esanez bertatik alde egin zuten. Hurrengo egunetan, "bostak", erakundea V. asanbladaren parametroetan mantentzea aldarrikatu zuten eta kolektibo hau ETA V. bezala ezagutua izango da.

ETA V. arentzat Euskal Herriaren independentzia nahitaezko elementu bat zen. Zuzendaritza berriaren erretorika zentzu honetan zalantzagarrria eta eskasa zen, eta nahiz eta ezer ez ukatu, gehiegi ideologizatutako kontzeptu politikoekin, askotan ulertzeko konplexuegiak zirenak, euskal identitatearen defentsa lurperatzen ari zirela uste zuten.

Zatiketa hauen ostean azken asanblada onartzen zuen taldea ETA VI. edo Sexta bezala ezagutuko da. Hasieran militante ugari izango ditu, izan ere, egiturak blokeka mugitzeko joera zuen, eta ardurdunen zintzotasun faltak, oinarriko militantzia erabakitzeko elementu nahikoarik gabe ibiltzen zen. Hurrengo hilabeteetan ordea, ETAn posizio historikoetatik urruntzen joango da, militantziaren gehiengoa ETA V. era bueltatzea eragingo duena. Beranduago Liga Komunista Iraultzailearekin (LCR) bat egingo du, hemen LKI eratuz. 1970. urteko bukaeran, ETAn zegoen nahastearekin, espero ez zen gertakari batek, erakundea bera eta Euskal Herriak bizi duen gatazka, mundu mailako iritzi publikoaren ahotara iristea ahalbidetuko du: Burgoseko prozesua.

Militar Tribunal batek erakundeko 16 kide epaitu zituen 1968 eta 1969. urtetako ekintzak burutzea egotzita. Frankismoak zigor gogorak jarri nahi zituen, geroz eta handiago zen ETAn indarra geldiarazteko. Epaietan, publikoki, ETA akabatuta zegoela antzeztu nahi izan zuten. Gure herriaren historia politikoan inoiz eman den akatsik larrienetakoa burutu zuten. Estrategia honen disenatzaileen ustez ETA harreman edo lotura sozialik gabeko gazte talde txiki, erradikal eta isolatu bat zen, baina epaiketa salatzeke burututako mobilizazioetan, argi ikusi zen ETA bere oinarrizko eskubideak urratuak izaten jarraitzearen kontra zegoen herri baten isla zela. Gazte epaituen defentsa Euskal Herriaren identitate kolektiboaren adierazpena bilakatu zen. Akusatuak akusatzaile bihurtu eta Frankoren erregimena mundu osoan salatzeke balio izan zuen. Greba oroko-

rra deitu zen Euskal Herrian, Gipuzkoan hiru hilabeteko salbuespen egoera ekarriko zuena; Eibarko protestetan poliziak gazte bat hil zuen; ETA Vak Eugen Beihl Alemaniako kotsula bahitu zuen; Danimarka, Suedia, RFA eta Europa zein mundu mailan mobilizazioak egin ziren; Milanon, Italian, beste gazte bat hilko du poliziak.

Bitartean Burgosen epaiketa aurrera zihoan, tentsioak erregimenean ere talkak eraginez. Frankista askorentzat, kaleko kontrol galera, Opus Deiri lotutako "teknokratak" deituriko agintariek bultzatuko neurri berriek eragin zutela uste zuten eta Francoren aldeko manifestazioa deitu zuten. Azkenean, epai militarrek seiri heriotza zigorra ezarri (hiru bakoitzak) eta gainerakoentzako espetxe urte mordo bat ezarri zituen. Hala ere, militar estamentu altuenek bultzatutako sententziak, ez zuen sendotasunik erakusten eta hurrengo egunetan presio herritar eta diplomatikoak ezinezkoa egin zuen kondena ezartzea.

Nahiz eta frankismoak egoera konpontzen saiatu, abenduko krisi politikoak diktaduraren amaieraren hasiera markatu zuen. Posizio gogorrenek, teknokraten plan erreformista xumea desegin eta neurri atzerakoiagoak hartuko zituzten, erregimen beraren deskonposizioa azkartuko zuena.

Dena dela, zaurituta zegoen Frankismoak ez zuen erraz lurra joko. Oinarri sozial zabala zuen oraindik, ejertzittoa eta oligarkiaren babesa eta AEBtako eta gainontzeko potentzia inperialisten konplizidade argiarekin. Ikasgaia ongi ikasia, gobernuak errepresioa beste era batera zuzenduko du. Ez ziren epaiketa masibo gehiagorik burutuko, ETAko militanteak, ahal zen heinean, tramiterik gabe akatzen zituzten eta gerra zikina indartu egin zuten. Horretan, paper nagusia gobernuko presidente-ordeak izango zuen, Luis Carrero Blanco almiranteak, SECED inteligentzia zerbitzu militar berriaren bidez errepresioa zuzenduko zuena.

Garai berean, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan, eraman beharreko estrategiari buruzko eztabaida ugari zeuden. Enbatak ez zuen borroka armatuaren beharrik ikusten. ETAk ere borroka armatua bertan bidera ezina zela ikusiz, herri mailan lan egitearen aldeko apustua egingo du: Ikastolak, ELB, irratiak... Iparretarrak IK) ikus-

pegitik berriz, herrigintza bai baina baita prozesu hau azkartzeko borroka armatua beharrezko ikusiko du eta horrela, IKren zatiketa sortuko da. IK-k ipar Euskal Herriaren ikusle-laguntzaile papera ez zuen onartu nahi eta bertan ere berdin borrokatu behar zela zioen.

1971ko urte hasieran, "Nazio Fronte" bat sortzea helburu zuen prozesu bat abiatu zuten eragile politiko euskaldun desberdinek Iparralden. Fronte hau sortzeko ETAREN azken ahaleginak -1967ko BAI eta 1970eko BATASUNA kanpainak- ezerezean geratu ziren, hein handi batean, PNVk "eratze-prozesuan" jarritako erreparoen ondorioz. Hala ere, Burgoseko epaiketak eragindako mobilizazio uholdea ikusita, PNV euskal gizartean sortu berri zen indar-erakustalditik kanpo geratzeko beldur denez, predisposizio handiagoa erakutsiko du Frontearekiko. Prestaketa bilera batzuk burututa, mugimenduaren funtzioa zehazteko lehenengo batzarrak burutzen dira. Hauetan, PNV, EGI(-Batasuna), ELA, Enbata, Branka eta APV parte-hartuko dute. ETA V eta ETA Sextak ere delegaritzak bidaliko dituzte. Bileren jarduna zaila izan zen, bereziki eragileen arteko kritika eta gaitzespenen ondorioz (parte-hartzen zuten eragileen artean zatiketak egon berri ziren). Azkenean, ELA eta PNVk interes falta nabarmena erakutsita, bateratzeak bertan behera utzi zituzten, baita ELA-Berri eta ETA Sexta ere, elkarren arteko desadostasunak arrazoi. Nazio Frontearen eraketa bertan amaitutzat eman zela esan daiteke. Nahiz eta bakarrik, Enbata, Branka, ETA V, APV eta EGI(-Batasuna) geratu, hauen arteko hartu-emana esanguratsua izango da etorkizuneko aliantza politikoetan.

Garai horretan, ETA eta EGIren arteko kontaktuak ugariak ziren. EGIko militanteei, PNVren eraginik gabeko lanak frustrazioa eragiten zien eta sigla historikoak mantentzen zituen arren, guztiz autonomia zen alderdiarekiko. Apurka-apurka, ETAK EGIN sorraraziko zuen erakarpen ideologikoak, bi erakundeen hurbilketa indartzen hasiko da eta 72ko Aberri Egunean EGI ETA Vn sartuko da.

ETA V.aren indartzea eta ETA Sextaren ahultzea ETAREN ideia politikoarekin bat egindako talde sozialaren sendotasun ideologikoa erakutsiko du. Errepresioak eragindako ahuleziaren edo ETAREN siglak erabiltzen zituzten talde txiki eta ez hain txikien abentura ideologikoen gaintik, ETAREKIN identifikatutako oinarri sozialak, V.

asanbladan zehaztutako abertzaletasun iraultzailearen posiziotan egonkortutako talde solido bat sortu zuen. Soilik erakunde iraultzaile eta independentista batek jarraipena emango zion ETAREN bideari, eta hori aldatzearen edozein ahaleginak huts egingo zuen. Urte hauetan, lan mundua oso gatazkatsua zen. Lantoki askotan, lan-baldintza duinen aldeko mobilizazioak ugaritzen joango ziren eta gobernuak bortizki erasotzen zituen, azken bi urteetan, Espainiar estatuan, zortzi langile erailak izan ziren langile mobilizazioetan. Enpresetako zuzendariak ere, kaleratzeekin erantzungo zieten askotan eskakizunei. ETAK paper garrantzitsua hartu zuen lan-gatazka hauetan, lantoki desberdinetako enpresariak bahituta, langileen eskakizunak onartzera behartu zituela. ETA V.ak horrela, Sextaren ideien aurrean, ekintza armatuak langile borrokarekiko eraginkorra dela erakutsi zuen; ez ohiko erantzun bitartekoen ordezkotza bezala, baizik agortuta dauden bideen osagarri. Patronalarentzat ere mezua garbia da: langileek, beraien helburuak lortze bidean, ETAREN babes osoa dute. Enpresari asko euskaldunak ziren, bere kontra joateak eragozten ez zuen baldintza.

“Todos los patronos son iguales para nosotros, son nuestros explotadores, no cambia nada que tengan o no apellidos vascos, pues nos oprimen igualmente sean vascos, españoles, franceses o yanquis (Zutik 63, 1972)”

## Ogro Operazioa

1973ko abenduaren 23an ETAK Luis Carrero Blanco exekutatu zuen. Ekintza honek garrantzi handia izango du, izan ere, Carrero ordu-rako Frankismoko gobernuko presidente izateaz gain, Frankoren oinordekoa izatekoa zen, bera baitzen eskuindar sektore eta familia politiko desberdinen konfiantzazko gizona eta bera izango zen Juan Carlos Borboikoaren erregetzan sektore hauen batasuna bermatuko zuena. Ekintza ikusgarri honek, ordura arte ezezaguna zen ETAREN gaitasun operatibo eta militarra erakutsiko zituena, jadanik kinka larrian zegoen erregimenari azken danbatekoa emango dio. Bi urtetan ETAKO 8 militanteren bizitza galtzearen ondoriozko ezkontasunari (horietako sei erailda, beste biak lehergailuen presaketan) frankismoaren jarraikortasuna bermatuko zuen Carrero akabatzeak, erakundean, eta oro har euskal jendartean, eraginda-

ko baikortasuna gailendu zitzaion.

1973 hasieran Argala, Wilson eta Javier Larreategi Madridera joan ziren, Carrero ogroaren bahiketa prestatzeko. Udaberrian ekintza burutzeko egun gutxi falta zirela, kasualitatez, hainbat lapur komandoak erabiltzen zuen lokal batetara sartu ziren. Horrek ekintza bertan behera uztea ekarri zuen epe laburrean. Ekainean berriz, Ogro almirantea espainiako presidente izendatu zuten, bere pertsonarekiko segurtasun maila handitu zelarik. Beraz, irtenbide bakarra zuen Txikia komandoak, almirantea exekutatzea.

Eguneroko mezara joateko egin behar zuen bidea ongi kontrolatuta, tunel bat egin zuten, T horizontal formarekin, eta bertan 75 kilo dinamita leherrarazi zituzten. Ogro presidentea eta frankoren jarraipenerako ametsak hegan atera ziren. Eta hegan literalki, erai-kin oso bat pasa zuen eta kotxeak. Txikia komandoak dena ondo loturik, kontrol polizial zorrotzen artean ihes egitea lortu zuen, iparralderaino iritsiz hurrengo asteetan. Ekintzaren ikusgarritasunak era guztietako erreakzioak eragin zituen, adibidez PNV edo PCE bezalako alderdi epelenak, ekintzari garrantzia kendu asmoz. Handik gutxira Eva Forestek elkarrizketa egin zion Txikia komandoari, ekintza mitikoaren prestakuntzaz literatura klandestinoko best-seller bat eginez. Esanak esan, herriak aski ondo ulertu eta ospatu zuen ekintza, Francoren ondorengorik gabe zaila izango zen frankismoa mantentzea eta.

## Langile Frontea

Garai horretan, estatua eta erakunde armatuaren arteko konfrontazio militar latza piztu zen. Fronte Militarrean, eragin soziala nabarmentzen ari zela ikusita, erakundea herri sektorearentzat antolakuntza marko bat izatea geroz eta arriskutsuago ikusten zuten, bertan militatzea zekarren neke eta sufrimenduagatik. Horrek, Langile Fronteko (Frente obrero) militante ugari erakundea uztera bideratu zuen. Gerora eman ziren zuzendaritzaren batzarretan, FOarekin emango zen apurketaren hipotesia baloratu zen eta hori ordezkatzeko, zenbait aldaketa burutu ziren erakundearen egiturari. Mugimendu berri horiek ikusita, Langile Fronteko militante askok behin betiko erakunde armatua utzi eta 1974ko Udan LAIA (

Langileen Alderdi Iraultzaile Abertzalea) alderdia sortuko dute.

Apurketa gertatu berri, COA (Comisiones de Obreros Abertzales) izeneko langile komisiok agertzen dira. Besteak beste, ETA eta LAIA, askotan desberdintasunak alboratuta, buru-belarri jarriko dira abertzale eta iraultzaile izaera izango duen langileen borroka-tresna bat sortzeko. Garaiotan, ETAREN Langile buletina sortuta, soilik lanarekin lotutako gaietan zentratuko zena, erakunde armatuak langile sektoreekin egin beharreko lanaz ohartu zirela ikus daiteke. Aipatu langile batzorde hauek, antolakunde bakarrean batzearen ideiarenean aurrean errepresioaren afera mahai gaineratu zuen LAIAK, eta beraz, langile zelula autonomoen apustuarekin jarraitu zuen. Hala ere, COA-k 1975ean egituratu ziren, Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sortuz.

LAIA, COA, HAS eta EAS bezalako sorrerek Ezker Abertzalearen egituren "enokadraketa" errazago bat ahalbidetu zuen. ETAN baina, mesfidati begiratzen zioten egoera berriari. Eragileak linea erreformista edo-eta espagnolistan murgiltzearen beldurra egoteaz gain, erakunde armatuaren zuzendaritzan "doan lan" egitearen sentazioa zabaldu zen. Hau da, ETA kostu latzak sufriarazten zizkion estatuarekiko konfrontaziorako baldintzak sortzen ari zen, baina bere ideologiarekin bat zetorren jendearentzat marko egokirik ez izatean, indar hori ez zutela guztiz probesten pentsatzen hasi ziren. Gazte askoren kontzientzian ETAREN borroka pizgarri izan zela esan daiteke, eta horregatik, askok, borrokan konpromezu maila altuago bat hartzeko gogoz beste eragileetan militatzen hasiko dira. Honi "antolakuntzarako zeharkako eragina" deitu izan zaio.

Arazo hauen eztabaidek ETAK bere historian jasandako zatiketarik garrantzitsuena sorrarazi zuen.

## Miliak eta Polimiliak

1974ko udan, polizia frankistak erakundearen hamarnaka militante atxilotu, larriki zauritu eta beste bat erail zituen. Honi erantzuteko, ETAK, Madrilera Rolando kafetegian indar handiko lehergailua jarri zuen. Polizia espagnolaren zentralaren aurrean zegoen kafetegia, eta hauetako askok horra joateko ohitura zuten. Hala ere, leherke-



taren ondorioz hildako 13en artean polizia bakarra zegoen. Akats larri honen aurrean ETaren zuzendaritza hunkituta gelditu zen eta egoera delikatuaz jakitun, ekintzaren egilea erakundea dela ukatzen zuen agiri bat kaleratu zuen. Miliak deituriko sektoreak, ekin-tza bere gain hartzea exijitu zuen, horrek ekarriko zituen kostu politikoei aurre egiteko ardurarekin. Politiko-militarrek aldiz agiria-  
ren alde jarraituko zuten.

Ekintzaren eztabaidaz gain, VI. Asanblada bigarren zatia nondik -norakoak prestatzeko Biltzar Ttipian, Ezker Abertzalearen oinarri soziala nola egituratzea erabakitzeko sortuko den hika-mikak eka-  
rriko du zatiketa.

Franco hiltzear zegoela ikusirik, etortzear zegoen aldaketari nola aurre egin eztabaidatzen hasi zen. Ordura arteko lau fronteen ere-  
dua agorturik zegoela ikusita, masa borroka eta borroka armatua-  
ren antolaketa-ereduak sortuko du gatazka erakundearen barnean. Eztabaida, hasiera batean, antolakuntza ereduak piztu zuen, baina urte gutxira agerian geratuko den bezala, eztabaida horren ondo-  
rioengatik sortutako bi talde desberdinek ibilbide politiko erabat desberdinak eramango dituzte.

Erakundeko militante talde batek, zetorren garai politiko berrira-  
ko, masa borroka ekintza armatuak jorratuko lituzkeen erakunde-  
tik organikoki banatzea defendatu zuen. Herri borroka bultzatuko  
duten antolakundeek ez dute organikoki zerikusirik izango ETAre-  
kin. Teoria honen bultzatzaile eta erreferente nagusia Jose Miguel  
Beñaran "Argala" izango da. Argudio nagusien artean militanteen  
segurtasuna, herri borroka egiteko erakunde egonkorren beharra  
eta borroka armatua prozesua azkartzeko tresna izanik bestelako  
interes instituzional politikoen merkatutik kanpo egotearen garran-  
tziak ziren.

Beste batzuk aldiz, masa borroka eta borroka armatua erakunde  
berberak egin behar zituela defendatuko dute. Borroka armatua  
prozesuan eragiteko tresna izanik, gainerako borrokekin loturik eta  
uztarturik egon beharra ikusiko dute. Lotura eta koordinazio hori  
emateko erakunde berberak bi borroka moldeak bere baitan bildu  
behar dituela defendatuko dute. Teoria honen antolaketa egiturari

“politiko-militarra” deitzen zioten.

Gaia Biltzar Ttipian mahai gaineratu zenean milien sektoreak bileratik alde egin zuten, hauen iritziz, Biltzarrak ezin baitzuten Asanbladaren konpetentziak bere gain hartu. Horrela, politiko-militarrek, milien presentzia gabe, erakundea berregituratzeko neurriak hartu eta VI. asanbladaren bigarren zatia aurreratu zuten.

Militantziaren gehiengoak poli-mili taldearen tesiekin bat egingo zuten. Batzuk konbentzimendu osoz, beste batzuk, erakundearen kontrola poli-milien esku geratzen zenez, inertziagatik. ETAm hasieran 10 kide soilik geratu omen ziren, baina hamarrak egiten zuten apustuaren konbentzimendu osoarekin. Historiak arrazoia eman zien.

Hurrengo hilabeteetan emango diren ekintza armatu, erantzun errepresibo eta mobilizazioak aurreko urtetan euskal jendartean eman ziren aldaketen erakusle izango dira. Burgoseko epaiketaren kontrakoetan ez bezala, konfrotazio koiuntura berria ez zen mehatxu errepresibo bati erantzuteko, jendarteak egoera politikoan aktiboki parte-hartzea bultzatu zuen konfrontazio plangintzaren erantzun masiboa baizik.

Gobernuaren erantzuna hiru hilabeteko salbuespen egoera latzena ezartzea izango zen, ordurarte eman zen gogorrena. Balantzea ikaragarria da: 4000 atxilotu, gehienak torturak jasaten zituztela, eta sei erailak izango dira. Aipagarria da Bilbok ezagututako errepresio maila, zeinetan gau bakar batean 400 lagun atxilotuak izan ziren, zezen plaza komisaldegi inprobisatu bat bilakatuz. Poli-miliak, komando bakar batekin geratuko dira, El Lobo polizi-infiltratuak ia ETApm guztia atxilotzera lagundu ostean.

1974ko irailan, Frankok erregimena bere horretan jarraitu eta Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru kideri heriotza-zigorra ezarri zien. Azken erabakia zeukan Gobernu espāñoleko Ministro-kontseiluak erabaki hartu bitartean, interbentzio diplomatiko, protesta eta manifestazio ugari burutu ziren, baina azkenean, sententzia egikaritutako du. Otaegi Burgosen eta Txiki Bartzelonan fusilatuko dituzte, FRAPeko hiru kideak berriz, Madrilan. Irailaren 27, ordutik, askapenaren al-

deko bizia galdu duten euskal militanteak omentzeko gudari egun bihurtu zuen herriak.

Protestak, Euskal Herrian bezala, beste herrialde askotara zabaldu ziren. Leku askotan, espainiar produktu eta enpresei boikotak burutzen zitzaizkien eta ordezkariak komertzial eta diplomatikoak erasotuak ziren. Lisboan enbaxada erasotu eta erre ondoren, bertako eta beste herrietako enbaxadore denboraldi batez erretiratuak izango ziren. Bi eguneko greba orokorrak deitu ziren, babes oso zabala izango zutenak. Baina, golpe diplomatiko gogorrena, Europako Ekonomi Elkarrekin Espainiarekin izaten ari ziren negoziazio komertzialak etetea izango zen.

## **GALDERAK:**

- Zein zen Askapen Mugimenduaren egoera ETA sortu aurretik? Langile mugimenduaren borrokek zer ikusirik izan al zuten kontzientzia nazional iraultzailea sortzeko? Eta nazioarteko egoerak?
- Zer uste duzu suposatu zuela ETAREN sorrerak politikoki, kulturalki eta sozialki Euskal Herriarentzat? Gaur egungo egoera zein litzateke?
- ETAZ gain zein izan ziren hastapenetan frankismoaren kontrako eta Euskal Herriaren aldeko subjektu politikoak?
- Asanblada ezberdinen bilakaera ikusirik, zein da zure ustez garrantzitsuena?
- Zein ondorio izan ditu Euskal Herri Langilearen kontzeptuak? Uste duzu gaur egun garrantzitsua dela ideia hori?
- Zein ziren ETA VI eta Vren arteko bereizketa garrantzitsuenak?
- A.R.A dinamikak eman al zituen bere fruituak? Eta Fronteen teoriak?
- Zer esan dezakezu Langile Frontearen bilakaeraz? Eta Fronte kulturalarenaz?
- ETAREN barruan emandako mili eta polimilien arteko bereizketa zergatik izan zen? Antolakuntza ereduaz gain arrazoi ideologikorik ba al zegoen?
- Zer suposatu zuen Burgosko prozesuak Euskal Herrian?
- Ze paper hartzen dute agente politikoek hamarkada honetan? (PNV, PSOE, PCE, ETA VI., falangeak, eliza katolikoak, Nazioarteko antolakunde iraultzaileak...)



2.

# **HAUSTURA ALA ERREFORMA:**

## Testuingurua

70. hamarkada, Kapitalismoaren fase berri baten agerpenarekin dator: neoliberalismoa. Sozialismoa mundu osoan hedatzen ari den bitartean, kapitalismoak sorturiko eredu keynesianoak bere lehen mugak joko ditu, eta kapitalaren metaketa berrien bila planteamendu berriak hasiko dira. Chicagoko eskolak, Thatcher eta Reaganek gidatuta, lehen esperimentu makabroa egingo da: Chileko estatu kolpea. Allenderen heriotza, sozialismorako bide baketsuen porrot gisa ikusiko da, borroka armatuaren alde lerrokatzen direlarik sektore iraultzaileak mundu osoan zehar, Cheren gorpua oraindik bero dagoelarik.

Baina petroleoaren krisia gainditzean, bestelako mugimenduak sortzen dira, Euskal Herriko rekonbertsio industrialia, kasu. Lehen eta bigarren sektoreak periferiako herrietara bideratzen hasten dira, lan indar merkearekin irabaziak handitzeko asmoz. Horrela, mendebaldea kontsumismorako ekonomia batean murgiltzen hasiko da.

Chileko ereduaz gain, Sobietar eta Txinako ereduak hainbat gabezi erakusten dituzte europako ezker mugimendu gehienentzat, eta bestelako mugimenduen gorakada hasiko da harmarkada honetan: mugimendu feminista, ekologista, antimilitaristak, okupak...

Hego Euskal Herria uharte txiki bat izango da testuinguru europarrean, diktadura gogorraren pean, erresistentzia fasean egonik. Aipaturiko erregimenaren amaiera kostata emango da. Franco faxista bere ohean hilko da 1975 azaroan, ondorengotza Juan Carlos erregeari eskainiz. Dena ongi lotuta, demokrazia burgeserako trantsizioa diseinatuko da bi helbururekin: sistema kapitalista oligarkikoaren mantentzea eta espainiar estatuaren pean herrien burujabetza onartzea. Horretarako indar antifrankistak asimilatzekeo prozesua izango da trantsizio demokratiko deiturikoa, PSOE eta PCEn barruan zeuden jarrera iraultzaile oro deuseztatu eta PNV bezalako alderdien independentismoa asimilatuz indar erregionalista kolaboratzaile bihurtzea.



## Transakzio demokratikoa

Franko hil berri, Juan Carlos printzea “jefe de estado” jarri eta bi egunetara, errege izendatu zuten. Ondorengo erregimen edo gobernu mota zehazteko, beren alternatibak defendatuko dituzte sektore politiko desberdinek. Frankorik gabeko frankismoari jarraipena emateko postura babesik gabe geratzean bi alternatiba nagusitzen dira: erreforma eta haustura.

Lehenengoa, erreformista, “zerbait aldatzea ezer ez aldatzeko” esanari lotuko zaio, Europar testuinguruan homologagarria izango zen barne erreforma bat, frankismoaren bidegabekeriak epaitu gabe eta ofizialak ez ziren botere baliabide guztiak eraldatuko gabe mantenduko zirena. Bigarrena berriz, hausturaren aldekoa, iraganeko diktadurak benetako haustura bat eskatzen zuen, hots, eskubide sozialak, estatuko nazio aniztasun izaera bermatu eta faxismoa bizitza sozial eta politikotik deuseztatuko zuen demokrazia bat ezartzea ahalbidetuko zuena. Hasiera batean, estatu mailako oposizio talde desberdinak bilduko dira hemen, hala nola PCE eta PSOE, eta Euskal Herrian, ETA eta PNV.

Erreformazaleek bazekiten iraileko fusilamenduekin erregimenak nazioarte mailan lortu zuen ospe txarra konpontzeko erreforma zela aukera bakarra, non botere tradizionalen hegemonia politikoa mantenduz, estatu espagnolaren oreka mantenduko zen. Euskal Herriaren kasuan, euskal gatazkaren konponbideak independentziari bide eman ez ziezaion, estatuko nazio aniztasunaren arazoan ere aldaketaren beharra zegoela ikusi zuten. PNV eta PSOE, nahiz eta hasiera batean hausturaren aldeko blokean egon, berehala hasi ziren erreformak emango zizkieketen onuren aurrean itsutzen. Erreformak sinesgarritasuna lortzeko oposizioaren babes behar zuela ulertzen zuten, eta babes horrek ekar zezakeen ordainsaria agerikoa zen, bai hauteskunderi begira, bai erreformazaleekin adostutako botere kopuruari begira.

1975eko urte luzean, Frankoren erregimenaren jarraikortasunaren kontrako aldarrien kezkek “zentzua” hartuko dute. Urte betean 22 euskaldun erailko dituzte. Gerra zikinaren erasoak etengabeak izan ziren, bereziki errefuxiatuen edo preso eta hildakoen senideen kontrako. ETA(m) eta ETA(p-m)k 11 hildako eragingo dituzte.

Jarduera armatuaz gain, 1975ko urtea oso emankorra izan zen Ezker Abertzalearen erakundeen sorrerari begiratu ezker. Urte honetan, LABen sorrera ezagutuko da, eta Ikasle esparruan, IAM antolakundeak errepresioak desegindako IASE ordezkatu du. Gainera, maila lokaleko beste talde eta mugimendu berri asko osatuko dira ideologikoki ildo berdinean kokatzen direnak. Herri mailako talde hauetako batek, Oreretako ELI plataformak hain zuzen, bide emango zion urte haietako Ezker Abertzalearen antolaketa mugimendurik garrantzitsuena sortzeko: Koordinadora Abertzale Sozialista (KAS). Herrikoi Batasuna delakoaren sorreran ETApM ahaleginak ezerezean geratu ziren, talde abertzaleak estatu mailako talde ezkertiarrekin elkartzeko zeukaten mesfidantza arrazoi. Data horietan Garmendia eta Otaegiren aurkako epaiketen eguna ezagutarazten da eta aipatu ELIk, indar abertzaleen bilera bat deitu zuten Gerra Kontseiluaren kontrako estrategia komun bat zehazteko.

Lehen bilera, ELI, EAS, HAS, LAIA, ETApM eta ETAm-k osatuko dute, zeinetara beranduago LAK eta LAB batuko ziren. Manifestaldi bateratu bat egin ostean, aste batzuetako eztabaidak burututa, KAS koordinadora aurkeztu zuten. "Ekintzarako koordinadora iraunkorra, eztabaida mahaia ere izango dena". Horrela, koordinadora Ezker Abertzalearen batasun plataforma bat bezala osatzen hasi zen eta fusilamenduen aurretik eta ondorengo errepresioa salatzearaz gain, bere profil politikoena erakusten hasiko da. Testuinguru horretan EAS eta HAS alderdien bateratzea gauzatu da, zeinetik EHAS alderdi ezkertiar eta sozialista jaioko den.

1976. urte hasieran, erreformazaleak nagusi ziren. Arias Navarrok aldetak emango zituela onartu zuen, besteak beste, askatasun sindikala eta asoziazionismo politikoa. Euskal Herriarekiko, aldiz, errepresioa bide bakartzat dutela argi erakusten zuten. Ikurriña debekatuta, alkate faxisten mantentzea, Montejurrako eraso... Guzti honen lekuko gogoangarriena izango da martxoan 3an Gasteizen 5 langile hil izana, euskal langile borrokariaren kontrako masakrea bihurtu zen egun beltz hura. Euskal memoria historikoan errepresioaren eta langile borrokaren ikur sinboliko bilakatuko da.

Aldaketaren eskaeren artean, Amnistiaren aldarria zabaltzen hasiko da. Bereziki, gobernu agintaritzak hartu zuen Adolfo Suarezren gobernuak proposatzen zuen demokratizazio prozesuaren baitan. Madriletik eskaintzen zuten prozesu demokratikoa ulertezina zen diktaduraren aurka borrokatu zuten militanteak presondegietatik atera gabe, eta aldarri hau koordinatzeko Gestoras pro-Amnistiak sortu ziren.

## Lehenengo hauteskundeak eta estrategia aldaketa

Erreformaren galdeketa eta 1977ko ekaineko hauteskundeen arteko hilabeteetan Euskal Herriaren historiako garairik nahasi eta bizienetakoa izan zen. Eragile eta proposamen politikoaren ugaritasuna eta egoera beraren tentsioaren ondorioz, momentu dramatikoa izango zituena, lan politiko frenetikoan murgilduko da euskal jendartea.

Diktadura ondorengo lehen hauteskundearen aurrean, estrategia komun bat sortzeko beharra ikusi zuten indar abertzaleek. Horrela sortu zen Xibertako mahaia. Gerra Zibiletik fronte bateratu bat sortzeko ahalegin serioena izan zen hau, eta fruituak eman zituela esan daiteke, bai egoeraren zirkunstantzia bereziengatik, bai Telesforo Monzonek proiektuan jarritako irmotasunagatik. Lehenengo bilerara ETAm, ETApn, PNV, alkateen taldea, ANV, LAIA-Bai, EKA, EHAS, EIA, ESEI eta ESB hurbilduko dira. Hasieratik, askatasun demokratikoa eta amnistiarik gabe ez zirela hauteskundeetara aurkeztuko agindu zuten, nahiz eta PNVk aurkeztuko nahia ez ezkutatu. Horrela, Suarezren gobernuak eskaera ezeztatuta, tentsioz beteriko bilerak burutu ziren. Bilera datak atzeratuko ziren erabaki bateratu bat ezin bilatu. Gobernua presionatzeko, Amnistiaren aldeko aste bat deitu zuten eta gobernuaren erantzuna, indar errepresiboek 7 euskal herritar hiltzea izan zen, prozesu politiko guztia kolokan ipini zuena. Alarma guztiak piztu ziren eta gobernuak preso gehiengoak estraditatu zituen.

Oraindik, 21 euskal preso politikok kartzeletan jarraituko zuten eta alderdi independentistak legalizatu gabe zeuden. Xibertako mahaiaren eskaria bete gabe zegoela, ezer adostu gabe mahaiakide bakoitzak bere bidea hartu zuen. Ordurako, PNVk, hautetsien

zerrenda aurkeztuak zituen eta senatura PSOErekin batera aurkeztuko zela erabakita zuen. PNVren traizio historikoa izango da hau, frankismoaren aurrean urte luzetako kolaborazionismo eta saldukeriaren bidearen hasiera.

Hauteskundetan, estatu mailan, irabazlea UCD izan zen (166 eserleku) eta bigarrena PSOE (118). Fragaren Alianza Popularra (16) eta PCE(19) galtzaile nabarmenenak izan ziren.

Euskal Herrian, hauteskondeek hiru bloke politiko sortu zituela esan daiteke. Eskuin espainola (UCD-AP), zentro-ekzerra (PSOE) eta zentro-eskuin euskalduna (PNV). Ezker Abertzalea berriz, zatituta eta ahul zegoen. Herritarrek bozkatzeko zeukaten gogoen eta kanpaina ilegal batek zeukan zailtasunaren ondorioz, KASek deitutako abstentzioak eragin gutxi izan zuen. ANV eta ESBk ere bozka kopurua txikia lortu zuten. Nahiz eta Ezker Abertzalearen bozka aglutinaziotik urrun egon, itxuran, Euskadiko Ekzerra izango zen aipatutako hiru blokeen alternatiba nagusia.

Errejimen politikoaren aldaketak eta lehen hauteskondeek estrategia guztiz berri bat pentsatzera behartzen zuen Ezker Abertzalea. Lehen aipatu bezala, estatuak gogor kolpatzen jarraitzen zuen Euskal Herria, eta ordurarte, horrek, insurrekzio estrategiaren baitan, funtzionatu zuela esan daiteke. 60ko hamarkadan, akzioa-errepresioa-akzioa dinamikak, iraultza heldu arte, goranzko joera beti izango zuela pentsatzen zen. Adibide argiak izan ziren, esateko, Martxoaren 3ko Gasteizko hilketen ostean sortu zen herri erreakzioa itzela izan zen, baita mundu mailan ere. Estatu batentzat edo gobernu batentzat beldurtzeko moduko egoera gertatzen ari zen.

Hala ere, garaiotan, bidegurutze batean sartzen ari zen Ezker Abertzalea, estrategia aldaketa orokor baten hasiera izan zelarik: Insurrekzio fasetik negoziazio fasera pasatzen da. Bide honetan, soilik helburu estrategikoen bila doan insurrekzio egoera batean ez bezala, helburu taktikoei erreparatu behar zitzaie, honek suposatzen zuen guztiarekin: alternatiba taktikoak, programa politikoak, instituzioak, negoziaketak... pentsatzen hasi beharra zegoen. Independentzia eta Sozialismoa lortzeko estrategia guztiz berri bat behar zen.

Azken finean, nola galderari erantzun nahi zitzaion, nola landu helburuetara iristeko. Hemen nazio frontearen ideia mahai gaineratzen da, nazio eraikuntzari ekinez indar metaketa bilatzen duena. Saiakera hau Txibertako mahaietan ezagutu zen. Nahiz eta beste helburu batzuekin sortu, finean, abertzaleen arteko adostasuna zen erronka nagusia.

## KAS alternatiba

“La alternativa no se negocia, sólo se negocian los ritmos y tiempos de su plasmación”

KAS alternatibari buruz ari garenean kaleratu ziren bost puntuekin lotzen dugu, baina argitu beharra dago KASek, Euskal Herriaren errealitate historiko eta politikoarekin bat zetorren Alternatiba lan-ildo bezala zela. Batetik alternatiba estrategikoa landu zen, Euskal estatu sozialista bat defendatuko zuena, hau da, Euskal Herria independente, bateratu, sozialista eta euskalduna izango zena, eta bestetik, alternatiba taktikoa, aipatu bost puntuak, hegoaldeko lau lurralde historikoetan aplikatu beharko zirenak.

Alternatiba taktikoa Euskal Herriarentzako proposamen demokratikoaren programa politikoa zen. Testuinguru politikoaz gain, inizatiba hau bultzatzeko funtsezko faktorea momentuko indar korrelazioa izan zen. Argi zegoen askapen prozesuan aurrerapau-soak emateko baldintza objektiboak zeudela, baina baita helburu estrategikorako apustua aplikatzearekin bat ez zetozen baldintza subjektiboak ere. Politika errealista eta pragmatiko baten alde egin zen, indar metaketa eta Ezker Abertzalearen proiektu politikoa finkatzea helburu zuen marko demokratikoa lortzeko fase taktikoa. Helburu estrategikoak bermatuko zituen minimoen programa. KAS alternatiba taktikoaren baitan hiru eremu landuko dira:

- Demokratikoa: Eskubide eta askatasun minimoen berreskuratzea. (alderdien legalizazioa. Adierazpen, manifestatze-ko eta biltzeko eskubidea...)
- Soziala: Herri sektorea eta bereziki langile klasearen bizi-tza eta lan baldintzen hobetzea.

- Nazionala: Euskal naziotasuna onartzea eta bere etorkizuna libre erabakitze eskubidea. Hegoaldeko lau herrialdeentzako autonomia estatutu baten berehalako aplikazioa eta Iparralderekin harremanak sendotzeko bitartekoak eskaintzea.

Elkarrizketa eta negoziazioa borroka-tresna bezala erabiltzen hasiko da gatazkaren konponbidean akordioak lortzeko. KASEk, eztabaida luzeen ondoren aurkeztu zuen alternatibaren bertuterik nagusiena borroka armatua bukatzeko metodoa eskaintzea izan zen, hots, estrategia politiko-militarra gainditzearen borondatea konfrontazioa bide politiko hutsera pasatzeko.

Bide honetan, 1976 eta 1978 urte bitartean zehazten joango zen bost puntutako Alternatiba proposamena plazaratuko da.

1. Amnistia osoa.
2. Alderdi politiko guzien legeztatzea, independentistena barne, estatutuen aldaketaren beharrik gabe.
3. Euskaditik Guardia zibila, Polizia Armatua eta Cuerpo General de Policiaren kanporatzea.
4. Herri sektoreen eta bereziki langile klasearen bizi eta lan baldintzak hobetzeko neurriak hartzea. Euren aspirazio sozial eta ekonomikoen berehalako onarpena, ordezkatzen dituzten organismoen bitartez.
5. Autonomia Estatutua, ondorengo gutxieneko puntu hauek barnebiltzen dituenak:
  1. Euskadiren subiranotasun nazionalaren onarpena. Autodeterminazio eskubidea, estatu propio baten sorrerarako eskubidea barne.
  2. Euskara Euskadiko hizkuntza ofizial eta lehen-tasu nezkoa.
  3. Egungo indar errepresiboak ordezkatzeko sortuko diren herritarrentzako segurtasun indarrak Eusko Jaurlaritzak sortuko ditu eta bere esku egongo dira soilik.
  4. Euskadin akuartelaturik dauden indar armatuak, Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean egongo dira.

5. Euskal Herriak botere nahikoak edukiko ditu bere garapen eta ongizaterako egokien ikus-ten dituen egitura ekonomiko, sozial eta politikoak sortzeko, hala nola hauen edonolako transformazio autonomoa egiteko.

Beraz, proposamena mahai gaineratuta, hego Euskal Herriarentzako marko berri bat negoziatzea izango zen helburua, presio politiko-militarraren ondorioz estatua behartuta egongo zena.

## Borroka da bide bakarra

Herri sektoreen mobilizazio gaitasuna indarra hartzen zihoala, ETAm eta ETApM-k, jaio berri zen Comandos Autonomos Anticapitalistasekin batera Espainiako segurtasun indarren kontrako ekin-tzak ugaritzen hasi ziren. Polizia eta militarrek moralki ahulduta zeuden erabat eta honen ondorioz Euskal Herriko kaleetan “inkontrolatuen” ekintzak inoiz baino ugariagoak izango ziren. Polizia eta ultraeskuindarrez osatutako talde hauek kate eta burdin baren laguntzaz biztanleria eta eragile politikoaren egoitzen kontrako erasoak burutzen zituzten. Tentsio egoera honek gain hartu zuen 1978ko udan eta gertaera larrienak Iruñean gertatuko dira. Hiriburu-ko alde zaharrean 100 bat “inkontrolatu” su-armekin eta polizia-ren babesarekin sartu ziren eraso basatiak burutuz. Herria erantzuteko gai izan zen eta erasotzaileen buruetako bat, labankadaz hil zuten. Hildakoa guardia zibilen tenientea zela jakitean, agerian geratu zen talde hauek osatzen zutenak nortzuk ziren. Hala ere, gertakari larriena San Ferminetan gertatu zen, zezen plazan amnistiaren aldeko pankarta bat atera zutela, polizia indarkeria handiz sartu eta honen ondorioz inguruko kaleetan sortutako enfrentamenduetan LKIk militantea zen German Rodriguez tiroz hil zuten. San Ferminak bertan behera geratu eta borroka eguna deitu zen Euskal Herrian. Istilu larriak gertatuko dira eta poliziak tiroz erantzuten du, zauritu asko eraginez. Errepresio parapolizialaren atzean ejertzito espainola zegoela ikusita, ETAk borroka fronte berri bat irekitzea erabaki zuen. Horrela, jeneral eta teniente koronel bat erailko ditu Madrilan.



Testuinguru honetan, 1978ko apirilaren 27an, Altsasuko Mahaia osatzen zuten KASeko LAIA eta HASI-k, eta independienteak ziren ANV eta ESB-k, Herri Batasuna sortu zuten. Koalizio hau, hauteskuntetarako plataforma izateko eta herri mugimenduari bultzada emateko jaio zen. Hilabete gutxitan egitura propio bat sortu zen, Ezker Abertzalearen historian inoiz ezagutu den plataforma politiko zabalena gorpuzten joango zelarik.

Askok indar metaketaren apustuan buru-belarri lanean jarri arren, Espainiako konstituzio berria onartzeko galdeketaren aurrean erakutsitako jarrerak abertzaleen arteko banaketa mantenduko dute. PNV kontziente zen ezin zuela euskal herritarren kontrako konstituzioa onartu, ezta ere Ezezkoaren hautua indartu, hau gehien-goia suertatuko balitz erregimenaren zilegitasuna krisian sartu eta alderdiak lortutako "erosotasuna" kolokan jarriko litzatekeelako. Beraz, abstentzioaren aukeran lerratu zirenez, Ezetza EE eta nagusiki HBren esku geratuko zen. Ezker Abertzalearen egitura berriak konstituzioaren kontrako propaganda kanpaina handi bat jarri zuen martxan, galdeketaren egunean isla izango zuena.

1978ko abenduaren 6an, instituzio eta bai hedabide pribatu, bai publikoek konstituzioaren aldeko kanpaina indartsua egin arren, Euskal Herrian aldekoek %35a lortu zuten bakarrik, %10ak ezetza bozkatu zuen eta %51ak abstenitu zen. Bozek Euskal Herriko egoeraren berezitasuna agerian utziko dute (estatu mailan baietza %59a izan zen). Ezker Abertzaleak oso positiboki baloratuko ditu emaitzak, aldaketarako aukerak zabalik zeudelako.

Galdeketa honekin, amaitutzat eman zen trantsizioa deituriko prozesua. Hiru zatitan banatutako prozesuarekin (erreforma politikoa, hauteskunde orokorrak eta konstituzioren erreferenduma) estatu españolean demokrazia ezarri zela kontsideratu zuten. Hala ere, 40 urtetako diktadura zehar egondako erantzule politiko, polizial, judicial, militar edo erlijiosoak ez epaitzeaz gain, askok bere karguetan jarraitu zuten. Estatuan emandako erreforma, frankismoarekin eta eskuindar ideologiarekin identifikatutako sektore zabal baten onespenez burutu zen eta alderdi ezkertiar gehiengoen zuzendaritzen saldukeriari esker gauzatu. Euskal Herrian aldiz, egoera oso bestelakoa zen. "Konstituzioa hau edo diktadurara bueltatuko

gara" xantaiak ez zuen funtzionatu eta Euskal Herriari dagozkion eskubideak onartzen ez zituen eta frankismoaren amnesia bat proposatzen zuen konstituzioa, jarraipen bezala geratu zen. Demokrazia faltsuaren aurrean, borrokak bere horretan iraungo zuen.

## Gerra zikinak etenik ez

Esan bezala, errepresio bortitza eta frustrazio politikoak lehertzeaz zegoen egoera bat eragin zuten, eta honen ondorio izango zen, besteak beste, hamarkada bukaeran hiru erakunde armatuk burutu zuten ofentsiba militarra. Estatuak aparatu errepresibo militar eta politikoaren bidez ez zituenez erakunde armatuak desegitea lortu, gerra zikinaren erantzuleek bere horretan jarraitu zuten. 1978ko abenduaren 21ean, Angelun, Jose Miguel Beñaran "Argala" hil zuten bonba-autoz. Bere aurka joatea ez zen kasualitatea izan, ETAko zuzendaritzan burkide zituen Peixoto eta Txomin Iturbe atentuetan zaurituak izan baitziren. Argala, ETAko aparatu politikoaren zuzendaria zen eta gobernuarekin saiatutako hizketa prozesuetan erakundearen ordezkaria.

Karisma handiko militantea izan zen Argala, ezker abertzale osoaren, baina baita Euskal Herriko eta estatuko herrietako hainbat sektoreren erreferentea izan zelarik. Ikuspegi marxista eta dialektiko zorrotzetik, ETAREN barruan hainbat eztabaida gogor bizi izan zituen, besteak beste ETA politiko-militarra eta ETA militarren arteko eztabaidan, berak, bigarrenaren aldeko aukera proposatzen zuen. ETA abangoardia iraultzaile armatua izanik, herri mugimenduekin lotura organikorik eduki behar ez zuela defendatuz. Ekarpen teoriko ugari utzi zituen antolakuntza eremuan, baina baita bestela ere, sintesi teoriko ikaragarriko leloak utzi zituen, belau-naldiz belaualdi Ezker Abertzalearen ikuspegi teorikoak bilduko direlarik: "soilik ondo antolaturiko herriak lor ditzake, borrokatzen dituen helburuak", "militarrak intelektualizatu, intelektualak militarizatu" edo "espainiar langileekin batzen gaituena ez da, nazio berekoak izatea, baizik eta klase berekoak izatea"...

Ekintza esanguratsuak burutu izan zituen bere militantzian arri-gorriagarrak, besteak beste Burgosko prozesuko auzipetuak espetxetik ateratzeko saiakera, langileen aldarrien aldeko Zabala

enpresariaren bahiketa, eta ezagunena, Carrero Blanco almirante frankistaren hegaldi ikusgarria. Bere ospearen lekuko izan zen, Arrigorriagan bere gorpuaren ondotik pasatzerakoan pikoloen hiru mandok agur militarra egin izana, edo San Mamesen historian egin den minutuko isilune bakarra egin izana.

Baina gerra zikinak ez zituen herri mugimenduaren borrokak, ez eta erantzun armatuak etengo. Izan ere, erakunde armatuaren ekintzak ugaritu egin ziren, gobernuak Euskal Herriko polizia kopurua 11000ra igotzen zituen bitartean. Ekintzen eta arbuio sozial handien ondorioz, beraien herrietara lekualdaketa eskatzen hasi ziren, askok arazo psikologikoak zituztela argudiatuta: "Sindrome del Norte" deituriko gaixotasun berriaz hitz egiten hasi zen.

## Lehen aldiz hauteskundeetan

Demokrazia izendaturikoaren hurrengo pausua, talde konstituziogilea ordezkatzeko zuen Espainiar parlamenturako eta indarrean jarraitzen zuten udalbatzei izaera demokratikoagoa emango zien hauteskundeak deitzea izan zen. Herri Batasunarentzako berebiziko garrantzia izango zuen, lehen aldiz hauteskundeetatik indarra eta babesa erakutsi behar baitzuen. Hala ere, gorteen hauteskudetara aurkeztearen eztabaida piztu zenean, parte hartzearen aldeko jarrerak nagusitu ziren, beti ere sistema politikoari zilegitasuna eman gabe. Azken erreferendum eta hauteskundetan ikusi zen bezala herritarrek bozkatzeko gogoia zuten, beraz abstentzioaren aldeko apustua alboratu zen. Azkenean, Sinn Fein irlandar alderdiaren jarrera hartuta, parte hartzea erabaki zen gorteetan irabaz zitezkeen karguak okupatu gabe.

Bozen emaitzek arrazoa emango zioten apustuari eta harrigarriki HBk 172.000 bozka lortu zituen. Ezker Abertzalearen bat-bateko agerpena panorama politikoan udaletxetarako hauteskundetan indartuko da, 221.000 bozekin hain zuzen, urte askotan zehar lortutako bozka kopuru handiena izango dena. Beste alderdi gehienak ez bezala, makro-politikari arreta gehiago jarri ziotela, Herri Batasunak kanpaina potente batekin lagundutako hautetsien zerrenda ugari aurkeztuz udalbatzak osatzeko deialdian indar handia inbertitu zuen. Eta noski, HBk ordezkatzeko zuen proiektu politikoa si-

nesgarritasuna lortzen eta babes soziala handitzen zihoan, euskal langile herriak bazuen bere ordezkariak.

Egoera politikoak ez zuen atsedenerako aukerarik ematen. Hauteskundetan lortutako karguak hartu berri zeudela, autonomia estatutuen lanketa hasi zen. Bitartean, Soriako espetxean atxilotuta dauden presoek eskubideen aldeko eta Gobernu Frantsesak errefuxiatu politikoen estatusa kentzearen kontrako mobilizazioak ugariak ziren. Errefuxiatuen kontrako gerra zikinak jarraitzen zuen, besteak beste, mertzenario eta polizia osatutako Batallon Vasco Español bezalako taldeen esku. Errepresio polizia kontrol polizial eta kale istiluetan ere ikaragarria zen, kasu askotan herritarrak tiroz erailtzen zituztela.

Lemoizen kontrako borroka ere indartzen zihoan. Nuklearren kontrako komiteak sortu eta zentralaren kontrako deialdietan milaka herritarrek parte hartu zuten. Errepresioak ere, mugimendu ekologista kolpatzen zuen eta nuklearren kontrako deialdi batean, Tuteran hain zuzen ere, Guardia Zibilak Gladys del Estal donostiar gaztea hilko zuen.

## Gernikako Estatutua

Herri Batasuna izango da Gernikako Estatutuaren erreferendumean (hasieran Moncloako estatutua zeritzona) ezetzaren alde egingo duen bakarra. EMK eta LKI alderdiak ezik, abstentziora lerratuko zirenak, beste guztiak BAI bozkatuko dute. PNVko zuzendaritzako kide zen Leizaolaren hitzak alderdi honen jarrera argi islatzen du. "Nik uste dut Telesforo Monzonek ez dakiela zer dion, ez du koordinatzen, ez dut uste burutik ongi dabilenik. Orain Euskal Herri bakar batean pentsatzearena zentzugabekeria da; Hitlerren asmo berak izatea da. Euskadiren independentzian sinestea geure buruaz beste egitea da" (Joseba Leizaola, PNV, 79-08-3)

Alderdi erreformazaleak estatutuaren alde gogor lan egingo dute, esate baterako, EEK. ETApn-k galdeketa egunera arte ekintza armatuak eten zituen eta EEK Ezker Abertzaleak azken urteetan burututako borrokaren helburuak estatutuarekin lortuko zirela aldarrikatu zuen (Estatutuarekin presoak kalera, Estatutuarekin Nafa-

rroa Euskadin). Galdeketan, baietzak %54 lortu zuen, baina herritarren %40a baino gehiagok ez zuen bozkatu. Estatu bateratu baten ikuspuntutik Estatutuak deszentralizazio administrazioa altua eta euskaldunen aitorten minimoa bat eskaintzen zuen. Baina nabarmentki ukatutako konstituzioaren barruan txertatuta, ez zen erabakitzeko eskubiderik onartzen eta Nafarroa eta Trebiñu gainerako hegoaldeko euskal lurraldetatik berezitatea geratuko ziren.

Estatutuaren galdeketak hurrengo urteetan Euskal Herriko panorama politikoan elkarren kontra egongo ziren bi alderdi bloke berezitu zituen. Estatutuaren aldeko alderdiak batetik, hau burututa demokratizazio prozesua amaitutzat ematen zutenak, bai erreformaren prozesu guztia zilegi izan zelako eta bai Estatutuak Konstituzioaren gabezi eta hutsuneak betez euskaldunoi asebetetzen gintuelako. Kontrako aldean berriz, HBn bildutako Ezker Abertzalea eta abertzaletasunera hurbildu ziren LKI eta EMK bezalako alderdi txikiak zeuden. Hauek, erabakitzeko eskubidean oinarritutako marke baten alde egingo zuten.

Behin Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomi-estatutua negoziatu eta onartuta, Nafarroako negoziatzeari ekingo dio estatutuak. Prozesu hori 1982an amaituko da. Ordura arte Euskal lurraldeen batasunaren aldekoa zen PSOE (Nafarroan PSE izateari utzi eta PSN bihurtuko zena ) eta eskuin alderdien arteko negoziaketan ondorioz, erreferendumik gabeko estatutu edo foru amejoramendua ezarriko da.

## Jarrai, Kas-Blokearen barne

Zurrumbilo politiko honen erdi-erdian, 1978ko udan, HASI eta LAIA alderdietako gazte militanteak biltzen hasiko dira KASekin bat egiten zuten gazteak bilduko zituen antolakunde berri bat sortu asmoz. KAS Gazteria gisa ezagutzen hasiko den antolakundea eratzen hasi ziren eta sortze-prozesuak HASI eta LAIAko gazteez gain, antolatu gabeko gazte andana barnebilduko ditu. Gazte antolakunde berria hazi eta sendotzearekin batera, eztabaida konplexu ugariri ekingo zaio. Dena dago eztabaidatzeko, dena dago erabakitzeko. Sortu beharreko antolakundearen oinarri ideologikoak, izaera, antolakuntza eta estatutuen zirriborroa "Debate KAS gazte-

ria. Primera entrega” izenburupean argitaratutako txostenean proposatuko da. Autonomiaren eztabaida izan zen latzena, nola izan independente eta aldi berean parte ENAMeko gainontzeko heldu antolakundeekin. Gabeziak gabezi, Jarraik hasieratik izan zuen independentziarako hautua argi, eta ez zen inoren gazte sekzio izan Azkenean, 1979ko maiatzean, urtebete iraun zuen prozesu eratzailan, euskal gazte mugimendua eraikitzearen aldeko apustua bere egingo zuen, gazteen errealitatea hausnartu eta arazoei alternatibak planteatuko zituen antolakunde independentista eta sozialista berri bat sortuko da: Jarrai (KAS).

Lehen kanpaina jarriko zuen bada martxan: “mundua aldatu behar dugu, munduak gu aldatu baino lehen” eta honekin eman zen lehen hedapena Euskal Herri osoan zehar. 1980eko abenduan I. kongresua ospatu zen. Bertan koadro eta masa antolakunde gisa definitu zuen bere burua: ahalik eta gazte gehien ikuspegi abangoardistarekin biltzeko asmoarekin. Gazte problematika lantzeko euskal gazteriak pairatzen zituen bi afera garrantzitsuek liskar ugari sortuko zituzten: drogak eta soldaduska.

Antolakunde guztiz berria izatean, zaila izan zen horren latza zen eztabaida era egokian planteatzea, eta bi urte iraungo du, II. kongresura arte lehen posizioak finkatzeko. Lehen urteetan beraz, errepresioari erantzutera eta HBren aldeko kanpainaren bat egitera mugatu zen, gazte problematika lantzeko esperoan.

Erreforma politikoa gauzatuta dagoela ikusirik, KASen bildutako antolakunde eta mugimenduek eztabaida berri bati ekingo diote. Autodeterminazio eskubidea ukaturik eta hego Euskal Herriaren lurralde zatiketa gauzatuko duten autonomiak sortzera doazela, frankismotik demokrazia burgeseko estatu batera igarotzen zuen zikloa hasia zen. Egoera berrira egokitu asmoz, aurreko urteetan aipatutako Negoziazio estrategia diseinatzen hasiko da Ezker Aibertzailea. Estrategia hori aurrera eramateko, KASEk koordinakunde izaera galdu eta estrategia horren bloke gidatzailea bihurtu behar duela defendatuko dute bertan bildurik dauden indar gehienek. Hau da, kontzientzia nazional eta sozial maila handieneko borrokalariak bilduz (abangoardia kontzeptua), euskal antolakunde politiko iraultzaileak, organikoki autonomoak izanik baina proze-

su iraultzailearekiko ikuspegi bateratua izanik (bloke kontzeptua), nazio-askapenerako borrokaren ildo politikoa markatu behar dute (gidaritzaren kontzeptua). Ponentzia honek irabazi zuen KASen beregituraketa gauzatzeko Lakuntzan egin zen batzarrean.

LAIAk alderdi komunista klasikoen egituraketa eredia defendatu zuen, hots, abangoardia eta gidaritza papera alderdia politikoaren gain geratzen dena, baina bozketa galdu ostean, Jarrai eta KASetik aterako da. Bestalde, Jarrai, Lakuntzako batzarraren ondorioz, KASeko blokeko kide oso izatera igaroko da.

## Lemoiz apurtu!

80.hamarkada hasieran, Estatuko boterea zeukan alderdiaren eta bere liderra zen Adolfo Suarez frankistaren egoera oso ahula zen, dimisioa aurkeztuko zuelarik. Egoera ekonomikoaren larritasunaz gain, UCD alderdiaren talde kontserbatzaileena deseroso zegoen egoera politikoarekin, prozesu autonomikoak ez baitzuen independentismoa gelditu, areagotu baizik Ezker Abertzalearen borrokaren ondorioz. Gainera, estatu kolpea emateko, 1978an porrot egin zuen "Operacion Galaxia" deitutako konplotarekin bezala, hamarkada hasieran interbentzio militar baten zurrumurrua zabaltzen hasi zen.

Bitartean, energia nuklearraren kontrako borroka ziharduen. Herri-borroka indartsuaren gainera Lemoiz abian jartzera zihoazela ikusirik, PNVk, ordura arte energia nuklearraren aldeko jarrera isila apurtzea erabaki eta zentral nuklearraren aldeko jarrera aktiboa hartzen hasi zen. Herri-presioa nolabait neutralizatzeko asmoz, inoiz burutuko ez zen erreferendum bat egiteko proposamena onartuko du Gasteizko parlamentu berriak. Madriletik baina, berehala erantzungo dute energia-aferrak estatuaren konpetentzia direla esanez, eta beraz, Iberduero enpresak Lemoizko zentrala 1981ean eraikiko duela jakinarazi zuen. Berria jakitean, nuklearren kontrako komiteak Lemoiz apurtu! kanpaina martxan jarri zuen (Lemoiz gelditu! zen hasieran). ETA militarrek ere, bere jarduna gogortzeko erabakia hartu, eta eraikitze planaren ingeniari eta zentralaren zuzendaria izan behar zen Jose Maria Ryan bahitu zuen, bere bizitzaren truk, aste batean zentrala eraisteko eskatuz. Bahiketaren kontrako agerpenak eta mobilizazioak ugariak izango dira,



energia nuklearraren defendatzaile sutsua den PNV mobilizazioen buru izanik. Hala ere, exijitutako epea beteta, Ryanen hilotza agertu eta hilketaren errebindikazioan, ETAk, proiektuaren zuzendari koadro eta teknikoak mehatxatuko ditu. Alderdi erreformazaleek, erantzun zabal izango duen ETAREN kontrako greba orokor bat antolatuko dute, baina erakunde armatuaren ohartarazpenek eragina izango dute eta zentralaren proiektua gelditzen da.

Espainiako industria eta energia ministroak Gasteizko gobernuko lehendakaria den Karlos Garaikoetxearekin obrak berriro hasteko akordioa sinatu zuten (etenaldi bat izan zuen, sabotai eta herri mobilizazioengatik). Enpresaren zuzendaritzak ordea, langileei akordioa lau aldean artean lortu dela jakinaraziko die, ETA, Gasteiz, Madril eta Iberdueroren artean alegia, hori baita zuzendari kualifikatuenetako askok lanera itzultzeko mahai ganean jarritako baldintza. Herriari bizkarra emanez, Lemoizen Gestiorako Elkartearen sorrera ekitaldia eta sinadura Gasteizen ospatzen ari den egun berean, ETAk, Lemoizen etorkizunerako erabakigarria izango den ekintza armatua burutuko du: Angel Pascual, Lemoizko etorkizuneko zuzendari exekutiboa, hilko du. Lan-kontratu guztiak bertan behera geratzen dira segituan, ekintza armatuak eta herri-mugimenduaren mobilizazioak etenik ez duten bitartean. Hurrengo urteetan, PSOEk, zentral nuklearra eraikitzeko lanak luzatzen joango da, eta azkenik, 1994an, Lemoiz behin betiko ixteko erabakia hartuko du. Kostata izan arren, herri-borroka eta borroka armatuak, Euskal Herria zentral nuklearrik gabeko herria izatea lortu dute.

Egun gutxira Euskal Herritarrek berri txar bat jasoko dute. Egun luzeetan jasandako torturen ondorioz, Joseba Arregi ETako kidea hil zuten Madrilan. "Oso latza izan da" hitzekin agurtu zen Arregiren gorpu txikituaren argazkiek inpaktu handia eragin zuten jendartean, eta agintariak neurriak hartzera derrigortuta egon ziren, nahiz eta soilik azkenean, poliziaren goi-kargudun batzuk dimisioa aurkeztu.

Lehen aipatutako sektore atzerakoienaren haserrea 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpe saiakerarekin ikusiko da. Antonio Tejero teniente koronelaren agindupean, Guardia Zibila kongresura sartu zen Leopoldo Calvo Sotelo presidente izendatu behar zutenean.

Euskal Herriko alderdi politikoen militante eta zuzendaritza ugari, badaezpada klandestinitatera pasako dira, 36an hasitako sorigin-ehiza bergogoratu.

Saiakera honen interpretazio desberdinak daude eta zirkunstantziak argitu gabe daude oraindik. Argi dagoen bakarra ondorioak dira. Erregearen figura sendotu eta egonkortuko da, erabaki politikoen eskumen zabalagoa lortuko du eta goraipatze kanpaina batekin demokraziaren defendatzaile handiena bezala salduko dute. Calvo Soteloren gobernuak berriz, kolpe militarren abisua onetsi eta militarrei gehien kezkatzen zien afera autonomikoan eta ETA-ren kontrako borroka gaietan politika zorrotzagoa zuzentzen hasiko da. Ondorioak ikusita, espainiar faxismo eta burgesiaren interes atzerakoienak atzean egoteko arrazoi ugari daudela esan daiteke.

## Euskadiko Ezkerraren saldukeria

1981ean, ETApk su-etena iragarri zuen, bahituta zituen hiru kontsul askatzearekin batera. Militantziarentzat negoziaketa posible baterako su-eten taktikoa izan zena, inolako kontrapartidarik izan nahi ez zuen borrokaren alboratzea bihurtu zen. Baina Bandres eta Onaindia buru zituen negoziaketak (edo negozioketak) eztabaidagai izan zuen afera bakarra, norbanako bezala "medidas de gracia" delakoa eskuratzea izan zen. EIA-EEK ez zuen inolako aktibazio sozialik bilatu nahi izan, eta horrek ahalbideratu zuen, eztabaida politikorik ez ematea, soilik, esan bezala, norbanako batzuei bideratutako onura penitentziario edo bestelakoak.

EEko zuzendaritzak ETApmren gainean agintzen hasi zen, bertako kide ugariren haserrea nabaria zelarik. Honela, poli-milien komando batek, Julio Iglesias abeslearen aita bahitu zuen, horrek su-etena apurtzen ez zuelakoan. Polizia Nazionalak, bahitua topatu zuen Zaragozako etxe batean, eta egun gutxitara inoiz topaturiko arsenalik handienetakoa topatu zuten Erandion: ehunka pistola, Fusil, granada jaurtitzaila, ametragailuak, munizioa... Poli-milien materialaren %90a izango zena. Txibatazoak ziruditen bi ekintzok nahikoa izan ziren apurketarako.

ETApk VIII. asanbladan borroka armatuaren berrartzea adostu zen,

zatiketa batekin, ETApn VIIk su-etena babestuko du eta. Horrela zortziki eta zazpiki bezala ezagutuko dira.

Euskadiko Ezkerrak, Ezker Abertzalearen ondarea jaso nahian, iraultzailea baina demokratikoa zen alderdiaren itxura eman nahi izan zuen. Urte gutxitan nora eza politikoa argia izango du, espainolismoan murgildurik, PSErekin batuko delarik. ETApn VIIko 22 preso askatu zituen espainiar gobernuak, eta 70 iheslariaren etorrera baimendu, borrokari uko egitearen ordaina izan zen.

Baina saldukeriak saldukeria, Herri Batasuna, LAIAk eta ESBk alde egin ostean, oinarri ideologiko sendo batzuekin egonkortuko da, ohiko alderdi eredutik aldentuta egongo zen ekintza politikorako tresna izango zena. Horrela, formula eta ezaugarri desberdinak erabiliko ditu, hala nola, HASI eta ANV alderdien koalizio egitura mantenduko da, instituzioekiko absentismoa, borroka armatua ez ukatzea, antolakuntza asanblearioa, afiliazioen ordeztuak eta jarraitzaileak izatea, lidergo pertsonal eza... Sortu zen egunetik errepresioaren begi-puntu egon zen, hamarnaka militante eta kargu publikoen atxilotzearekin, Euskadi no se rinde kanpainarekin erantzungo zena.

Herri mugimendua osatzen zuten taldeen artean dinamikoenak Ezker Abertzalearen tesiekin bat egiten zuten, eta beraz, batasun natural bat sortuko da. Erlazio hurbila izango dute Gestoras pro-Amnistia, Nuklearren kontrako komiteak edota AEKk. Ezker Abertzalearekiko antzekotasun ideologiko eta taktikoagatik, Euskal Herriko Nazio Askapen Mugimendua entitate bezala kontsideratzen hasi ziren KASen.

## PSOE gobernuan

1982an PSOEek erraz irabaziko ditu Estatu mailako hauteskondeak (202 eserleku, ia %50) eta Felipe Gonzalez presidente izendatuko dute. Hego Euskal Herrian ere lehen indarra izango da PSOE, PNVtik ez oso urrun. Bere marka historikoa berdintzeko hurbil, Herri Batasuna laugarren indarra izango zen. Errepresioak, jardun politikoa gauzatzeko kondizio demokratiko ezak, eta borroka armatua ez gaitzestearen ondorioz beste alderdien kritikek ez zuten ezker

abertzaleren oinarri soziala urruntzea lortu.

Aldaketa politiko bat lortzeko estatuan sortutako ilusioa ez zen Euskal Herrian ezagutu. PSOEn aurreko politika ezagututa, Ezker Abertzaleak ez zuen konfiantza handirik Felipe Gonzalezen alderdian eta konfrontazioa maila berdinean jarraitu zuen. "ETArekin amaitzeko" dekalogo bat aurkeztu zuen gobernuko barne ministroa zen Jose Barrionuevok, ZEN planaren (Zona Especial Norte) aurrekari bat kontsidera dezakeguna. Alemaniak RAFen aurka eta Italiak Brigade Rosseren aurka egindako bidea ikasgai eta CIAren kontrainsurgentzirako eskuliburuaren izpiritua eredu izango zuen. Norteko gerrarako egindako plan honek gazteak ipiniko ditu begipuntuan bereziki, are gehiago, gazte bat janzkeraren arabera susmagarrien zerrendara pasa zitekeen. "Mesfida izan bereziki jende gazteengan, eta are gehiago anorak iluna, praka bakeroak, kirol-oinetakoak eta kirol-poltsa soinean badaramate".

Kalera begira Jarraik egingo zuen lehen kanpaina indartsua ZEN planaren aurkakoa izango zen. Ekimen ugari antolatu ziren gazteriaren kriminalizazioa salatzen, eta Barrionuevo, estas como un ZENcerro eta antzeko leloak paretak apainduko zituzten. Susmagarrien dinamikak izan zuen oihartzun gehien hartu zutenak. Hemen, Jarraik deiturik, susmagarritz mozorrotu, hau da, anoraka beltza, bakeroak, zapatilak eta motxila soinean, manifestaldiak, poteoak, etzanaldiak eta era guztietako ekimenak egin ziren.

## Beruna negoziazioaren truk

1983ean Euskal Herrian zeuden talde armatuen kopuruak gatazka-ren gordintasuna erakutsiko du. Sei talde zeuden: ETA, ETAp VIII, ETAp VIII pro-KAS, CCAA, Iparretarrak eta Iraultza. Urte horretan hain zuzen, ETAp-ren barruan borroka armatuaren alde egingo zuten artean, ETAp VIIIkoen artean, pro-KAS sektore delakoak urte beteko autonomia maila erakutsi ostean ETAm-rekin bat egin zuten.

Ezker Abertzaleak elkarrizketaren bidez konponbidea lortzearen intentzioa erakusten jarraitzen zuen. Garaikoetxea lehendakariaren proposamena onartuz, gobernu berriaren eta HBren arteko

elkarrizketak egon ziren, baina Ezker Abertzaleak negoziaketa gobernua eta ETaren artekoa izan behar zela berretsi zuen. Bide honetan saiakerak egon ziren, baina erakunde armatuaren ekintza bat aitzakia hartuta, PSOEk negoziatzeko intentzioa bertan behera uzten zuela iragarri zuen. ETaren ustez, negoziazioa, aldaezinak ziren KAS alternatibaren edukien aplikazio teknikoaren erabakigunea izan behar zuen. Gobernua eta botere faktikoen kontrako presio altu eta etengabe bat klabea zen ETaren ustez, azkenean bere aldarrikapenak onartzea behartzeraino.

Beraz, bai gobernuak eta bai ETak ofentsiba gogortu zuten bestea errenditu edo negoziatzera behartzeko. Erakunde armatuak ekin-tzekin gogor kolpatzen jarraitu zuen eta PSOEk ZEN planaren bidez, Euskal Herritarrekiko errepresioa areagotu zuen. Horrela, euskal-dun militanteen kontrako faktore berri bat sortuko da, gerra zikina berpiztuko duena: GAL.

Hasiera batetik, nahiz eta herritarrek hilketa, bahiketa eta erasoen atzean ezkututzen ziren kupula politiko-polizialak ongi ez ezagutu, PSOE salatu zuten erantzule nagusi bezala, eta Euskal Herrian PSOE-GAL berdina da oihua azkar zabaldu zen. GALen ekintzek helburu desberdinak zituen. ETA ahuldu eta erakundearen kontrako mendeku gisa erabiltzeaz gain, frantziar gobernua Ezker Abertzalearen kontrako borrokan eta errepresioan inplikatzeko ere bilatzen zuten. GALen ekintzen lehen zikloa 1983 eta 1984 bitarte eman zen: Oñaederra eta Txapelaren hilketa eta Lasa eta Zabala bahitu eta hiltzea dira ofentsiba gogor honen hasiera. Ekintza hauen ondorioz, frantziar gobernuak espainiar gobernuaren mezua ulertu eta 40 euskal iheslariren kontrako operazio bat burutu zuten. Asko beste herrialdetara deportatu eta konfinatuak izango dira. Mitterrand presidentea Madrileko agintariekin batera Frantziak ETaren kontrako borrokan estradizioak burutuko dituela adostu ostean, GALek nolabaiteko su-etena egiten du.

Ipar Euskal Herrian Iparretarrak erakunde armatu borrokan jarraitzen zuten baina 1985 eta 1986 urteetan erreferente politiko berri baten beharra ikusiko da, GALek efektuak sortutako desorekak eraginda. Horrela IKren laguntza taldeen inguruan ibilitako jendeak eta independente batzuk EMA (Ezker Mugimendu Abertzalea )

sortuko dute. Beste sektore batek aldiz, Enbata talde ingurukoek, HBren laguntzarekin EB (Euskal Batasuna) sortuko dute.

Felipe Gonzalez Cambio lelotzat zuela heldu zen gobernura. Aldaketarako bidea zela uste zuten bozka eman zuten askok, bestek beste, 800.000 lanpostu berri sortzea eta NATOtik (Nazioarteko Ipar Atlantikoko Ituna) irteera bultzatu behar zutela agindu baitzuten. PSOEek NATOtik ateratzeko inongo asmorik ez izan arren, herritarren presioen ondorioz behartutako erreferendum bat egitera pasako da.

Bozka eguna hurbil zegoela, gobernuak baieztokaren aldeko propaganda aparatua martxan jarri eta PNVk, nahiz eta afiliatuei bozka askatasuna eman, garaiko buruzagi garrantzitsuenak ziren Xabier Arzallus eta Jose Antonio Ardantzak baietza bozkatuko dutela jakinaraziko dute publikoki.

Ezetzaren aldeko herri mugimendu indartsu bat antolatzen hasiko da ere. AEBko Reagan presidentea 1985ean Euskal Herrira egindako bisitan mundu mailan ematen ari zen armagintza norgehiagoka salaketarekin jarraituz, herrialde kapitalistek bultzatutako aliantza militar honen kontra ere herria mobilizatuko da. Euskal Herriaren burujabetza nazionalaren alde, NATOren aurka manifestuari atxiki zitzaion Ezker Abertzalea eta ezetzaren bozka egitera dei egin zuen.

Baietzaren trikimailu eta ezezkoaren aldarri, azkenean iritsiko da bozka eguna eta emaitzek ez dute zalantzarik utziko. Hego Euskal Herriak ezezko borobila eman zion NATOon jarraitzeari.

## **Soldaduska honi ez!**

80.hamarkadan, NATOren kontra bezala, oro har militarismoaren kontrako mugimenduak ugaltzen hasi ziren. Euskal Herrian jorratu diren soldaduskaren kontrako borroka antolatuak 60.hamarkadara eramaten gaitu, Aljeriaren independentziaren aurkako gerrara (1954-1962) hain zuzen. Orduan, Frantziar Estatuan, derrigorrezko soldaduska ez egiteko eskubidea, hots, "intsumisiorako eskubidea" aldarrikatzen hasi ziren gazte asko. Zigortutako "objecteurs

de conscience” gazteak, Frantziar gobernuak behartzen zien enpresetan lan egitea ukatu eta borondatezko zerbitzu soziala egitea erabaki zuten. Horrela, gazte batzuk Zuberoara etorri eta atxilotze aginduan egon arren, bertako baserritarrek batera tailer alternatiboetan lan egingo zuten. Hippy pentsamoldea zein 68ko frantziar maiatzeko ideiak zituzten gazte hauek, Euskal Herri osora militarismoaren kontrako aldarriak zabaldu zituzten.

70.hamarkada bukaeran eta 80.hamarkadan, derrigorrezko soldaduskarekin kezkatuak zegoen gazteak hiru hautu izango zituen bereziki. Lehenengoa, lehen aipatutako kontzientzia eragozpenaren mugimendua, antimilitarismoa eta bortxakeria eza, EMK-MOK bezalako mugimenduek defendatuko zutena. Bestea, soldaduska Euskadin lelopean ezagun egingo den alternatiba. Maoismo eta Trotskismoaren korrontean mugitzen ziren taldeek defendatuko zuten eta sorterrian soldaduska egiteko eskubidea aldarrikatzen zuten, baita soldaduen lan-baldintza eta bizitza-mailaren hobetzea ere. Estrategikoki, ejertzito herritar espainiarraren alde agertzen ziren, nahiz eta herrien autodeterminazioaren alde agertu. Hirugarren hautua aldiz, Jarrai antolakundeak Soldaduska honi ez! lemapean laburbilduko du, Hego Euskal Herriko lau herrialde historikoak soilik hartzen dituen Kapitania Orokorraren eraikuntza eta euskaldunen eta euskaldunentzako soldadutza sortzea aldarrikatzen.

“JARRAIk euskal armada herritarren eraikuntza, estrategia mailan, defendatzen du, euskal herri langilearen zerbitzurako soilik eta beste herriekiko elkartasunari irekia noski. Euskal armada herritarra errefusatzea, porrota eta derrota onartzea, eta herriaren zapalketa egoerari irtenbide errealik eskaini ezin dion ustezko politika humanistari jokoak egitea besterik ez da.(Jarrairen jarrera soldaduskaren aurrean, Aurre militantzia liburua, 1986ko iraila.)”

Soldaduska espainiarrera joateko deia iristean nola jokatu izango zen arazoa eta eztabaiden ostean, soldaduskara joan egin beharra izan zen erabakia. Erabaki gordin hori hartzeaz gain, koarteletan egin beharreko lan politikoa zehaztu zen, bertako gazteak kontzientziatu eta antolatzea, hain zuzen. Jarraiko kideen lana, bestek beste, “Euskal Ejertzito Herritarra”, KAS alternatiba eta independentzia eta sozialismoaren zergatiak soldaduska egiten ari ziren



euskal gazteei azaltzea izango zen. Kuarteletan bertan, eztabaidatzeko “ikasketa taldeak” sortu eta JARRAiko taldeak sortzea erabaki zen, azken hau leku gutxitan gauzatu arren.

## Arjelera bidea

1986an HB eta PNVk bilera batzuk burutu zituzten, ETA eta gobernuaren arteko elkarrizketa saiakera batzuk ematen ziren bitartean. Hala ere, Txomin Iturberen atxilotzeak, ETAko ordezkaria hainbat negoziaketetan, egoera zaildu zuen. Jarrera aldaketa nabarmena zuen garai honetan Frantziar gobernuak. Iturberen atxilotzea; erbesteratuak kanporatzea, batzuk espainieratuak beste batzuk beste herrialde batean konfinatuak; euskal militanteei hilabetetatik urtetako kondenak ezartzera pasatzea... Egoera salatzeko, Gestoras pro-Amnistiak frantziar produktuen boikota kanpaina abiatu zuen, hurrengo urteetan oihartzun handia izango zuena.

Ezker Abertzaleak negoziatzeko zeukan intentzioa gobernuen bide errepresiboarekin zailduko zen, bake eta konponbidearen iparra galdu gabe baina ofentsiba estrategia eta konfrontazio egoerari irmoki helduz. Horrela, estatuen erasoei erantzuteko ekintza gogorak burutu ziren. Joseba Asensio gazte militantea Herrera de la Mancha espetxean hil zenean, bere hiletan poliziek hilkutxa eramanen zutenen kontra oldartu eta hilotza bahitu zuten. Komunikabideen kamerek inpaktu emozional gogor hori grabatzean irudiak azkar zabaldu eta haserrea piztu zen Euskal Herrian. Txomin Iturbe Gabonera bidali ostean Arjeliara deportatu zutenean, tentsioa areagotu zen. Orduan, estatuko aparatuetan, elkarrizketa prozesutik ahalik eta gehien urruntzea nahi zutenen eta balizko prozesu bat zabaltzeko aukera probestearen aldekoen lehia zegoen. Azkenean, polizialki ETA itotzearen usteak porrot egin zuen eta kontaktuak irekitzearen aldeko apustua indarra hartzen hasi zen.

Bitartean, erakunde armatuak, errepresioak eragindako (azken urtetan milaka atxiloketa) zailtasun operatiboak bi bidetatik gaudituz nahi zituen: bonba-autoz ahalik eta baja gehien eragitea batetik, eta estatuko hiriburuan ekintzak ugaritzea bestetik. Besteak beste, segurtasun indarren kontrako ekintzarik handiena burutu zuten Madrilan, zeinean bonba-autoz 13 Guardia Zibil hilko dituzte. Hiri-

buruan bertan ere, granada-jaurtigailu ugarirekin Defentsa Ministerioaren kontrako ekintzek sona handia izango dute.

Gobernuak uste zuen, konfrontazio balantza erakundearen alde zegoela eta erakundeak nagusitasun egoera batekin elkarrizketa-mahaian eseri zitekeela, baina gertakari batzuek gobernuari konfiantza eragingo zioten, gobernuak markatutako terminoetan ETA negoziatza behartuko zuela sinestera pasako zelarik. Ejerzitoaren kontrako lehergailu indartsuen dinamikan, Gipuzkoako gobernadore militarren kontrako erasoan, gobernadorea bera akatzeaz gain leherketak herritar batzuk hiltzen ditu. Honetaz gain, eztabaida soziala handituko duen beste ekintza bat egongo da: Gobernuaren birgizarteratze plana onartu zuen Maria Dolores Gonzalez “Yoyes” ETako buruzagi ohiaren hilketak. Propagandistikoki bere figuraren erabilerak haserrea eragin zuen herritar askorengan eta “txibata” eta traidorea zela salatu zen kaleetan. Bestalde, ETAk, ez du bere aldarrikapenean poliziarekiko kolaborazio zuzenik argudiatuko, baina bai Yoyesek Gobernu espagnolaren neurri errepresiboei egindako babes bidegabea azalduko ditu. Alderdi erreformazaleek aukera aparta topatuko dute Ezker Abertzalean gerta daitekeen zatiketaren, eta horrela, kanpaina mediatiko potente bat martxan jarriko dute.

Estatuaren kolpe gogor bat Hendaiako Sokoaren enpresan gordeta zegoen arma-gordetegia aurkitzea izan zen. ETAk merkatu beltzean erositako granada-jaurtigailu antiaereoetan estatubatuarrek jarritako bilaketa dispositibo bati esker topatu zuten aipatu gordetegia. Hori gutxi ez balitz, azken urtean Madrileko ekintzak burutu zituen komandoa atxilotu zuten. Gobernuak kartak alde zituela, birgizarteratze politikak izandako arrakasta eskasa ikustean, Herreran zeuden 16 preso estatuko beste espetxetara bidaliz sakabanatuko dituzte. Dispertsioaren hasiera izango da.

## Ezker Abertzalea aitzindari

1986ko hauteskunde autonomikoak burututa, “debate de inversión”, HBk aurkeztutako lehendakari-hautagaiak Jose Antonio Ardanza lehendakari berrizendatzea baino zer esan handiagoa ekarri zuen. Izan ere, hirugarren indarra zen Herri Batasunak lehendakari

izateko hautagaia preso politiko gazte bat jarri zuen, Juan Carlos Ildi. HBren erabaki honekin, preso gaztea espetxetik atera eta Gasteizko parlamentura eraman behar izan zuten. Bertan, ordu eta erdiko interbentzio hunkigarri batean, Herri Batasunaren proposamenak eta azken hamarkadako Ezker Abertzalearen diskurtsoa azalduko ditu. Agurrean, Ildik, Ezker Abertzaleak ohiko politikarien aurrean zeukan jarrera argi islatuko du: "Gartzelatik nakarte eta gartzelara naramate. Ez da toki ederra, baina bai poltrona zikin hauek baino duinagoa".

Hurrengo egunean ordea, Txomin Iturberen heriotzarekin, diskurtso historiko hau itzalpean geratuko da. Erakunde armatua eta estatuaren artean hasiak ziren eztabaidetan ordezkaria zena istripu baten ondorioz zendu zen Argelian. Errekonozimendu askoko militantea, nazio mailako "estatu" ehorzketa itxura hartu zuen Arrasatek bere hileta egunean, milaka herritarren babesean. Erakustaldi jendetsu hau Ezker Abertzaleak lortzen ari zen bultzada soziala erakutsi zuen beste gertakari bat izan zen. GAL eta ZEN izenpean egondako errepresioa, eta besteak beste gobernu frantsesak errefuxiatuen kontrako egindako politikak, krisi ekonomikoak sortutako ezinegonarekin elkartu zena, Ezker Abertzalearen egitura indartu eta militante konprometituz osatutako gorputz eraginkor bat sendotuko zuen. Egoera aprobeztatuz, gazteriaren sektore aktiboekin lortutako konexioa eta irudien diseinua eta propaganda berriekin komunikatiboki emandako saltoak, 1987ko urte hasieran Ezker Abertzaleak bere momenturik indartsuena ezagutu zuen.

Bi gertakarik markatu zuten gorenaldia. Gernika 37-87 plataformaren eskutik Euskal Herriaren nazio burujabetzaren aldarriarekin Gernikaren bonbardaketaren 50. urteurrenean ospatu zena izan zen lehenengoa. Gainera, Aberri Eguna Gernikan bertan ospatuz antolatutako akanpadan, Ertzaintzarekin egondako enfrentamenduak jendarteak hauekiko zeukan pertzepzioaren aldaketan aurrekari izan zirela esan daiteke. Baina bereziki gorakadaren momenturik gogoangarriena, 1987an Europako parlamenturako hauteskundeak deitu zirenekoa da. Gatazkaren konponbidearen aldeko diskurtsoaren indarra eta aurrekaririk ez zeukan kalitate handiko kanpaina politikoari esker, Euskal Herriaz gain, Estatu mailako ezker sektorean borroka eta beste nazioen errebindikazioekin bat egin

zuen HBk. Horrela, 360.000 bozka baino gehiago lortuta (estatutik 100.000) aulki bat lortu zuen Ezker Abertzaleak European.

Jarraik, 1987an ospatutako III. biltzarrean, nolabaiteko haustura bat emango ordurarte izan den gazte antolakundearen ereduari. Hasierrako gazteen Jarrai, gazte arazoetatik eta sentipenetatik oso hurbil dagoen gaztez osatutakoa da, egitura txikia zuena eta antolakunde bano koordinadora izan zitekeena. Oso politizatu eta konzientziatu izan arren, bere ekinbideak ez zuen estrategia politiko argirik, edo hobe esanda, ez du gazte estrategia berezirik.

III. Biltzarra ospatu baino urte batzuk lehenago, koadroen Jarrai hasiko da funtzionatzen. KAS blokeak finkatutako strategiari lotuko zaio orduan Jarrai, gazte mailako sentipenak eta kezkak strategiaren mesedetan moldatzen dituen (droga eta soldaduskaren aferan egindako aldaketak adibidez). Koadrotako antolakunde bat izaten hasiko da, militanteen formakuntza eta trinkotasunari garrantzi handia ematen diona, egitura eta antolaketa sendokoa. Aipatu Biltzarrean, antolakunde "organizatzeko" eta "homogenizatzeko" erabakia hartzen da, eta zentralismo demokratikoaren antolaketa eredu bere egingo du. Testuinguru esanguratsua da ordukoa. Aljeriako elkarriketetarako prestaketa lanean dabil Ezker Abertzalea, beraz, aldaketa honek, azalpen argi bat dauka: Ezker Abertzaleak Espainiar Estatuarekin aurreikusten duen negoziatio prozesurako prestatzea hain zuzen, baita hurrengo urratsetarako, hots, boterea hartu behar den momenturako.

Bestalde, ETAk, gobernuarekin negoziatio izango du helburu nagusizat. Azken golpe errepresiboek gaitasun operatiboa erabat baldintzatu arren Euskal Herri kanpoan gogorki erasotzea erabakitzen du, horrek egoera ezegonkor handiago bat sortuko duelakoan. Bonba-autoen dinamika intentsifikatuko du eta 1992ko Joko Olimpikoak Bartzelonan izango zirela erabaki zenean, hiriburu katalana izango da kolpatuena. Ofentsiba honetan, Espainiako holding komertzial nagusia zen el Corte Ingleseko parte zen Hipercorren, lehergailuz beteta zegoen kotxe bat jarri zuen. Espainiar oligarkia erasotu nahi zen, honek negoziatio prozesu baten alde gobernu presionatu zezan. Lehergailua jarrita zegoela hirutan abisatu arren, poliziak ez zuen merkatal-zentroa hustu eta 21 herritarrek bizia

galdu zuten. Nahiz eta urteetara Auzitegi Gorenak erantzukizuna estatuko administrazioarengan zuzendu, "gertakarietako poliziaren pasibitate eta axolagabekeriagatik", ETAk ere bere erantzukizuna onartu eta autokritika sakon bat egingo du. ETAn, eta oro har Ezker Abertzalearengan, hunkipen handia eragingo zuen ekintzak. Gertakariak maila guztietako erreakzioak izango ditu. Lehenengo, Eugenio Etxebeste "Antton" Ekuadorretik Argeliara eramatea izan zen, Txominen heriotzaren ondorioz bertan behera geratutako kontaktuak berrabiatzeko.

Gobernuak poli-milien estiloko autodisoluzio bat bilatzen zuen, ETAk aldiz, KAS alternatiba baldintzarik gabe onartzea. Biak negoziazio mahaia sortzearen beharra ikusita, arerioa ahalik eta makurrago esertzeko ekintzak ugaritzen dira. Bide honetan, gobernuak, ETAn eta errefuxiatuen kontrako sarekada handienetakoa burutu zuten, astebetean 210 pertsona atxilotuz. "Azken garaipena"ren kutsua hartuko diote askok. Iparraldeko "Frantziar kanposantua" deiturikoa desagertuko da eta ETAk funtzionatzeko modua aldatzeko beharra ikusi zuen.

ETAk bere horretan, elkarrizketa politikorako mahai bat osatzen bada bi hilabeteko su-etena egiteko prestutasuna azalduta, ekintza indartsuekin jarraitzen du, hala nola, Zaragozako kaserna bat leherraraziz. Emiliano Revilla enpresariaren bahiketa ere eman zen orduan Madrilen, gobernuaren animoen kontrako kolpe gogorra izan zena. Estatu mailako arazoa izatera pasa eta ehunka miaketa burutu arren, 249 egunen ostean esku-hartean tarta bat zuela, enpresaria bere etxetik 100 metrora zegoen etxe batetik atera zen. Inoiz ETAk kobratutako erreskaterik altuena izan zen. Askatu eta hurrengo egunean, ETAk gobernuari elkarrizketa prozesua hasteko borondatea azaltzen dio.

Espainiako gobernuak, hein handi batean, behartuta ikusiko du bere burua elkarrizketa hastera. Izan ere, ETA errepresio polizial latzenetan ere, borroka armatuarekin jarraitzeko gai zen eta Ezker Abertzaleak, bai hauteskundeetan, bai sozialki izaten ari zen arrakastari, konponbide negoziatu baten aldeko gehiengo batzen zitzaion. Azkenean, kontaktu txiki batzuk gauzatu ondoren, 1989ko urte amaieran, Argeleko elkarrizketei hasiera eman zitzaion.

## Ajuria Eneako paktua

Hartu-eman armatua gertatu bitarte, PSOEek, Estatuko eta Euskal Herriko indar politikoekin elkarlana martxan jartzen du. Ezker Abertzalearen indar eta gaitasunaz kezkatutik, eta independentismoa behingoz indargabetu nahian, PSOEren gobernuak Konstituzio espainiarraren eta Estatutuen aldeko sektore guztiak akordio politiko baten inguruan biltzeko apustua egingo du. Akordio horren baitan, Euskal Herriaren askatasunaren aurkako borrokan lehentasunezko eginbeharra egotziko zaio PNVri. Paktuen estrategia deituko zaiona da. Estatu-estrategia berriaren asmoa borroka armatuaren praktika operatiboki, sozialki eta politikoki bidera ezina bihurtzea da, eta nazio gatazka Estatuari inolako arazorik sortaraziko ez dion erantzute dinamika batera eramatea.

1987ko ikasturte berriaren hasieran, urtero Gasteizko Parlamentuak egin ohi duen pleno berezian, alderdi guztien arteko ETAREN aurkako itun bat sustatzeko asmoa agertuko du Ardantzak, orduko EAeko lehendakariak. Horretarako, alderdi politikoekin bilera erronda bati ekingo diola iragarriko du. 55 orduz ia bilera iraunkorretan ibili eta EA negoziazio mahaitik altxa eta berriro itzuli ondoren, azkenean, 1988. urte hasieran, PNV, PSOE, EA, CDS, EE eta IU alderdiek, Ajuria Eneko ituna deituko zaion agiria argitaratuko dute. Berdina egingo zuten Nafarroako Parlamentuko indarrek, baina oraingo honetan, EA aurka azaldu zen.

Errezeta idatzia dago: Euskal arazoa deiturikoa ez da nazio gatazka bat. Gatazka bakarra demokrazia defendatzen dutenen eta euren ideiak gehiengoari indarrez inposatu nahi dizkieten artekoa da. Gu demokratik, haiek biolentoak. Euskal Herria bakean bizitzeko Gernikako estatutua aski da, eta ETA ez da inor euskal gizartearen izenean aritzeko. Beraz, ETA eta bere mundua sozialki eta polizialki itotzea da egin beharrekoa.

1988-1998 urte bitartean, sinatzaileen artean adostuko dira Ezker Abertzalearen isolatze- eta itotze-politika hori gauzatzeko neurri politiko eta judizial guztiak: Euskal preso politikoaren dispersio politika indartzea, ETAREN aurkako mobilizazioak, lazo urdina, borroka armatua kondenatu ezean HBrekin akordiorik ez egitea...

Honekin beraz, gobernuaren gerra estrategia aldatzen da. PNV hala ere, errepresio mekanismo gogorrenekin deseroso sentitzen da eta gobernuak bere babesa lortzeko aspektu batzuen malgutzea ekartzen du. Gainera, Ajuria Enea paktuko diskurtsoan sortutako biolentoak-demokratak dikotomiari sinesgarritasun minimo bat eman behar zitzaion. Honenbestez, gerra zikinaren alde gogorrena desagertuko da, komisaldegiko inkomunikazio aldia 5 egunera jaitsiko da, Ertzaintzak kompetentzia gehiago lortzean atzerriko indarren okupazioaren ideia lausotuko da.



## **GALDERAK:**

- Zein izan zen Ezker Abertzalearen irakurketa eta postura frankismoaren amaieran? Hausturaren inguruan egiten zen irakurketak ba al du gaurkotasunik?
- Lehen hauteskundeetarako Txibertako mahaia osatu zen. Zein ahulgune eta indargune izan zituen? Zer suposatu zuen saiakera horrek Euskal Herriko historian?
- Zergatik eta zertarako osatu zen alternatiba taktiko bat? Zein zen KAS alternatibaren helburua?
- Zein irakaspen atera daitezke Lemoizen borrokatik?
- Zein antolakuntza aldaketa etorri ziren? Zer zerikusi zuten estrategi aldaketarekin? Ze paper bete zuten antolakunde ezberdinek hamarkada honetan ezker abertzalean (HB, EPPK, LAB, Jarrai, KAS, Gestorak, Hasi, Laia) edota gainerako herri mugimenduan (Askapena, Egizan, Euskal Herrian Euskaraz, mugimendu ekologista...) edo gazte mugimenduan (IA, gaztetxe eta gazte asanbladak, irrati libreak, mugimendu musikalak, intsumituak...)
- Poli-milien eta Euskadiko Ezkerraren ibilbidetik zein ondorio atera daitezke?
- Zein paper jokatu zuen Ezker Abertzaleak borroka instituzionaleko alorrean? Zeri bideratua zegoen praktika instituzionala?
- Ze paper hartzen dute agente politikoek hamarkada honetan? (PNV, EA, ELA, PSOE, PP- Alianza Popular...)



3.

**ARGELETIK  
LIZARRA  
-GARAZIRA:**

## Testuingurua:

80.hamarkadaren erdialdean, Sobietar Batasunak berregituratze ekonomiko eta politikoari ekin zion, Perestroika izenez ezagutu zena. Prozesu honek, indar inperialista eta kontrairaultzaileen esku sartzearekin SESB osoaren gainbehera ekarri zuen, 89ko Berlingo murrutik antifaxistaren erasiketa izan zelarik historiako esperientzia sozialista luzeenaren bukaeraren hasiera.

Mundu osoko iraultzaileek erreferente garrantzitsuena galduko dute, superpotentzia sozialista, gabeziak gabezi, inperialismo eta kapitalismoaren kontrako indar ekonomiko, politiko eta ideologiko garrantzitsuenetakoa izan baitzen XX.mende osoan zehar. Kapitalismoak bere oldarraldi ideologikoa hasi zuen, neoliberalismoaren eredu inposatuaz, esan bezala, kontra egingo zion proiektu politiko efektiborik gabe, behintzat mundu mailan.

ENAMek, Sobietar Batasunarekin lotura ideologiko-politiko argi eta garbi bat ez izatean, epe laburrean behintzat, jasan beharreko ondorioak ez ziren horren latzak izan. Gainera, estatu berrien sorrerarekin batera autodeterminazio eskubidearen afera etorri zen, erabakitze eskubidearen diskurtsoari bultzada emanaz Euskal Herrian. Amerikar Estatu Batuei aurre egingo zion potentzia eroririk, bere hegemonia mundu mailan hedatzeari ekingo zion, dakien era bakarrean, odol eta herio eskuadroien bitartez. Golfoko guda bezala ezagutu zen hori, petrolioaren lortu eta gune geoestrategikoak kontrolatzeari ekingo diote beraz Yankee-ek.

Erresistentziarik ere bada, eta 90. Hamarkada hasiera ezaguna da Apartheidaren kontrako borrokan, Hegoafrikako herriak eskubide zibil eta politikoen alde lorturiko garaipena. Baita ere Hugo Chavez komandantea buru, Venezuelako oligarkia ustela armen bidez eraisteko saiakera. Honen ondorioz Chavez Kartzeleratua izango zen, insurrekzio bidea alboratuta, boterea eskuratzeko beste bideak hartu behar zirela proposatzen zuen bitartean. 94ean Chiapasen EZLNa agertuko da, hainbat herri okupatuaz. Gerrilla iraultzaileen ohiko teorizazioetatik aldendu eta boterea eskuratzeko bidea, helburu izateri utzi eta komunitateen sorrerari ekingo diote zapatistek, erreferente teoriko handia bihurtzen delarik, batez ere herri

mugimendu eta mugimendu anarkistentzat.

1999an Seattleko batailan, mundu mailako beste mugimendu berri bat ikusgarri egiten da, Antiglobalizazio edo altermundismo mugimendua bezala ezagutuko dena. Ikasle eta herri mugimendu ezberdinek modu deszentralizatuan parte hartuko dute bertan, eta garapen ezberdina izango du, batez ere G-8 bezalako gailurretan mobilizazio ikusgarriak antolatuaz.

Beste ildo batean, Euskal Herriarentzat erreferente izan den Irlandar herriaren borrokak, IRAK negoziaketa prozesu bat edukitzera baimentzen du, hainbat treguaren ostean 1997an azken su-etena egingo duelarik, gaur artekoa. 98an Ostiral Santuko Hitzarmenak sinatuko dira, gatazka armatuaren ondorioei amaiera emango diotenak.

## Argeleko negoziaketak

1989ko urtarrilaren 8an ETAk bere historiako lehen su-etena ofiziala agiri bidez jakinaraziko du. Hamabost eguneko su-etena martxan jarri zuen, gobernu espagnolaren baiezkua itxaron arte. Gobernuak su-etena luzatzeko eskatu zuenean, eta lehen kontaktuak emanda, su-etena bilateral bat adostu zen, lehen negoziaketak emateko prest.

Gobernu espagnolak bere historian guztian negoziaketetan izan duen jarrera makurraren lekuko, Josu Urrutikoetxea eta Elena Beloki, aparatu politikoaren ustezko buruzagiak atxilotuko ditu. Ardura politikoz jokatzuz, ETAk ez zuen su-etena apurtu.

Horrela, Argelen Rafael Vera eta Juan Manuel Eguigaray PSOeko kideak, Antton Etxebeste, Iñaki Arakama eta Belen Gonzalezekin batu ziren, aipaturiko su-etena bilateral adostu zutelarik bertan. ETAk hiru fase aurreikusten zituen: lehen atariko fasea izango zena (bermeak eta prozesuaren nolakotasuna zehaztuko zena); bigarrenean elkarrizketaren marko politikoa zehaztuko zena; eta hirugarrena elkarrizketa politikoak berak (KASen aplikazioa eztabaidatu beharko zena).

Horrela, otsailean zehar begirada guztiak Argeleruntz zeuden ETA eta gobernuko kideen elkarriketen berri eduki nahirik. Hiru kontaktu egon ziren, gai ezberdinean artean postura amankomunak topatzeko intentzioarekin, baina negoziaketak, bere horretan, oraindik ez ziren hasi. Ajuria Eneako paktuko kideak mugitzen hasi ziren, ETAk Euskal Herriarentzako onurak lortu ezkerro, PNVk bere "zeregin historikoan" protagonismorik ez edukitzea ezin zuen onartu eta. "Paz ahora y para siempre" izango zen deitu zuten manifestazio nazionalerako leloa, ETAr armak behin betiko uzteko eskatuz. Ardanza lehendakaria, estatuen interesen bozgorailu bilakatu zen. ETarentzat kanpaina honek, balizko apurketa baten aurrean estatuen itxura indartzea helburu zuen bakarrik, eta bere posizioak gogortzen joango zen. Martxoaren 14eko bilkuran, Anttonek deklarazio publiko eskatuko zion gobernuari, elkarriketen eduki politikoetan sakontzeko, eta baita, estatu frantsesean preso zituzten Josu Urrutikoetxea, Txikierdi eta Mamarru ETAko kideak negoziazio mahaian txertatzea.

Bosgarren eta azken bilkura martxoaren 22an eman zen. Aurrekoan blokeoa egon bazen, honetan bilera etengabean (telefono dei eta partehartze argeliarra eta guzti) 8 puntuko akordio bat onartuko dute bi aldeek. ETAk su-etena luzatuko zuen, bitartekari gehiago gehituko ziren mahaira, eta beste mahai bat sortuko zen, alderi politikoekin. Gobernuak publikoki onartu beharko zuen bertan adosturiko testu labur bat.

Baina sasidemokrazia espainolaren ikur, esandakoa ez dute beteko. Aipatutako deklarazioan ETArekin ematen ari ziren negoziaketei pisu politikoa kentzen zitzaion, eta konstituzio espainola eta estatutuak muga bezala jarri. Noski, azken hauek ziren aldatu beharrekoak, eta haserrea nagusituko da ETAn. Bitartekari argeliar eta frantsesekin hainbat kontaktu izan eta gero ETaren negoziazio taldeak gobernuaren ordezkartza itxarongo du. Bitartekarien bidez hainbat proposamen eta kontraproposamen eman eta gero, ETAk gobernuari "martxoaren 23an bi aldeek artean ezarritako akordio puntuak errespetatzeko" konpromisoan berresteko eskatuko dio. Kontraproposamen bezala "martxoaren 23ra arte bi aldeek asumitutako printzipio eta edukiak" onartzea iradokiko du. ETAk ezin zuen onartu. Gobernuak hasiera fasean onartzen duena betetzen



ez badu, ezinezkoa da akordio politiko baten negoziaketa onartzea. Apirilaren 4ean su-etena bertan behera geratuko da.

Prozesuaren gakoak ulertzeko, gogoratu behar da kolpe errepresibo latzen ondorioz Gobernu espainolak ETA ahulduta zegoela pentsatzen zuela, eta beraz polimilien gisako prozesu likidazionista bat onartzeko prest egongo zela. Bestetik, negoziazio eskema ez zen baliagarria, dena mahai batean jartzeak arrisku gehiegi suposatzen zituen eta. Garaipen bezala, nazioartean ETaren paper politikoa eta gatazka politikoa bide negoziatutik amaitzeko beharra azpimarratu daitezke. ETak prozesu honetan jarraitu zezakeen arren, irmotasunaren alde egin zuen, jakinik, negoziaketa hau dialektikoki ulertu behar zela, hau da, etorkizunerako oinarriak jartzen ari zirela bertan.

## Argelen ajeak eta Bidart

90. hamarkadan espainiar estatua, oraindik ez zen aliatu fidagarri bezala ikusten nazioartean frankismoaren oinordeko zela eta. Esku zuritze eta berrikuntza ekonomikorako urterako, 92.urtea kokatu zuen mugarri: Bartzelonako Olinpiadak eta Sevillako Expoa baliatuz horretarako. Gainera, 1492an Amerika osoan egindako sarraskia oroitzeko, "quinto centenario" barruan Latinoamerikan aliantzak bilatzeari ekingo dio, eta estatu barruan diskurtso nazionalista berri bat sortzeari.

Label demokratikoa eskuratu eta inbertsio ekonomikoak lortzeko Estatu Españolak behin betiko amaitu behar zuen ENAM osoarekin. Beraz, Argeleko negoziaketak eten ziren arren, Gobernu Espainiarrak hainbat aldiz kontaktatu zuen Anttonekin Dominikar Errepublikan. ETA eta askapen mugimenduaren indarra zela eta, saiakera oro zen beharrezkoa.

Kontuak kontu, Argelen lorturiko akordioak kokatzen zituen ETak abiapuntutzat. Hori onartu ezker, bi hileko su-etena emateko prest zegoen erakundea. Espainiak erabilitako bitartekariak proposamen ezberdinak egitean, erakundearen komunikabideak jarraitzea, honela zuzendaritza markoetara heltzeko, beste helbururik ez zutela ondorioztatu zen. Negoziaketa baterako bermerik ezean,



ETAk bide guztiak itxi zituen, esan bezala, Argeleko akordioetatik abiatzeko bermeak eduki artean.

Jakina zen ENAM osoak 92. urtea mugarri zuela, honelako irakurketa bat egiten zelarik: estatu espainiak ezingo du jasan 92.urtea zapuztea, eta hori ekiditeko negoziatu beharko du. Horretarako hainbat komando Herrialde Katalanetan kokatu ziren, hainbat ekintza bertan eginez. Nazioartean ere hainbat ekintza egin ziren espainiar interesetan, gatazkak irauten zuela ikus zedin nazioarte mailan.

Espainiar estatuak ETari inoiz emandako kolperik garrantzitsuenetakoa ematekoa zen ordea: 92ko martxoan Bidarten bilduta zegoen ETaren zuzendaritza atxilotua izan zen. Azken urteetan Ipar Euskal Herrian ziren iheslarien kontra, frantses estatuak jazarpena areagotu zuen, ETAko militanteek segurtasun neurriak handitu behar izan zituztelarik, besteak beste mugimendu gutxiago egiteko, ardua gehiago pertsona gutxiagoren eskuetan utziaz. Honela, benetako kolpe latza eman zitzaion erakundeari, hilabeteetan zehar noraezean sartu zelarik askapen mugimendua. 92a baino lehen negoziaketa bidez gatazkari amaiera ematea ezinezkoa izango da.

## Bide baten amaiera

80.hamarkadak ekarritako desindustrializazio prozesuak amaiera joko du Labe Garaien itxierarekin. Honek, Euskal Herrian sektore garrantzitsuenak industria astuna izatetik, zerbitzuak izatera pasako da, suposatzen dituen langabezi tasa eta langile borroka izugarriekin. Aurretik aipaturiko neoliberalismoaren inplantazioaren hasiera dago hemen, maila ideologikoan ere eragina duena. Aurreko belaunaldiak protesta eta erradikalismoz josita bazegoen, oraingo gazterian pasibitatea nagusitzen hasiko da lehen aldiz. Euskal Herrian, egoera arras ezberdina zen, inguruko herriekin alderatuta, horren adibide da intsumisoen mugimendua, espainiar estatuko intsumituen erdia euskalduna zela.

Intsumituen mugimenduak hainbat gatazka ekarri zituen barne mailan, batez ere Jarrairen diskurtsoaren eta gazteriaren artean. Jarraik planteatzen zuen diskurtsoan soldaduskari uko egin behar zitzaion atzeritarra zelako, zapaltzen gintuen ejertzitoan parte har-

tu behar ez zelako, eta ez, garaiko gazte mugimenduek planteatu bezala, eskubide bat behar zuelako izan bertan parte hartzeko hautua.

Jarrai eta gazteriaren arteko amildegia areagotzen ari zen, eta in-tsumituen borroka ahalbidetu zuen eztabaida etorri zen: 92ko maiatzean V.biltzarrean Jarraik bere burua koadro antolakunde zurrun izatetik gazteria osoarentzako tresna izan behar zuela on-dorioztatuko du. Honela, gazte problematikaz edo bizi ereduez hitz egingo da, gazte mugimenduarekin batera, eskuz esku lan egiteko bideari ekinez.

Ez da era isolatuan ulertu behar Jarrairen biltzar hau, Ezker Abertzalearen berregituraketa oso bati erantzungo dio, bai organizatibo eta bai diskurtsiboa izango dena.

## **Txinaurri prozesua, Nazio Eraikuntza**

91 amaieratik HB barruan eztabaida prozesu bat jarri zen martxan, Oldartzen eta Iratzar ponentzien artean emango zena, lehena zelarrik asanblada ezberdinetan oinarri militantearen babes handiena jaso zuena. 94ean bere osotasunean onartuko zen askapen mugimenduaren estrategia aldaketa hau.

### *Nazio Eraikuntza:*

Hausnarketa ondorengoa izanen da, gutxi gorabehera, orain arte euskal estatu iraultzailea eskuratzeko borrokan egon gara buru-bellarri, estatuen kontrako borroka politiko, ideologiko eta militarrean. Independentzia eta autodeterminazioaren aldeko masa erraldoi bat egituratu dugu, baita presoen alde eta negoziaketen alde, baina Euskal Herria galtzen ari gara. Langile borrokek lorturiko onurez gain, gure proiektua egi bihurtzeko planteamendu osorik ez dugu egin. Euskararen erabilera ez da hazten, hezkuntza eredu kolonialista eta ez parte hartzailea dugu, instituzio eta legedi arrotzak, herriaren zatiketa administrazio ezberdinetan, alternatiba sozioekonomiko eza kapitalismoaren aurrean... Gutxi gora behera, ordu-rarte planteatzen zena zera zen: goazen euskal estatua lortzera eta elementu horiek denak, bertan garatuko ditugu. Eta orain aldaketa

dago: eraiki dezagun gure herria gaurdanik, estatu propio bat edukitzera itxaron gabe. ENAMen estrategian norabide aldaketa suposatuko du honek, eguneroko txinaurri lanari garrantzia emango zaio, proiektu ugariaren hasiera izango delarik hau.

### *Negoziaketa proposamen berria:*

KAS alternatibaren eguneraketa egin beharra zegoela ere argi ikusten zen. Alderdien legeztapenak, adibidez, zentzu gutxi zuen, alegalak ziren mugimendu ugari onartzen baitziren, eta lan baldintzei zegokiona ere, orokorregi eta definitu gabeegia zen. Gainera, garai batean izan zen Euskal Herriarentzako alternatiba, orduan Ezker Abertzalearen programa politikoa baino ez zirudien.

KAS alternatiba egokitu beharra aspaldiko kezka zen, baina azkenean aldaketa sakonagoa proposatuko da, eta 1995ean Euskal Herriko Alternatiba Demokratikoa aurkezten du ETAK, KAS Alternatibaren proposamen eguneratua izan nahi zuena. Norabide berrian negoziazioa bi markotan aurkezten da. Alde batetik, ETA eta espainiar estatuaren artekoa; eta bestetik, euskal herritar guztiak garatu beharreko prozesu demokratikoa, proiektu guztiak barne. Baina lehenengo mailan negoziatzen dena negoziatzen dela ere, herritarrek oniritzia eman behar dute. Ezker Abertzaleak aurreko urteotan landutako kontzeptuak ageri dira, hortaz.

Horrez gain, azpimarratzekoa da Euskal Herria kontzeptua behin eta berriro agertzea, eta aldi berean, indarra hartzen dute ondoko kontzeptuek ere: autodeterminazioa, lurraldetasuna, eta demokrazia.

## **Matxinada**

Indar militarrez haraindi, Euskal Herriaren zapalkuntzak erantzule gehiago dituela onarturik, ETAK kanpaina militarra zabaldu egin zuen: ordurarte indar okupatzaile eta interes ekonomikoak baziren helburu, orain arduradun politiko, epaile eta kazetari faxistak jarriko dira jomugan, bai eta goi karguak ez diren indar armatuak ere. 95eko urtarrilaren 23an Gregorio Ordoñez Donostiako PPko zinegotzia tiroz hilko du ETAK, hau delarik eraila den lehen kargu poli-

tikoa. Hiru hilabete beranduago Jose María Aznar PPko presidentea hiltzen saiatuko da, lehergailu potente bat jarriz kotxe azpian. Autoak duen segurtasun eta blindaje maila handiagatik, lehergai-luak eztanda egin arren, ez da hildakorik suertatuko. Abuztuan berriz, historia aldatuko zuen beste ekintza ikaragarri bat egitear egon zen ETA. Komando batek, frankotiratzaile baten bidez espainiar erregea, bere luxuzko yatean oporretan zen bitartean, hiltzeko ekintza prestatu zuen, arazo tekniko txiki batzuegatik soilik ez zen ekintza historikoa egitea lortu.

Honek, erakundearen borrokan salto kualitatibo bat erakusten zuen, itzelezko gaitasun militarraz gain, estatua eta bere aparatu errepresiboaz gain, aparatu ideologiko eta faktikoak hankaz gora jartzeko gaitasun operatiboarekin.

Ez zen lasaiago egoera kaleetan. Ertzaintza askapen mugimenduaren kontrako benetako indar armatua bihurtuko zen, errepresio maila beldurgarriak lortuaz. Herritarrak pelotero, borra eta tanketaz erasotzeaz gain, atxiloketa, tortura eta erailketak egingo dituzte euskal militanteen aurka, honek gatazkaren aurrean PNVk aspaldian harturiko jarrera erakusten zuelarik ere. Ertzainza, euskaldunak jipoitzeko mertzenario euskaldunegaz osaturik egotean, izengoiti herritar berri bat asmatuko da: Zipaioak. Ingelesen menpe zeuden soldadu indioak ziren zipaioak, kolonialismo zapaltzaileak erabili zituenak bertako herria zapaltzeko, eskuak gehiegi zikindu gabe, eta kontraesanak sortuz.

Gatazka egoera latz honen aurrean, Euskal herrian kale borroka izenez ezagutu den fenomeno emango da. Historikoki Euskal Herrian, munduko herri zapaldu guztietan bezalaxe, ohikoa izan da manifestazioen ondoren barrikadak eta enfrentamenduak ematea indar polizialen kontra, harri nahiz molotov koktelen bidez. Sabotaiak ere, ohikoak izan ziren ordura arte, Lemoiz edo Leizarango autobidearen kontrako borroketan ikusi zen bezala, baina beti ere, borroka konkretuen testuinguruan.

Orain ordea, sabotaiaren dinamikak traza berri bat hartuko du, gatazkaren ondorio zuzen gisa, ofentsiba dinamika batean bihurtzen delarik, eta ez soilik gatazka sektorialen ondorio bezala. Honela

kale borroka euskal politikaren ardatzetako bat bilakatuko da, egunerokotasunean emango zirelarik interes ekonomiko eta faktikoen kontrako herri erasoak. Banketxe, alderdien egoitza edo autobusak izan dira sabotai gehien jaso dituztenak, baina bestelako estatu interesak ere erasotuak izango ziren, Telefonica edo Correos-eko ibilgailuak, telebista antena edo errepikagailuak, edota pertsonaia ezagunen auto eta interesak. Indar armatuekin enfrontamenduak ere ugarituko dira, koktel molotov sofistikatuagoak, edota etxafuegoen laguntzaz, benetako batailak ezagutu direlarik euskal hirietan.

Gazteak izan arren dinamika honetan abangoardia, fenomeno askozaz zabalagoa izan zen, sektore desberdinak era deszentralizatuan, inongo hierarkiarik gabe, ekingo diote herri erantzun bat artikulatzeari, herri borroka lehentasuneko maila batean kokatzeko. 1996ean adibidez, 1.000 sabotaia ekintza baino gehiago izan ziren, 3 eguneko.

Kanpaina mediatiko-errepresibo itzela hasi zen fenomeno honen aurka. Bi bideetatik kriminalizatu nahi izan zelarik: batetik, “desarraigatuak” ziren gazteak zirela esanez; bestetik, ETAREN aginduetara zeudela esanez, Jarrairen bitartez. “Y taldeen” teoria sortu zen, kale borroka egiten zuten taldeak ETAKO komando izango balira bezala azaltzen zirelarik. Honelakorik inoiz frogatu ez den arren, ehunka gazte izan dira atxilotuak, torturatuak eta urte luzez espetxeratuak teoria hauengatik. Gatazkak eta errepresioak berriz ere, ETA vs Estatuak dikotomia gainditu zuen.

Dispertsio politika kriminalak bereziki gogortu zuen euskal preso politikoen egoera, hauen aldeko herri dinamikak geroz eta indar handiagoa hartzen ari zirelarik. ETAK Ortega Lara kartzeleroa bahitua zuen, hain zuzen dispertsioaren amaiera exijitzen zuelarik, bere erreskaterako. 1997ko ekainaren lehenean, Ortega Lara bizitzen zegoen zulo sofistikatua topatu zuten Guardia Zibilek, ETAK inoiz egin duen bahiketarik luzeenari amaiera emanaz.

Bahiketak ez zuen lortu dispertsioarekin zituen helburuak, eta horregatik hilabete beranduago komando batek Miguel Ángel Blanco, Ermuako PPko zinegotzia, bahitu eta dei telefoniko baten bitartez

jakinarazi zuen 48 ordutan euskal presoak Euskal Herriratuak ez baziren, bahitua exekutatua izango zela. Hainbat iturriren arabera, ETA prest zegoen Blanco askatzeko baldin eta gobernuko ordezkariaren batek EPPKren bozeramailezarekin bilera bat egingo balu. Gobernu espainolak nahiago izan zuen berriz ere, sufrimenduari errentagarritasuna atera, eta egoera gogor hori Ezker Abertzalearen kontra jarri.

Honela, bi egunak itxaronaldi eternal bihurtu ziren, egoera benetan dramatizatu zen. Manifestazio jendetsuak egin ziren bai Euskal Herriko eta baita espainiar estatuko txoko gehienetan zinegotzi eskuindarra askatzeko eskatuz. Baina ETAk bere eskakizunei muzin egitean, hitza bete eta tiroz hilko du Blanco. Honek, ETaren kontra inoiz egin diren manifestazio jendetsuenak burutzea ekarriko du, espainiar eskuinak kapitalizatuko dituelarik gehienak, Ezker Abertzalearen kontra, literalki, erasotzeko deia eginez. Adibidez, El mundo egunkari ultraeskuindarrak HBren mahai nazionalako kideen argazkiak eramango zituen portadara, "beraiek zapaldu dute gatiloa", eta Madrileko manifestazioa "A por ellos!" batekin amaituko da. Hurrengo egunetan, Herriko tabernak, egoitzak edo herri mugimenduko kideak erasotuak izan ziren.

Espainiar eskuina indartu eta Ermuako espiritua deiturikoak, Aju-ria Eneako paktuaren amaieraren hasiera ekarriko du, izan ere, bakearen eta elkarbizitzaren aldeko mugimendua izan beharrean, gorrotoa eta espainolismoz jositako mugimendua sortuko da, Foro de Ermua edo ¡Basta Ya! bezalako plataforma finantzatuak sortuaz, bai eta Jon Juaristi edo Fernando Savater bezalako, sasipentsalarien ideia dogmatiko eta atzerakoiak lau haizeetara iragarritz (Lehena euskararen kontra agertuko da, eta bigarrenak, "terrorismoarekin asko dibertitu dela" adieraziko du, besteak beste). Eskuin muturreko espainiar nazionalismoak biktimen erabilera politikoa hasiko du bereziki hemendik aurrera.

## Lizarrara bidea

Espainiar gobernuak jarrera muturrera eramango zuen, frankismoaren oinordekotza, berriz ere harro aldarrikatzen, adibidez Mahai Nazionalaren kondenarekin, edota 18/98 makrosumarioa

irekiaz, hainbat enpresa itxiz, besteak beste Egin egunkari herri-tarra. "Terrorismoaren kontrako borrokan dimentsio berri" baten hasiera izango da.

Alternatiba demokratikoa zela eta, ETAk behin eta berriz adierazi-ko zuen bere prestutasuna negoziaketa fase batetarako, eta bide horretan, hainbat indar abertzalek ere kontaktu bira bat egingo dute. Irlandako egoera probestuaz, horiek eztabaidatzeko Irlanda-ko Foroan bat egin zuten besteak beste EAK, PNVk, HBk, LABek edo ELAk. Egun batzuk lehenago zipaioek Ina Zeberio ETako kidea hil zuten 24 bala tiroz, erailketa bereziki odoltsuan. atentatu ho- nek, kolokan jarri zuten ia-ia Foroaren hasiera, baina Ezker Abertza- leak, beste indarrei eskatu izandakoa bere eginez, bakearen aldeko apustu irmoarekin jarraitu zuen.

Irlandako Foroak Lizarra-Garazi prozesu soberanista jarri zuen mar- txan, baina aukera hori eman ahal izateko, hainbat elementu izan behar dira kontuan. Lehenik eta behin, baskongadetako estatu- tua eta Nafarroako amejoramenduaren agorpenaz gero eta sek- tore gehiago ohartu izana. Honela, ELAk estatutua hilda dagoela aldarrikatzeaz gain, LABekin izandako hurbilketak ezinbestekoak dira egoera politiko berria ulertzeko. Ajuria-Eneako paktuak Ez- ker Abertzalea guztiz isolaturik gelditzea bilatzen zuen, baina ELAk estrategia, edo logika politiko hori ahuldu zuen, jada 93an eginiko bi sindikatuen arteko akordioetatik aurrera. Dispersio politikaren kontrako salaketak Euskal Herriko indarrak batzen zituen ere, eus- kal jendartearen kontrako gerra politika zelakoan. Horretaz gain Ezker abertzale osoaren indarra ezinbestekoa izan zen ere egoera politikoan eragiteko: HB edo Jarrairen oinarri militante zabal eta konprometitu, edo kale borroka bezalako fenomeno herritarrek, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokak etenik ez zuela argi uzten zuten. Azkenik, ETAREN gaitasun militar eta operatiboa zalantza ezina zen, eta, beraz, horrenbeste aldarrikatu zen "bide poliziala"-ren antzutasuna orokortua zegoen jendartean.

## **Lizarra-Garazi akordioak, prozesu Soberanista**

Gauzak horrela, 97tik 98rako urte horretan Prozesu Soberanistari bide emango zioten hiru dokumentu adostuko dira: Lizarrako akor-



dioa eta ETaren su-etena, publikoak izango direnak, eta hirugarren bat, pribatua ETA, PNV eta EAren artekoa. Hirugarren dokumentu hau 98an egingo du publiko ETAk prozesua amaitutzat ematean. Bertan, besteak beste hiru aldeek "instituzio soberano nazional bakar bat sortzea" eta horretarako "helburu berak dituzten iniziatiba guztiakin paktatzea" eta "Españaren eraikuntza helburu duten alderdiekin (PP eta PSOE) akordio guztiak haustea" adostu zen. Akordio hau matizazioekin onartu zutela argudiatu zuten PNVk eta EAK gerora, prozesu osoa batera ez egitearen arrazoi nagusia jarre-ra ezberdin hauek egotea izan zelarik.

Esanak esan 1998ko irailaren 12an Euskal Herrian sinatu den akordiorik esanguratsuenetakoa izenpetu zuten hegoaldeko alderdi, sindikatu eta eragile sozial andanak Lizarran. Urriaren 3an Garazin berretsiko da iparraldeko indar gehiagorekin. Lizarra-Garazi izenez ezagutuko den akordio honetan, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa gainditzeko oinarritzko adostasunak bilatuko dira. Bertan, euskal gatazkaren sorrera historikoa dela eta afera politikoa dela onartuta, erresoluzio politikoa behar duela aitortzen da eta beraz, estatu espainiar zein frantsesak parte hartu behar dutela adierazten da. Konpontzeko aferak lurraldetasuna, subjektu politikoaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea direla aldarrikatuko da, eta negoziaketara bidea. Gatazkaren erro politikoak gainditzeko apustua egiten dute beraz Lizarra-Garazi akordioko sinatzaileek.

Egun batzuk beranduago, ETAk su-etena iragarri zuen, lehen aldiz estatuei aurre baldintzarik eskatu gabe, eta iraungitze datarik gabe. Su-etena Euskal Herriari begirakoa zen beraz, prozesu soberanista elikatzeko euskal eragile politiko, sozial eta sindikalei eta herritarrei begirakoa.

Baskongadetako hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren, hilabete eskasean beraz. Lizarra-Garaziko indarrek, indar espainolisten aurrean alde ederra aterako dute, %61 eta %39 hurrenez hurren. Ezker Abertzaleak Euskal Herritarrok plataforma aurkeztuaz 223.000 bozka lortu zituen, Josu Urrutikoetxea eta Joxean Etxeberria euskal preso politikoak tartean. Azaroaren 3an Jose María Aznar espainiar presidente ultraeskuindarrak, "Movimiento de Liberación Nacional Vasco"rekin harremanak baimendu izana deklaratu zuen, ilusio ika-

ragarria piztuaz. Abenduan ospatu zen lehen bilera HB eta Gobernu Ordezkarien artean, baina ez zuen posturak elkartzeko balio izan, eta beraz, ez zen bilera gehiagorik egongo. Gobernu espainolak urrats ezberdinak irudikatu nahi izan zituen, adibidez irletan eta Afrikako kolonietan zeuden 21 euskal preso politikoak penintsulara mugituaz. Horrelako urratsek, haserrea baino ez dute sortuko euskal jendartean eta manifestazio jendetsuak izango dira, bai eta gutxika bada ere, sabotaien berragerpena han-hemenka.

Trabak traba, aurrera zihoan prozesua, eta 1999an Euskal Herriak ezagutu duen manifestazio jendetsuenetakoa bat bizi izan zuen Bilbon, Lizarra-Garazi akordioko sinatzaileek deituta. Prozesu soberanistak ere aurrera eginez, otsailaren 6an Iruñean Euskal Udallerrien Asanblada aurkeztu zen, 600 bat hautetsiz osatua. Helburuak argiak: Euskal nazioaren aitortza eta egituratze instituzionala bultzatzea.

## Blokeoruntz

Baina espainiar estatuak edozein eratan prozesua indargabetzeko ahalegin guztiak egin zituen. Otsailean ETako ustezko 14 kide atxilotu zituzten sarekada ezberdinetan, baita hainbat gazte sabotai ekintzetan parte hartzeagatik, edota Pepe Rei Egineko kazetaria. Donosti komandoko kide Jose Luis Geresta, hilik azaldu zen Oreretan, gerra zikinak eraildako euskal militante bat gehiago, bertsio ofizialak suizidioaz hitz egin arren.

Haserre eta mobilizazioak handitzen joango dira, eta greba orokor bat ere deituko da, baita aberri egun bateratu bat Udalbiltzaren izenean ere. Baina PNV jada ez zegoen eroso eta Udalbiltza eta Lizarra-Garaziren herriratzea geldiarazten saiatu zen. Izan ere ekainaren 13 udal eta foru hauteskondeekin urduri zegoen, bazekielako prozesuarekiko Ezker Abertzalearen konpromiso militantea babes-tua izango zela. Eta hala izan zen, Euskal Herritarrok-ek 276.000 bozka jaso zituen.

PNV-EA koalizioak uste baino emaitza okerragoak lortu zituen, eta alderdi-buruen artean hasi ziren Lizarra-Garaziren kontrako ahotsak ozenagoak izaten. Besteak beste, Bizkaia eta Gipuzkoako

diputazioetan EHrekin negoziaketa eta akordioak deskartatu egin zituzten hasieratik.

Gobernu espainola, guztiz lekuz kanpo, prozesuan bere zentraltasun eza ulertzen ez zuela, ETArekin harremanetan hasiko da. Maiatzean Zurichen ETA eta espainiar gobernuko delegazio bana elkartuko dira, bilkura ekainean egingo zelarik publiko. Bertan iritziak konpartitzeaz gain ez zen benetako postura elkartzerik bilatzen, eta eskakizunak egon arren ez zen bigarren bilerarik izango.

Uztailean, prozesu soberanistarekin eta gatazkaren gainditzearekin erabat konprometituta, ETAk EA eta PNVrekin bildu eta blokeoa gainditzeko proposamenak eskatuko ditu. Abuztuan egingo du ETAk berea: Euskal Konstituzioa idatziko duen euskal herri osoko instituzio propioa sortzeko hauteskundeak deitzea. Bi alderdiak honekin konprometitu ezker, ETAk armak behin betiko uztea aurrerikusten du. Noraezean zeuden bi alderdiek ez zioten ETArri erantzunik emango, baina konpromisoa erakuste aldera, Bilbon Udalbiltzaren sorreran parte hartu zuten, 2.000 zinegotzirekin eginiko ekitaldi historikoan. Erantzun ezak, esan bezala, ETarentzat konpromiso eza eta arduragabekeria erakutsiko du, eta beraz, prozesuarekiko abandonua.

Azken saiakera urrian egin zuen ETAk, gobernu espainolari bilkura bat eskatuz gutun eta agiri bidez. PPren gobernuak, erantzuna emate aldera, Belen Gonzalez Zurichen egon zen ETako ordezkaria atxilotuko du.

Saiakera orok oztopoak baino ez topatzean, Ezker Abertzaleak barririk ikusten du bere burua. PNVk hauteskundeak lehenesten ditu eta estatu espainiarrak ez dio bultzadarik eman nahi bera parte ez den prozesu soberanista bati. Bi indar hauekiko dependentzia dela eta, prozesuak ezin du aurrera egin, eta ETAk su-etena hautsiko du 1999ko azaroaren 28an.

## **GALDERAK:**

- Zer negoziatu zen Argelen? Zeintzuk izan ziren negoziaketak apurtzeko arrazoi nagusiak? Zein izan zen ezker abertzalearen erantzunkizuna?

- Ondorengo urteetan eman zen estrategia aldaketak zein zutabe zituen? Zein izan zen gazte mugimenduaren eta batez ere, V.biltzarren papera eztabaida horretan zure ustez?

-Zein borroka esparru berri zabaldu ziren? Zergatik uste duzu ikusi zela behar hori? Ze ondorio ekarri zituen?

- Zein antolakuntza aldaketa etorri ziren? Zer zerikusi zuten estrategia aldaketarekin? Ze paper bete zuten antolakunde ezberdinek hamarkada honetan ezker abertzalean (EPPK, LAB, Jarrai, KAS, HB, EH) edota gainerako herri mugimenduan (Askapena, Egizan, Euskal Herrian Euskaraz...) edo gazte mugimenduan (IA, gaztetxe eta gazte asanbladak, irratia libreak...)

- Zein izan zen Lizarra-Garaziko akordioek ireki zuten prozesu soberanistak porrot egiteko arrazoi nagusia? Zein izan zen ezker abertzalearen erantzunkizuna?

- Ze paper hartzen dute agente politikoek hamarkada honetan? (PNV, EA, ELA, PSOE, PP, biktimen elkarteak, Zipaioak, komunikabideak, epaileak...)

4.

# **ILEGALIZAZIO FASEA:**

## Testuingurua

2001eko irailaren 11ean erresistentzia arabiarrek New Yorkeko dorre bikien kontrako ekintzek, mende berria ezaugarritu zuten. Amerikar Estatu Batuek munduan “terrorearen kontrako guda” hasiko dute, terrorea barreiatuz mundu osoan zehar: Afganistan eta Irakeko herrien kontrako inbasioa izan zen gordinena, baina segurtasunaren izenean paranoiaren bidez kontrol sozial bortitza ezarriko zaie herritarrei mundu osoan, erresistentzia kritiko gutxiarekin. Neoliberalismoaren ofentsibak jarraitzen zuen, beraz, kapitalaren mesedetan egongo ziren herritar sumiso eta akritikoak sortuaz. Eskubide zibil eta politikoak murrizteari ekin zitzaion lehenik, eskubide sozialak eteteko bigarrenik.

Irakeko gerrak, globalizazioaren kontrako mugimendu eta diskurtsoetan pazifismoaren ideologia txertatu zuela esan daiteke, mundu mailan, baina batez ere mendebaldean. Horrek eragina izango du estatu mailako mugimendu eta herritarrek Ezker Abertzalearekin hartzen duten posturretan.

Aire freskoenak latinoamerikatik zetozen. Hugo Chavez buru zuen prozesu bolibartarrak Venezuelan, baina baita Bolivia edo Ecuadorean Bigarren independentzia prozesuak martxan jartzera daramate. Estatu Batuen aurrean herrien merkatuak sortze bidean ALBA bezalako proiektuak martxan jartzen dira. Nazionalizazioak eta herri boterearen artikulazioa zutabe izanik, sozialismo partikularrak pentsatzeko aukera emango da, Euskal Herrian ere.

## Terrorearen kontrako guda Euskal Herrian

Lizarra Garaziko akordioek ireki zuten prozesu soberanista amaitutzat eman badaiteke ETaren su-etenaz geroztik, garaian, ez zen horren argia izan, eta prozesuarekin jarraitzeko saiakera ezberdinak egon ziren Jaurilaritza, PNV edo Euskal Herritarroken aldetik. Baina prozesuaren oinarriekin PNVren konpromiso falta agerian geratu zen berriz ere (bertako hainbat sektorek kontrakoa uste arren), eta aldi berean Ezker Abertzalean ETaren erabakiak ez zuen eta atzera bueltarik.

Saiakerak saiakera, urtarrilaren 21ean ETAk ejerzitoko koronel bat hilko du Madrilén, ofentsiba militar itzela eraginez. 2002ko abuztura bitarte 40 hildako eragingo ditu, eta aldi berean 6 kidek bizitza galdu zuten. 2000. urteko uda izan zen gogorrena. Abuztuaren zazpian ETako kide Patxi Errementeriak, Urko Gerritagoitiak, Zigor Aranbarrik eta Ekain Ruizek, zihoazen autoko lehergailuak eztanda egitean bizia galdu zuten. Bereziki gogorra izan zen gertakari hau militanteen adin gazteagatik batetik, eta euren herrietako borroka sozialetan errotuak zeudelako bestetik. Euskal Herria sutan jarri zen erantzun herritar zabalean. ETak berak, hurrengo egunean, Zumaián Gipuzkoako patronaleko burua hilko du, Madridenten auto bat leherrarazi eta Berriozarren espainiar ejerzitoko subofizial bat hil. Hilabetea amaitu aurretik Aragoín bi guardia zibil eta Zumarragan PPko zinegotzi bat hilko ditu ETak.

Egoera bortitz honek, eta PP berrindartu batek (ultraeskuina ez zegoen gobernuan frankismotik) aurretik ikusi dugun "terrorearen kontrako" gudaren baitan 18/98rekin hasitako bidea jarraituko du, Euskal Herrian benetako sorgin ehiza bat garatuz. "Y taldeen" aitzakiapean hamarnaka gazte atxilotuko dituzte, tortura ikaragarriak pairatuz eta adin txikikoen kartzela salbuespeneko politiken barruan kokatuz. EKIN eta Joxemi Zumalabe izan ziren eskubide zibil eta politikoen kontrako aro berri hau pairatzen lehenak, hainbat atxilotu, torturatu eta espetxeraturekin. Amnistiaren Aldeko Batzordeek 700 atxiloteta baino gehiago salatuko dituzte 2000. urtean zehar.

Baina honek ez du epe laburrean Askapen Mugimenduaren indarra blokeatuko, eta hainbat dinamika jarriko dira martxan. Besteak beste Euskal Herritarrok plataforma alderdi bilakatzeko prozesua abiatu zen, Batasuna prozesua, hainbat zatiketarekin amaituko zena, mingarriena Aralar alderdiak ekarriko zuen, Ezker Abertzalearen oinordekotza aldarrikatu nahi izan zuena, espagnolentzat aitzakia funtzio bete zuena "hemen ez da inongo proiektu politikorik legez kanpo" aldarrikatzeko.

## Haika gazte, jaiki hadi

Nazio eraikuntza estrategia ardatz, egunez egun Euskal Herria erai- kitzeari ekin zion gazte mugimenduak, baina egiturazko arazo bat zuen, ez zegoen oraindik antolakunde nazional bakar bat ere. Jarrai eta Gazteriak antolakundeak urrats historiko hori emateko prestatu ziren, bien arteko batasuna irudikatu zutelarik Kanboko Haikaldian, milaka gazterekin batera.

Haikaldia eztabaida prozesu luze baten ondoren gertatu zen, zei- netan Euskal Herri osoan zehar 4.000 bat gaztek parte hartu zuten Amaier prozesu eratzaile arrakastatsuan. Haikak, Jarrairen hainbat autokritika bere eginez, "koadro" antolakunde izateari utzi eta koadro eta masa antolakunde izatera pasako da, antolakundea baino mugimendu bezala definitu nahiago duelarik. Nazio Eraikuntza eta gazte mugimendua lehentasun bihurtzeko egituraketa bultzatuko zen, epe ertainean fruitu izugarriak emango zituen estrategia. Haikaldiaz gain, Miarritzen ospatu zen kontra-gailur arrakastatsuen antolatzaileetako bat izan zen Haika, edota ETT edo komunikabi- deen kontrako kanpaina esanguratsuen martxan jarri zuena.

Haikaren determinazio eta indarrari azkar erantzun zioten esta- tuen estrategia errepresibo latzek. Intoxikazio mediatikoa ongi diseinatu izan zuen Haikak bere kontra, ETAREN aginduetara, Kale Borrokaren gidari... zelakoan. Ez zen berria dena den. Jarraik ere manipulazio mediatikoei erantzun behar izan zien, bai eta ilegali- zazio mehatxuei ere. Baina PPren gobernuak, PSOEn babes leiala ez zuen ordurarte lortu, eta acuerdo por las libertades y contra el terrorismo delakoaren babesarekin, eskubide zibil eta politikoen kontrako bigarren erasoaldia hasi zen.

Estatuak Lizarra-Garazitik ikasia zuen eta hortaz errepresioak bi helbururi erantzungo die: Ezker Abertzalea neutralizatzea, eta bestetik PNV birbideratzea, pakto eta asimilazio posizioetara itzul zedin. Estatu estrategia ongi diseinatu bat izan zen hau, azken pro- zesu soberanista inoiz berriro errepika ez zedin eginiko estrategia, hain zuzen.



## Ezker Abertzalea legez kanpo

Haikako 15 kideren atxiloketarekin hasi zen ilegalizazio fase berriaren irekiera. Ezin da ahaztu hau ez zela antolakunde edo herri mugimenduaren kontra emandako lehen operatiboa. Azken urteetan, ikusi bezala, Ekin, Xaki, Joxemi Zumalabe, edota HB ko kideen atxiloketez gain, Egin irratia iren itxiera, KASen legez kanporatzea, edota debeku, isun eta jipoiak anitzak izan ziren. Baina aurreko hamarkadetan ere, errepresioa ez zen xamurragoa izan: ilegalizazioaren mamuak 1977tik bizirik zirauen, eta honekin batera antolakunde politiko iraultzaileen kontrako errepresio estatal eta paraestatalak.

Orduan ordea, ezker abertzaleko antolakunde guztiak legez kanpo uzteko estrategia jarri zen martxan. 18/98 makrosumarioaren ondorengoa zen beraz, Haikaren kontrako sarekada eta legez kanporatzea eta hilabete batzuk beranduago Amnistiaren Aldeko Batzordeetako 13 kideren atxilotzea. Makinaria errepresiboak forma juridikoa behar zuenez, 2002. urtean Ley de Partidos zelakoa onartuko zen espainiar parlamentuan, (Reich-aren antza gehiago hartzen ari bazen ere). Abuztuan beraz, Batasunaren aktibitate guztiak bertan behera uztea aginduko dute, egoitzen itxiera, kontuen blokeoa eta beste hainbat neurri ezarriz, besteak beste hainbat Herriko Tabernen itxiera. Zipaioak izan ziren neurri hauek betetzeaz arduratuko zirenak, benetako sarraskiak gauzatuz, ezagunena ilegalizazioa salatzeke Bilbon egin zen manifestazio jendetsuenetako batean, urezko tankeekin kargatuta. Shock egoera bilatu nahi zuen irudi honek, zauritu ugarietz gain, Chileko diktadurako irudiak gogorra ekarri zituelarik.

Euskal gazteriak erantzun zabala eman zioen errepresioari, baina masa antolakunde ilegal bat edukitzearen ezintasunean tresna berri bati jaiotza emango zaio: Segi gazte erakundea. Hego Euskal Herrian, Haika sortzeko prozesuan parte hartu zuten gazte gehienekin batera egingo du aurrera, mugimendu guztiz logiko bat delarik. Ipar Euskal Herrian ordea, Haika legezkoa izanik, antolakunde berriaren beharrak ez zirudien horren begibistakoa zenik, eta talka txiki batzuk eragin zituen barne mailan. Dena dela, Segik bere bidea hasi eta berehala (ezagunenak "Don't worry be happy" drogen

kontrako kanpaina edo “zuek faxistak zarete terroristak”) beste sarekada eta legez kanporatze bat etorri ziren. Legezko antolakunde bat ezean, hamarkada luze batez hegoaldeko gazteriak ez du antolakunde iraultzaile publiko izateko aukerarik. Gatazka gainditzeko aurreikuspenekin epe laburrean kokatzen zen ilegalizazio fasea, eta beraz, eusteko apustua egin zen, legez kanpo herriz herri mila-ka gazte eta herritar antolatuz, Euskal Herriak ezagutu duen desobedientzia zibileko ekintza masibo eta konprometituenetako izan zelarik. Epe ertainean ordea, egindako inbertsio militante guztiek, oztopo izugarriak topatuko dituzte, errepresiotik hasita gazteriarekin lan egiteko ezintasuna, ia-ia klandestinitate egoeran garatzen delarik militantzia hamarkada amaieran.

2002.urtean errepresioak beraz, ez zuen etenik izan. ETAko kide Ibon Fernandez Iradiri ustez topaturiko zerrenda batetik abiatutako sarekada itzelek izuaren politika zabaltzeko balio izan zuten. “Susperren zerrenda” deitu zitzaion horretan, ustez ETAn militatzeko prest egongo lirartekeen herritarrak zeuden, sarekada “prebentibo” bide eman zietenak. Horri gehitu behar zaizkio “Y taldeen” kontrako sarekadak eta adin txikikoen espetxeratzeak, euskal gazteria begi puntuan dagoela argi uzten dutenak. Sarekada bereziki bortitzak egingo dituzte pikoletok Algortan, Durangaldean, Gasteizen, Donostian edo Iruñerrian, tortura latzak egiten dituztelarik, elektrodoak, bainera, bortxaketak, eta era guztietako astakeriak emango dira komisaldegietan, 600 atxilotuetatik 250en salaketa jasoaz. Horren lekuko grafiko bat geldituko da betirako euskal imaginario kolektiboan, Unai Romano gasteiztar gaztearen aurpegi torturatua.

ETAk bere ekinbidearekin jarraitzen zuen, hainbat zinegotzi eta guardia zibilen heriotza ekarriz edo Joseba Pagazartundua Andoingo munipen burua tiroz hiltzean. Ordea, mingarriak diren hainbat galera izango ditu erakundeak, Hodei Galarraga zaldibiarra eta Oreretako Egoitz Gurrutxaga militante gazteen heriotza, euren autoek eztanda egiterakoan, Olaia Kastresana donostiarrarena, etxe klandestino batean izandako leherketa baten ondorioz, edo Arkaitz Otazuaren erailketa, zipaioekin tiroz edukitako enfrontamenduan.

## Martxoaren 11

2003ko udal hauteskundeetatik ateratako apartheid udaletxeek PNV-EA-IU tripartittoa eta Aralar alderdiak egiten zituen lehen irabazle, zinegotzi lapurrez josirik herrietako etxeak. Errepresioak aurrera eginez, Udalbiltza eta Egunkariaren itxiera ere ekarriko zituen, ilegalizazio faseak bere lehen zikloa itxiz, dena dago jada legez kanpo. Honek, Euskal Herriko egoera politikoa zeharo aldatu zuen, eta gatazkaren konponbidea ilun somatuko da, PPren gobernuarekin behintzat.

Honela, aldaketa izugarri bat gertatuko da 2004eko martxoko hauteskunde espainiarretan. Iraqueko inbasioaren ondorioz, erresistentzia arabiarrek lehergailu andana zartaraziko ditu Madrideko hainbat tren geltoki eta bagoietan 200 bat hildako eraginez, gehienak langileak. Egun gutxietara, Iraqueko inbasioarekin lotura zuzena egingo balitz, PPK hauteskundeak galdutzat eman zitzakeela jakinik, "dena da ETA" mantra zabaldu zuten, erantzule bakartzat ETA eginez.

Ezker Abertzaleak inoiz bizitako momentu zailenetako bat izan zen hau, Euskal Herrian noraeza zabaldu zelarik. Jendartearen gehien-goak zekien ETAK ez dituela inoiz helburu zibilak eduki, ez eta modu indiskriminatuan egiten honelako ekintzak. Baina manipulazio edo hobe, bonbardaketa mediatikoak ez zuen parekorik eza-gutu eta herriaren gehien-goak ziurtzat eman zuen lehen orduetan bada ere, ETA zegoela ekintza horien atzean. Ibarretxe lehendakari burgesa izan zen Euskal Herrian tesi horrekin bat egiten lehena "no son vascos son alimañas" ezagunarekin. Ezker Abertzaleak prentsaurrekoa burutu zuen eguerdian bertan, Otegi, Permach eta Barrenarekin, urak baretu asmoz, eta Ezker Abertzaleak "ezta hipotesi bezala" ez zuela ETAREN parte hartzea kontenplatu baiezta zuten. Honek egoera nahastu zuen, lehen aldia baitzen egun horretan norbaitek ETAREN parte hartzea ukatzen zuela.

Espetxeetan izan zen bereziki gogorra egoera, kartzeleroek hainbat euskal presoren ziegak zabaldu zituztelarik preso arruntek jipoitu zituzten. Okerrrena ordea, martxoaren 13an jaso zen PPren gezurraz enparanoiaturiko txakur batek, Angel Berrueta okina tiroz

hil zuenean, bere dendan ETAREN kontrako afitxak ez jartzeagatik. Erailketa hau salatzeke manifestazio batean, zipaioen karga artean bihotzkeoak jota hil zen ere Kontxi Sanchiz hernaniarra, behar bezalako asistentzia jasotzeko oztopoak zirela eta.

Orduak eta egunak aurrera joan ahala ETAREN egiletza ukatzen zuten ebidentziak handitzen joan arren, estrategia politiko mediatikoak irmo jarraitzen zuen. Honek, milaka herritar PPren egoitzen aurrean manifestatzera eraman zituen hauteskunde egunaren bezperan. Eta hauteskunde egunean aldaketa eman zen. Alderdi Popularrak gehiengo absolutua edukitzetik, oposizioan egotera igaro zen, estatu espanyoleko presidente berria PSOEko Jose Luis Rodriguez Zapatero izendatu zelarik.

## Anoetako proposamena

2003ko azaroan Batasunak Orain Herria Orain Bakea leloaren baitan Anoetako belodromoan eginiko ekitaldian, gatazka gainditzeko alternatiba proposamen berri bat luzatu zuen. Ezker Abertzaleak historikoki defendaturiko zutabeez gain gako berriak ditu ere proposamenak. Besteak beste, ETAK egin ordeztu, Batasunak berak proposamena luzatzea berritasun bat dakar bere horretan. Negoziazio eta akordiorako bi karril proposatzen ziren: bat ETA eta espainiar eta frantziar gobernuaren artekoa; eta bestea euskal agente politiko, sozial eta sindikalen artekoa. Lehenengoan gatazkaren desmilitarizazioaz; preso, iheslari eta deportatuez; eta biktimez hitz egingo zen. Bigarrenean berriz, estatus politiko berri bat izango zuen eszenatoki baterako trantsizioa adostea, zeinetan erabakitze eskubidea errespetatua izango zen; akordio horrek euskal herritarren babesa izan beharko zuen; akordioaren sinatzaileek estatuaurrean berme papera bete beharko lukete.

Proposamenaren indarra inork gutxi ukatuko du hurrengo urteetan, ETAK berak, publikoki bere egingo du proposamena 2005eko urtarriaren 15eko agiri batean. Jarraian irekiko den negoziaketa prozesuan eskema honi jarraituko zaio.

Zapateroren gobernu aldaketarekin Esperantza berriak piztu ziren, eta ETAK elkarrizketa prozesu bat abiarazteko proposamena helar-

raziko dio gobernu espagnolari, agiri ezberdinen bitartez eta zuzenean gutun bitartez 2005eko abuztuan.

Ordurako, Batasuna eta PSEren arteko bilkura extraofizial andana jasoak ziren Txilarre baserrian, bestiak beste Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenen artean. Negoziaketarako aukera zabaltzen hasia zen, eta erakundearekin lehen harremanak eman ziren. 2005ko maiatza eta uztailaren artean erakundeko eta gobernu espagnolako bi delegaritzek 7 bilera edukiko dituzte Ginebra eta Oslon, Henry Durant zentroaren bitartekaritzarekin, eta bertan “zero puntua” delakoa adostera heldu ziren, Zapaterok parlamentu aurrean esan beharreko testua hain zuzen:

*«El Gobierno español respetará las decisiones que sobre su futuro adopten libremente los ciudadanos vascos. Dichas decisiones deberán ser adoptadas en ausencia de cualquier tipo de violencia o coacción, respetando las normas y procedimientos legales, los métodos democráticos y los derechos y libertades de los ciudadanos. El Gobierno español entiende que son los partidos políticos vascos, así como los agentes sociales, económicos y sindicales, en los foros que constituyan, quienes alcanzarán los acuerdos y establecerán los mecanismos de negociación y aplicación correspondientes.*

*El Gobierno español entiende además que los acuerdos adoptados por los representantes de la ciudadanía vasca lo serán con el máximo consenso posible, teniendo en cuenta la pluralidad política existente y en plena igualdad de condiciones para todas las opciones políticas.*

*Finalmente, en cumplimiento de la resolución del Congreso del 17 de mayo de 2005, el Gobierno abrirá un proceso de diálogo con ETA respetando en todo momento el principio democrático irrenunciable de que las cuestiones políticas deberán resolverse únicamente a través de los representantes legítimos de la voluntad popular».*

## **2005-2007 negoziazio prozesua**

Behin oinarri ustez sendoak ezarririk, ETAk “su-eten iraunkorra

“adieraziko du 2006ko martxoaren 22an, aurrez adosturiko bermeen gainean. Horietako bat, Zapaterok aurreko adierazpena 6 hilabeteko epean gehienez irakurtzea izango zen; besteak, atxiloteten etetea, ezker abertzaleko alderdien parte hartze normala de facto onartzea, eta finean, salbuespeneko neurrien indargabetzea. Hasiera batean su-etena eta prozesua sorpresa apur batekin bizi izan ziren euskal jendartean. Egia da ETA heriotzarik gabeko ekin-tzak egiten egon zela azken urteetan, baina gatazkaren gordinak zirauen. Besteak beste ilegalizazio estrategiekin Ezker Abertzalea kaleetatik botatzeko asmo irmoa zegoen, karga eta atxilotetak etengabeak ziren, 18/98 makrosumarioa, Unai Paroten kondenaren luzatzea onartu zuen Auzitegi Goren espagnolak... 2005eko urrian Jose Angel Altzuguren Kotto euskal preso politikoak ustez buruaz beste egin zuen bere ziegan, urtebete eskas zelarik Oihane Errazkin militantea egoera berean topatzen zutela. 2003 eta 2005ean dispertsioak eragindako bi erailketei gehitzen zitzaizkien, Sara Fernandez eta Karmele Solagurenena hain zuzen. Su-eteneko aurreko hilean gainera, lau eguneko tartean beste bi euskal militantek galduko zuten bizitza sarraski espetxeetan: Igor Angulo, urkaturik, eta Roberto Sainzek, kidearen heriotza salatzekeo espetxe barruko mobilizazio batean bihotzekoak jota. Testuinguru honetan ETAk erantzukizun historiko handiaz jokatu zuela argi dago, beraz.

Zapaterok, 2006ko ekainean iragarri zuen ETArekin negoziaketa fase bat ireki berri zuela. Baina ez adosturiko eran. Deklarazio idatzia parlamentuan irakurri ordez, buruz egin zuen pasilo artean, ofizialtasuna kendu nahian. Gainera, bilera luzeetan hitzez hitz adosturiko deklarazioa ez betetzea oso gaizki ikusi zuten ETAk eta bitartekariak. Lehen aldia zen ordea, presidente espagnol batek euskal herritarren erabakia errespetatuko zuela esan zuela, eta horrek bultzada eman zion prozesuari.

Alderdien mahaian adostu behar ziren gatazka gainditzeko oinarriak, baina ETA eta estatuen arteko aurrekordioetan data zehatzik ezin adostean prozesuaren garapenerako oztopo larriak izan ziren. Lehen bilkura publikoa uztailaren 6ean izan zen PSE eta Batasunaren artean. Jarraian ordea, bilkura berriak eman daitezzen Ezker Abertzaleak legezkoa izan behar duela exijituko du Patxi Lopezek. Batasuna PNVrekin ere bildu zen arren, euren postura argia

zen, Josu Jon Imazen hitzetan “primero la paz, luego la política”. Argi utzi nahi izan zuten Euskal Herriarekiko traidoreek akordio politikorik bilatuko ez zutela, eta postura inobilistak babestuko zituztela, Petronorren ohorezko postura baten truke, edo.

ETA eta gobernu espainolaren artean su-etenaz geroztik eman zen lehen bilera 2006ko abuztuan izan zen. Bilkuraren helburua, ETAK gobernu espainolaren aurrean zituen ezadostasunak azaltzea izan zen, adosturiko bermeak eta deklarazioa ez betetzeagatik hain zuzen. Ordurako agiri ezberdinen bitartez ETAK salatu izan zuen gobernu espainolaren jarrera, baina orain erakundeak, hartutako konpromisoak bete ezean gobernuarekin berriz ez biltzeko erabakia trasladatu zuen.

Beste bidetik, Batasunak PSOE eta PNVrekin bilkura bira bat adostu zuten udazkenerako. Ordurako, esan bezala, prozesua ez aurrera ez atzera zebilen, soilik gobernuaren sabotaiak zirelarik. Honela, hiru alderdiak, akordio politiko bat erdiesteko Loiolan bildu ziren urri eta azaro bitartean, orotara hamabi saio izan zituztelarik. Eztabaida ugariak fruituak eman omen zituzten. horrela, erabakitze eskubidearen eta lurraldetasunaren aferan hurbilketak emango dira, bi zirriborro edo aurreakordio osatzen direlarik. Batasunak, behin mahai nazionalean eztabaidatuta, aurreakordioaren ganean zehaztapen zehatz batzuk eskatzerako orduan PNV eta PSOEek fronte komun bat osaturik, ezezkoa emango diote akordio posible bati. Aitzakia gisa erabili zuten prozedura saltatu izana (aurreakordioan ezin ziren aldaketa esanguratsuak gehitu, Batasunak egin bezala), baina behin betiko atea ixteak borondate falta itzela erakutsi zuten.

Abenduan ETAK eta gobernu espainolak eginiko bilkuretan, akordio politikorik bilatzen ez dutela eta oztopatzea asmo dutela, argi geratuko zaio ETARI. Honela, akordioa gutxienez bi urtez luzatzea aurreikusten zuten PSOEkoe, eta noski, hori ez zen inolaz ere onargarria. Blokeoak jada ez zuen zirrikiturik: Loiolako akordioa ez zen posible eta gobernuak ez zuen aurrera egin nahi, eta hau gutxi balitz berme guztiak banan-banan apurtzen ari zen. ETAK beraz, abenduaren 30ean tonelada bat lehergailurekin zartaraziko du Barajaseko T-4 terminala, bi hildako eraginez.

## Atzera bueltarik ez

Hurrengo egunetan, erreakzioak itzelak izan ziren, Batasunak berak, ETArri su-etena ez apurtzeko eskatu zion prentsa aurrean. ETAk urtarrileko lehen egunetan agiri bidez azaldu zuen su-etenak indarrean jarraitzen zuela, ekintza horrek soilik prozesuari abiadura emateko egin zela esanez.

Indar españolek ordea ez dute inolaz ere konpartituko T-4aren ondorengo negoziaketak posible direnik, eta aurretik erabilitako estrategia berdinarekin jarraitu zuten, aitzakia berriekin orain. Egoera arras aldatu da dena den. Iritzi publikoaren aurrean ETAk sinesgarritasun handia galdu zuen, eta inork gutxik uste zuen negoziaketek jarrai zezaketenik.

Gainera, kalean egoera bereziki larria izango zen. Iñaki de Juana euskal preso politikoak gose greban jarraitzen zuen. Hilabeteko horretako abuztuan hasi zuen presoak gose greba, bi iritzi artikulurengatik 96 urteko espetxe zigorra eskatzen baitzion fiskaltzak. Egoera baretuko zelakoan, bi hilabete eta gero utzi egin zuen greba, baina ondoren 4 eta 12 urte arteko eskaria jasotakoan bigarren gose greba hasi zuen, hil ala bizikoa.

Presoaren aldeko moilizazioak etengabeak izan ziren, bai eta hauen kontrako karga polizialak ere. Jarrai-Haika-Segi auziaren kontrako mobilizazioak bezala, automatikoki debekatuak izango ziren. Kaleko giro nahasi horretan, estatuaren interesen kontrako sabotaiak indar izugarria hartu zuten, egunean bat jazotzeraino, ia. Horren zen nahasia giroa, militante askok su-etenaren amaiera posible baten aurrean "okerrago ezin gaitzke egon" pentsatzera eramán zituen.

2007ko urtarrilaren 19an Jarrai, Haika eta Segi gazte antolakunde iraultzaileak terrorista izendatu zituen Auzitegi Goren espāñolak. Honek esan nahi zuen, judizialki, Segiko kide izatea, erakunde armatuko kide izatearen pareko izango zela. Hurrengo belaunaldientzat tresna errepresibo latzenetako bat izango da hau, gazte mugimenduko 200 bat kide izango direlarik atxilotuak, eta gehienak torturatu eta espetxeratuak. Errepresio olatu horrek gazte



estrategia osoa baldintzatu zuen, militantzia errepresioari aurre egiten murgildu baitzen, gazte problematika albo batera utziz eta egoerak zekarren segurtasun neurriekin gehiegizko klandestinizazio egoeran murgilduaz hurrengo hamarkadetan.

Baina su-etenak indarrean zirauen eta prozesua salbatzeko asmoz ahalegin berriak egin behar ziren. Batasunak Loiolako mahaietan eginiko marko berri baterako proposamena zehaztuta, Anaitasunean aurkeztu zuen publikoki, 2007ko martxoan. Marko Demokratikorako Proposamenean, "autonomia a cuatro" historikoa zehaztasunez josi zuen Ezker Abertzaleak, subjektuak, epeak eta moldeak zehazten zituen proposamen historikoarekin.

Negoziaketak berrartzeko asmoz ETAk Zapaterori gutun bidez bilkura berri bat eskatu zion, prozesuarekiko atxikimendua eskatuz; honek garantia minimoak behar zirela eskatzean, ETAk jada, hasieran adosturikoarekin nahikoa zela argudiatuta, akordio politikoak lehentasuna izan behar zuela eskatzen zuen. Ion lurrebaso ETako bitartekaria atxilotzea izan zen estatu frantsesaren erantzuna.

Maiatzean bertan eman ziren azken bilkurak. ETA eta gobernuko ordezkariak, eta Batasuna eta PSOEkoak hiri berdinean eta egun berdinetan bildu ziren, azken ahalegin bat egiteko. Ezker Abertzaleak bazuen proposamen zehatza, baina estatua ez zen onartzeko prest. Akordioak lortzeko ezezkoez gain, ordurarte adostutakoa zalantzan jarri zuen gobernu espagnolak, borondate falta argia erakutsiz. ETAk jada ez zuen Madridekin biltzeko asmorik, eta Batasuna izan zen azkeneko bilera egiteaz arduratu zena. PSOEek ez zuen inongo asmorik akordiorik erdiesteko, berak zirrimarraturiko plan bati uko egin zion baita ere.

ETAk argi ikusi zuen. Konfrontazio armatua ezinbestekoa izanen zela.

## **Berme bakar bat ere bete gabe**

Akordio politikoa egin ez izanak ekarri zuen prozesuaren etena, baina adostutako bermeak bete ez izanak argi gorriak piztu zituen hasiera-hasieratik. ETAREN su-etenak jarri behar zuen abian alde

biko tregoa hori, baina laster etorri ziren inork espero ez zitzakeen gertaerak. Lehenengo astean bertan Arnaldo Otegi espetxera bidali zuen Fernando Grande-Marlaska epaileak eta Ertzaintzak Koldo Danborenea eta Dani Ianiz atxilotu zituen. Hortik aurrera, arrapaladan etorriko ziren atxiloketak eta Ezker Abertzalearen ekinbide politikoaren aurkako debekuak, kasu batzuetan artean ezagutzen ez ziren gertaerak ekarriz (Iruñean Pernando Barrena mahaikidea ematen ari zen prentsurrekoa Poliziak eten zuen).

Bi hilabete pasatuta, Batasunak zein ETAk, bakoitza bere esparruan, abisua helarazi zien PSOeri zein Gobernu espainolari: jarra horrekin aurrera egiterik ez zegoela. Argudio komunak entzun zituzten biek: PPren presioa, epaileak eta poliziak kontrolatzeko ezintasuna... ETako ordezkariak galdera argigarria egingo zuten negoziazio mahaian: «Marlaskarekin eta Gómez Bermudezekin negoziatu behar al dugu orduan?». Madrilgoek egoera konpontzea haien «eginbeharra» zela onartu zuten askotan, baina espero baino gehiago kostatzen ari zitzaiela adierazi zuten beti. Gauzak ez zirela zuzentzen ari egiaztatzen zen heinean, argudio horien sinesgarritasunak gainbehera egin zuen.

Estatuaren jokabideak ez zuen prozesua zapuztu fase horretan, baina biziki gaiztotu eta zakartu zuen giroa. Hasteko, ETAk uda partean biltzeari uko egin zion, baldintzarik ez zegoela-eta. Honekin, Zapaterok buruan zuen egutegia aldatu zuen.

Zailtasunak argudiatzen zituela ikusita, egoera konpontzeko epe bat jartzea proposatu zion ETAk mahaian («zenbat behar duzue, bi hilabete?»). Ez zen erantzunik izan, ez hitzez ez eta ekintzez ere. ETari bermeak apurtzea egotzi zion gobernuak, hildako gudarien omenaldi batean 3 kidek 7 tiro airera egin zituztelako, edota Nimesen 350 pistola lapurtzeagatik. Armak eskuratzeari espreski uko egin zion ETAk, eta ekintza honekin, bermeetako bat apurtzen zuela jakitun zen. Ordea, hilabeteak ziren gobernuak adosturiko berme bakar bat ere betetzen ez zuela, eta ekintza honen bitartez bermeen publikotasuna agerian geratu zen.

Bermeak berme, eta esanak esan, inoiz egon den negoziazio saiakera serio eta luzeena izan zen azken hau. Nahiz eta estatuak

adosturikoa bete ez (aipatzekoa da inoiz ere ez, bere historian, adosturiko ezer ez duela bete estatu espainolak), Ezker Abertza-leak borondatea erakutsi zuen une oro, baldin eta benetan aurrera urratsak emateko prest bazen gobernua. Azken aukera hau posible ez zenez denbora galtzen ari zela argia zen.

Su-etenaren amaieraren agirian ETAk iragarri zuen, "urte luzetako borroka gogorra dator aurretik".

## **GALDERAK:**

- Lizarra Garazi ondoren zein izan zen zabaldu zen egoera politiko berria? Ezker abertzalearen estrategia zein izan zen? Zein lehentasun markatu ziren?

- Zein borroka esparru berri zabaldu ziren? Zergatik uste duzu ikusi zela behar hori? Ze ondorio ekarri zituen?

- Zein antolakuntza aldaketa etorri ziren? Zer zerikusi zuten estrategia aldaketarekin? Ze paper bete zuten antolakunde ezberdinek hamarkada honetan ezker abertzalean (EPPK, LAB, Haika, Segi, Ekin, Batasuna, Askatasuna) edota gainerako herri mugimenduan (Askapena, Bilgune Feminista, Euskal Herrian Euskaraz...) edo gazte mugimenduan (IA, gaztetxe eta gazte asanbladak, gaztesarea, musikherria, sextabaida, duina...).

- Ilegalizazio estrategiak zein ondorio izan zituen zure ustez epe labur, motz eta luzean?

- Ze paper hartzen dute agente politikoek hamarkada honetan? (PNV, EA, aralar, ELA, PSOE, PP, Biktimen elkarteak, Komunikabideak, Epaileak...)

- Zer negoziatu zen Loiolan? Zeintzuk izan ziren negoziaketak apurtzeko arrazoi nagusiak? Zein izan zen estatuaren eta alderdien erantzunkizuna? Eta ezker abertzalearena?

5.

**ZUTIK EUSKAL  
HERRIA:**

## Testuingurua

2008an Wall Streeteko burtsan cracka gertatu ostean, Kapitalaren negarren krisia hasi zen. Ekonomia finantzioeroaren ezaugarria den espekulazioaren bidezko kapitalaren metaketak, kreditu-zaborrak eskaintzeak, langa jo zuen. Horrela, akzioak kapitalik gabe geratu eta banan bana AEBetako enpresa erraldoiak erori egin ziren, jarraian. Horrek, mundu osoan kapitalen berkokatze batekin, eta denak zorraren eraginetik ihesi edota aurre egin nahian, mundu osoko ekoizpenarekin gelditu eta multinazionalez gain, mota guztietako enpresen erortzea ekarri zuen.

Neoliberalismo basatienari atek ireki zitzaizkion, 1930eko hamarkadan faxismoari bezala. FMI eta MBZk gidaritza hartu eta kanpo zorra arma hartuta estatuen soberania lapurtzeaz gain, berregokitze estruktural bat gidatzen hasi ziren.

Krisi ekonomiko baino gehiago baten aurrean, krisi sistemiko batek egiten du leherketa. Zibilizazio krisiak, erreprodukzio eta zaintza lanen krisia, krisi ekologikoa, energetikoa, kulturala eta politikoa batzen ditu. Baina horrek ez du esan nahi kolokan dagoenik egungo statu quo, berregituratze prozesuan sartuta besterik ez dago. Neoliberalismoa mundu osoan hedatzea eta botere harremanak areagotzea da helburua, mendebaldeko eta periferietako herrietako desorekak, botere zentroetan ere berproduzitzen. Europan, Alemaniaren hegemonia gainontzeko herriekikoa da, soberania guda bat delarik, Euroaren diktadurapean.

Herri sektoreak mobilizatu egin ziren krisiaren leherketaren aurrean. Inoiz ezagutu gabeko mobilizazioak lehertu ziren 2011ean Tunisia eta Egipton, eta gainontzeko herrietara hedatuz. Greziako herri mugimenduaren erantzun itzelek edota Amerikar Estatu Batuetako Occupy Wall Streetek eredu berriak proposatu zituzten. Testuinguru horretan sortu zen ere espainiar estatuan maiatzaren 15a mugimendua, epe laburrean mugimendu ugariaren loratzea eza gutuko delarik.

Krisiaren testuinguruan klase borroka bizkortu egingo da, Euskal Herrian bizi baldintzen okertzearekin eta eskubide sozialen gain-

beherarekin batera, 6 greba orokorrekin erantzungo zaiolarik.

## Borroka armatua berriz ere 2007-2009

ETAk, su-etena amaitu zenetik, eta agindu bezala, borroka armatuarekin jarraitu zuen, ekintza ugari eta bereziki ikusgarriak egin zituelarik.

Lehen ekintza horren adierazgarri izan zen. 2007ko abenduaren lehenean, estatu frantsesean zegoen ETAko komando bat jarraitzen ari ziren Fernando Trapero eta Raúl Centeno pikoletok tiroz hilko dituzte Capbretonen. Frantziar lurretan guardia zibilak duen presentzia agerian uzteaz gain, ETAren borrokarako prestutasuna ikusiko da.

Hauteskunde espainolak baino bi egun lehenago Isaias Carrasco Arrasateko PSOEko zinegotzi ohia tiroz hilko du ETAk. Hurrengo hilabeteetan Calahorra eta Legutioko guardia zibilen kuartelak desagerraraziko ditu ETAk leherketa bereziki ikusgarriekin. Durango edota Zarautzen burutu zituen antzeko ekintzak.

Ikasturte hasieran Ondarrun zipaioen kuartelaren kontrako ekintza, Caja Vitalen kristalezko egoitza berria eta Kantabriako Santoñako militarren kontrako ekintza ikusgarriak egingo ditu. Abenduan Ignacio de Uría AHTko lanetan zebiltzan hainbat enpresen burua hil zuen tiroz, eta ETBren Bilboko egoitza ere txikituko du.

2009an Arrigorriagan Informazio Brigada buru zen Eduardo Puelles hil zuen kotxe eztanda. Bereziki ezaguna zen Puelles, inkomunikazio-aldiak zuzentzen zituelako, eta galdeketetan erabiltzen zuen bortizkeriatatik. Uda horretan Burgoseko casa-cuartelaren kontra zartarazi zen furgoneta bat, eta hurrengo egunean Mallorcako uhartean bi guardia zibil hilko ditu kotxe-lehergailuz. Ekintza honen ikusgarritasuna uhartetik ihes egitea lortzeak ekarri zuen, "por tierra, mar y aire" itxi baitzuten uhartea. Are harrigarriagoa izan zen, aste betera, lau lehergailu txikik zona turistikoenean eztanda egin zutenean, egoera zail horretan ekintzak egiteko zailtasunagatik.

Su-etenez geroztik, PSOEren Casas del Puebloak eta Euskal Herriko



epaitegien kontrako ekintzak ere izugarriak izan ziren, baita Opus Deiaren kontrakoa, kasu. Ikusi bezala, PSOE, militar eta guardia zibilak, eta euskal burgesiaren mesedetara zeuden indar faktikoen kontrako kanpaina zabala egin zuen ETAK. Gaitasun militar itzela erakutsi izanak, ustezko porrot militarren hipotesia behin betiko alboratu zuen.

Arazoa bestelakoa zen. Su-etenaren apurketaz geroztik, Ezker Abertzalea ez zen gai inizatiba politikoa eskuratu, eta gatazka behar zen lekuan kokatzeko. Horrela, ETAren ekintzak herriarengandik urrundu eta ez dira ulertu edo konpartituko. Batez ere zailak izan ziren Carrasco edo Uría-ren hilketak, edota casa cuartelenak, bertan bizi zen jendeagatik.

Testuinguru horretan, 2009an estrategia berregokitzeko ETAK barne eztabaida bat abiaraziko du, eta ekintza ofentsiboak egiteari uztea erabakiko du, Euskal Herrian ematen ari diren aldaketei begiratuz, ekarpena berbideratu asmoz. Tarte horretan, 2010eko martxoaren 16ean kotxeak eskuratzen ari ziren ETAKo hainbat militanten kontrako pertsekuzio eta tiroketan Jean-Serge Neryn jendarme zauritu eta hil egingo da, lehen aldia izanik ETAK jendarme bat hiltzen duela.

## Tres cifras en encarcelados

Negoziaketak apurtzean, estatu espainoleko barne ministro Alfredo Perez Rubalcabak abisatu zuen: espetxeratze kopuruek hiru zifra hartuko dituzte. Frankismotik, eskalada errepresiboak ez zuen horrenbesteko igoerarik izan, atxilotetak asterokoak zirelarik. ETAko militantez gain, Batasuna, Segi, Ekin, Askatasuna, Askapena, Abokatuak, edo bestelako atxiloteten kopurua beldurgarria izan zen.

Prozesua amaitu eta 07-08 ikasturtea izan zen garai ilunaren abisua. Mahai nazionala Seguran bildu ostean, kide guztiak atxilotu eta espetxeratuko dituzte, Batasunako zuzendaritzaren kontra gainera beste bi operazio emango direlarik. Udan, Gasteizen kale borrokaren aitzakiapen Marlaska epaileak sarekada bat emango du, tortura eta espetxeratze fase berri bati irekiera emanez. Horre-

la, segiren kontrako sarekadak bihurtuko dira eskualdez eskualde. Gasteizek ireki bazuen bidea jarraian Algorta, Donostia, Markina, Oarsoaldea, Gasteiz, Iruñerria, Iparraldekoak... etorriko ziren. Sarekada hauen izaera oso antzekoa zen: gazte mugimenduan aktibo ziren gazteak atxilotu eta torturatu ondoren, autoinkulpazioez gain zerrenda beltzak osatzen ziren, eta zerrenda hauetatik tiraka atxiloketa berriak ematen ziren. Iruñerrian, Barañainen edo Burlata bezalako herrietan beldurgarriak izan ziren atxilotu kopurua.

Epe motzean Segik eta orokorrean gazte mugimenduak jakin zuen aurre egiten errepresioari, eta gazteriak antolatzen jarraitzen zuen, 6 urteko espetxe zigorra eta inkomunikazioko bost egun pairatzea posible zela jakinik. Honek, euskal gazteriaren borroka eta erresistentzia grina erakusten ditu. Ordea, epe ertainean, antolatzeko zailtasunez gain, gazte mugimenduaren moralak behera egin zuten, eta eskola baten barrura begira, bizirauteko asteak zenbatzen ziren, garaipenerako geratzen zen denbora zenbatu beharrean.

Atxiloketak, esan bezala anitzak izan ziren, eta sarekada masiboek ez zuten geldialdirik izan 2011ra arte. Askatasunako zuzendaritza, Ekinekoa birritan, Segikoa birritan, abokatuen kontrako operazioa, Askapenaren kontrakoa... Espetxeratu kopurua frankismoko garai askotan baino altuagoa izatera iritsi zen, antolakunde politikoetako kide izateko akusazio eta kondenak 6 urtetik 12ra heltzen zirelarik.

Kalean salbuespen egoera argia zen. Baskongadetako legebiltzarreko 2008ko hauteskundeetan Demokrazia 3 Milioi kandidatura legez kanpo uztearen ondorioz Patxi Lopez espainiarrak hartu zuen lehendakari kargua. Lehen aldia izango da baskongadetako lehendakaria ez dela PNVkoa eta horrek, haserre eta etsipen ugari ekarriko ditu euskaldun ugariren artean.

Promesa errepresiboei men eginez Ares izendatu zen barne sailburutzat, mitologia erromatarreko "dios de la guerra" bezala ezaguna egin zelarik herritarren artean. Presoen argazkien kontrako razzia hasi ziren zipaioak Ares buru zutela, eta horrela ustezko enaltecimiento zelakoan, publikoki erakusteko debekua emango da. Horrek de facto, presoen aldeko mobilizazio guztiak debekatzeaz gain, herriko tabernetan sartu eta tabernariak inputatzeko balio izan

zuen. Bereziki gogorra izan zen, adibidez, Donostiako ostiraletako enkarteladaren kontra kargatu zuenean Ertzaintzak, hainbat senide zaurituz.

Gerra zikinak ere egin zuen bere bidea. Hainbat izan ziren “secuestro express” bezala ezaguturikoak. Kontrol batean, guardia zibilak gehienetan, leku isolatu batetara eramaten zituen hainbat militante, eta bertan galdeketa eta mehatxu bortitzak ematen ziren. Izua zabaltzeaz gain, kolaborazio eskaerak egiteko izaten ziren gehienak. Juan Mari Mujika, Lander Fernández, Alain Berastegi edota Dani Saralegi izan ziren ezagutu ziren bahiketa kasu batzuk. Bahiketa hauetan okerrenak Jon Anzaren erailketan amaitu zen.

Jon Anza Ortuñez ETako militantea, 2009ko apirilaren 18tik 2010eko martxoaren 11ra, desagerturik egon zen. 21 urte Espainiako kartzelatan preso eman ondoren, Ipar Euskal Herrian bizi zen. Minbizia zuen Jonek eta medikuarekin zeukan zitara agertu ez zenean piztu ziren alarma gorriak. ETak agiri bidez konfirmatuko zuen: Jon, ETako militantea izanik, bilkura baterako joan zen Toulouserara, baina bertan ez zen behar zuen lekura iritsi, eta ez zen inoiz etxera itzuli. Bahiketa eta tortura lehen hipotesi bezala agertuta, hilabeteen joan-etorrian konfirmatu besterik ez ziren egin usteak.

Bertsio ofizialaren arabera, hilik aurkitu zuten Toulouseko morgue batean 2010eko martxoaren 10ean, non eta bilatu zuten lehen lekuan bertan. Bertsio ofizialak ere ez du azalpenik ematen Jon desagertu zen egunean bertan Hotel batean zeuden hainbat gizonen arrapalan ihes egin izana, bertan pikoletoen hainbat reglamentuzko pistola ahaztuaz.

## Loiolako elkarrizketen irakaspenak

Loiolako elkarrizketek fruitu batzuk eman zituzten arren, berme faltak, eta gobernu espainolaren jarrera guztiz ezkorrak, prozesuaren bideragarritasuna ezinezko egin zuten, T4aren aitzakiaz geroztik modu esplizituan gainera. 2007ko ekainean, ordea, ETak su-etnaren amaiera iragarri ostean, etsipen sentsazioa zabaldu zen jendartean. Aukera historiko berri bati bide eman ezin izanak eta

konfrontazio zuzenaren gordintasuna bizi beharrak eragin zuten etsipena.

Ezker Abertzale barruan ere zabaldu zen sentsazio hori. Oinarriko militante gehienek ikusten zuten arrazoia nahikoa bazegoela negoziaketa horietan ez jarraitzeko, baina, aldi berean borroka armatuaren fase zehatz horri, behin betiko itxiera eman behar zitzaiola ere nahikoa hedatuta zegoen.

Arrazoi nagusia, baliteke, Loiolako elkarrizketetan Ezker Abertzalea postura komun batekin joan ez izana izatea, eta oro har ezker abertzalean postura ezberdinak zeudela. Prozesuaren hasieratik, ikuspuntu ezberdinak zeuden negoziazio prozesuaren ezaugarritzeari dagokionean. Etsaiak horrela irudikatu nahi izan zuen arren, argi zegoen ez zela Ezker Abertzalea osatzen zuten erakundeen arteko lehia bat izan. Ezker Abertzaleko antolakunde guztien baitan zeuden ikuspegi ezberdinak. Bi ikuspuntu nagusiak honela laburtu litezke:

- Negoziaketa trantsizio marko gisa ulertzen zutenak: Negoziaketa bera ziklo berri baten hasierarako mugari zela ulertzen zutenak. Minimo demokratikoak zehazteko aurre-akordio lortzea eta herritarren artikulazioan oinarritzen zena. Horrela, estrategia politiko- militarra gainditutzat ematen zuten. (Arriskua: mahai politikoan unean une emandako pausuei begira egotea, koiuntura/egoera orokorrari erreparatu gabe). ETAk negoziaketa prozesuaren aitzindaritza eman ezin zuela uste zuten (Hau da, edozein arazo zegoen bakoitzean, erakundearen presioak ezin zuela prozesua baldintzatu, Argeleko elkarrizketen eskema errepikatzen zelako).

- Negoziaketa ziklo berri bat hasteko bermeak adostu eta lortzeko pausu gisa ikusten zutenak: Bide horretan, borroka armatua akordio demokratiko bat lortu arteko tresna gisa ulertzen zen, ezin zitekeen estrategia militarra alboratu minimo demokratikoen bermea izan arte. Hau da, erabakitze eskubidea eta hegoaldeko lau lurraldeen autonomia garatzeko bidea.

Bi ikuspegi horiek, negoziaketan Ezker Abertzalean izandako jarre-  
ra baldintzatu zuten, mahai politikoan, oinarrizko dokumentuarekin  
desadostasunak sortzeraino.

Gaineratu behar da, prozesuan zehar ez zela herritarren behar bes-  
teko aktibaziorik lortu. De Juanaren egoera bereziki larriak, edota  
Jarrai-Haika-Segiren kontrako epaiketak, sabotai eta masa mobi-  
lizazio ugari ekarri zituzten arren, ez zen prozesuaren ezaugarrien  
araberako aktibaziorik sortu (anitzagoak izan zitezkeenak, kasu).  
Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoarekin saiakerak egin eta hasiera  
indartsu bat izan bazuen ere ez zen behar beste tentsionatu.

Dena den, hainbat garaipen atera daitezke Loiolako negoziaketeta-  
tik:

1. Lehen aldiz, Espainiako gobernuak, Euskal Herriak erabakitakoa errespetatuko zela esan zuen. Hiru al-  
derdi nagusiek oinarri demokratikoen inguruko bata-  
sun minimo bat adostea lortu zen.
2. PNVk prozesuan zehar izan zuen jarrera pasiboa age-  
rian geratu zen Euskal Herritarren artean.
3. Nazioarteko eragileen parte hartzea prozesuan. Eus-  
kal Herriko gatazka "munduan zabaltzeaz" gain, era-  
kunde bakoitzaren nahiz gobernu espainiarraren ja-  
rrera inobilista agerian uztea lortu zen. Gerora, Eus-  
kal Herriko gatazkan inplikatzeko zimentuak jarri zi-  
ren.

Loiolako negoziaketak bukatuta, Ezker Abertzaleak argi ikusi zuen  
estrategiaren baitan hausnarketa ematea beharrezkoa zela, ne-  
goziazio eta konponbide strategiaren eskema aldatu behar zela:  
Edukiez, borroka armatuaren funtzioaz eta herriaren aktibazio  
nahiz indar metaketaren inguruan. Konponbide prozesua eta ziklo  
berri baten irekiera emateko estrategia berarekin jarraitu edota  
bestelako bide bat garatzea zen eztabaidaren muina. Elkarrizketen  
ondoren Ezker Abertzaleak nahiko "burumakur" bukatu bazuen  
ere, beharrezkoa zen eztabaidari eutsi eta barne mailako argipen  
ariketa bat egitea. Baina eztabaida ariketaren zailtasunak eta ire-  
kitzear zeuden konfrontazio mailek, luzatu egingo dute denboran  
eztabaida.

## Eztabaida zabaldu beharra

Ezker Abertzalea noraeza ideologiko eta estrategiko batean galdurik zegoela sumatzen zen. Errepresioaren zurrumbiloan horren sarturik, ordea, militante askok ez zuten argi ikusten eztabaidak nondik jo behar zuen. Gazte antolakundean, adibidez, epe motzeko estrategietan enrokatua egotearen sentsazioa zabala zen. Baina ez hori bakarrik, gazteriarenganako amildegia eta alternatibak eskaintzeko gaitasun eza ere nabarrit zen.

Esan daiteke, Segiren hausnarketa hau beste maila batzuetan, eta beste mota bateko lehentasunekin, baliozkoa zela gainontzeko ezker abertzaleko antolakundeentzat. Horrela bada, estrategia eraginkor bat finkatzea urgentziatzko prozedura zen, hamarkadetako borrokaren emaitzak galtzeko arriskua zeuden eta. Besteak beste herri mugimenduaren indargabetzea, nora eza estrategiko eta teorikoa, eta herri sektore ezberdinenekiko urruntzea zela eta, eztabaida azkartasunez egitea derrigortu zuen. Beste urgentzia bat ere urteetan irabaziko hautesle kopurua galtzeko arriskua zen. Azken hauteskundeetan nabarmenki egin zen behera, bestelako alderdie-tara bideratu zelarik bozka. Udal hauteskundeekin ziklo hori behin itxita, berriz ere berreskuratzea zaila izango zen.

Lizarra-Garazitik Ezker Abertzalearen analisiaren arabera aldaketa politiko eta sozialerako baldintzak objektibo eta subjektiboak egon bazeuden, eta gauzatzen ez bazen, gure erantzukizuna zen soilik. Hala ere, ezker abertzaleko sektore batzuentzat baldintza objektibo nahikorik ez zegoen aldaketa prozesu baterako, eta hauek sortu egin behar ziren (indar korrelazioari zegozkionak batez ere). Eszenatoki demokratiko bat lortu arte, ezin zen indar metaketa oinarri zuen prozesu soberanista bat abiarazi. Horretarako berme nagusiak, nazio eraikuntza eta borroka armatuak izaten jarraituko beharko zuten. Anoetaren negoziaketa eskemaren ondoren lorturiko marko demokratiko batera iritsi arte, ezin zen prozesu demokratiko bat abiarazi.

Ordea, beste sektore batentzat, borrokak urte luzeetan sorturiko aldaketarako baldintzak galduko genituzke, estrategia berdinarekin jarraitu ezker. Beraz, estrategia errotik aldatu beharra zegoen. In-

dar metaketa eta prozesu demokratikoa ardatz hartuta, Estatuaren borondatearen aurretik, Euskal Herrian fase politiko berri bat zabaltea beharrezkoa zen.

Garrantzitsua da azpimarratzea, analisi eta proposamenok, modu batean horrela barnebildu baldin badaitezke ere, ez zirela horren posizio zurrun eta estankoak, eta iritzi batzuk, gehiago gutxiago konpartitu egiten zirela ikuspegi bion artean. Beraz, ikuspegi gehiago bazeuden ere bi arteko hauen nahasturatik. Zenbat buru, hainbat aburu.

Eztabaida, antzeko terminoetan garatu zen su-etenaren amaieraz geroztik 2009 arte, ezker abertzaleko sektore ezberdinetan, ez aurrera ez atzera ezin eginik. Azkenean 2009-10 ikasturte hasieran eztabaida prozesu zabal eta zail bat irekiko da Ezker Abertzalean, estrategia aldaketa integral baten hasiera izango dena, ez noski polemikarik gabekoa.

Eztabaidaren hasiera bera baldintzatua izan zen, zortzi kide erreferenteren kontrako sarekadarekin batera, Ezker Abertzaleak idatziriko eztabaida txostena zabaldu baitzen publikoki, Argitzen izenez ezagutuko zen txostena, hain zuzen. Segiren kontrako operazio zabal bat ere eman zen 34 gazte atxilotu, torturatu eta espetxeratu zituztelarik. Eztabaida prest, baino hasi gabe zegoelarik, beste txosten bat zabaldu zen. Bertan, egun minimo demokratikorik gabeko eszenatokia izanik, prozesu bat abiarazteko inongo bermerik ez zegoenez, borroka armatu bidez, besteak beste, lortu beharko ziren. Hori indar metaketaren estrategiarekin bateragarria zela argudiatzen zen. Mugarri txosten hau, ez zen oinarrirako eztabaida txosten bat eta beraz, leku gutxitan baino ez zen zabaldu, autokritika egin zelarik honen harira.

Ezker Abertzale osoan eztabaidatzeko adostu zen metodologian, Argitzen txostenaren gainean eztabaidatuko zen, eta horri ekarpenak egin herri eta auzo batzarretan. Borroka armatuaren papera, eztabaidetatik kanpo geratu zen, eztabaida hori soilik, garatzen zuen antolakundeari zegokiolakoan. Hala ere, argia zen eztabaidan bide baketsuetatik egiten zen apustua.



Militantziaren zati batek, ezerosotasunez biziko du eztabaida, besteak beste mass medietan egin zen intoxikazio lan itzelaren eraginagatik. Etsaiak helburu bat eta bakarra zuen: Ezker Abertzalea zatitu eta irteerarik gabeko bide ilunean sartzea. Eta horretarako “los duros” y “los blandos” bezalako bereizketak egiten hasi zen, barne mailan eragina egiten hasi zirenak. Baina barne mailako ezadostasunak ere egon ziren, noski. Adibidez, Altsasuko agerraldiak eztabaidatu beharreko hainbat gakoren gainean, erabaki batzuk aldeztu aurretik hartuak zeudenaren sentsazioa zabaldu zuen, horrela ez bazen ere.

Aipatu bezala, postura ezberdinak egon ziren eta antolakundeen osasun eskasa zela eta, egoera politikoa eta erronka estrategikoa azaltzeko zailtasunak egon ziren militantziari, eta ez zen jakin eztabaida behar bezala garatzen. Izan ere, errepresioaz gain, urgentziaz bizi izan ziren garai horiek, Ezker Abertzaleak lehen bai lehen itxi behar baitzuen azken bi urteetan irekita zegoen eztabaida. Esanak esan, eztabaidak ilusio handi piztu zuen, 7000 kideren parte hartzea horren lekuko, eta lehen aldia izango zen, Ezker Abertzalearen historian, zatiketa ofizialik gabe bukatuko zela eztabaida estrategiko bat, horrek ere mugimenduaren heldutasuna erakutsiko duela-rik.

## Zutik Euskal Herria

Zutik Euskal Herria dokumentua otsailean aurkeztu zen, baina hau kokatzeko hiru agerraldi dira aipatu beharrekoak: Altsasu, Brusela eta Iruñeko adierazpenak.

Zutik Euskal Herria dokumentuaren aurrekaria izan zen Altsasuko deklarazioa 2009ko azaroaren 14ean, ezker abertzaleko ehunetik gora militantek agerraldia burutu zuten. Honen helburua eztabaida prozesuaren nondik norakoak eta eman nahi zen aldaketa estrategikoa azaltzea izan zen. Agerraldi honek, eztabaidaren nondik norakoak zedarritu zituen, eztabaida historikoa bera blindatu zuela esan daiteke. Estatuaren errepresioak ezingo zuen jada eten Ezker Abertzalearen estrategia aldaketa. Bertan jada bide baketsu eta demokratikoetatik soilik jarduteko borondatea azalduko da, eta indar metaketa kokatuko du oinarri gisa.

Bruselako adierazpena, 2010eko martxoan izan zen, Brian Currin eta beste lau bakearen Nobel saridunek, ETArri su-eten egiaztagarria aldarrikatzeko dei egiten zioten, eta aldi berean Zapateroren gobernuari elkarrizketa prozesu bat berrabiarazteko eskatu. Adierazpen honek garrantzi historiko handia izango du, batez ere, geroa irekiriko bide eta urrats berriengatik.

Apirilean emango dio Ezker Abertzaleak Iruñeko adierazpenean, Bruselakoari bere atxikimendua, publikoki ETArri eta gobernuari eskakizun berdinak eginez.

Zutik Euskal Herriak estrategia aldaketa oso bat ekarri zuen Ezker Abertzalean, eta ilusio berezi bat piztu zen oinarri sozialean. Estrategia aldaketaren erronka nagusiak honela laburbildu daitezke:

1. Borroka armatuaren amaiera
2. PNVren ezkerrean bloke historikoa bat sortzea
3. Nazioarteko komunitatearen inplikazioa
4. Gobernuarekin negoziaketa

Esan daiteke, Anoetako proposamenean ere lau gako hauen inguruan antolatzen direla Ezker Abertzalearen erronka nagusiak, baina orain, egoera politiko guztiz ezberdin batean (negoziaketak mar txan egotetik, negoziaketak guztiz apurtuta egon arte), bestelakoa da bidea. Aldebakartasuna izango da oinarrian dagoen logika. Negoziaketetako epe motzeko aukerarik ikusten ez zenez, aldebakartasunak prozesu demokratikoa abiatzeko giltza Euskal Herri Langilearen esku uzten du, blokeo eta immobilismoak apurtzeko estrategia izanik. Noski, aldebikotasun bat beharrezkoa izango dela eszenatoki demokratiko bat lortzeko, baina hori, estatuei defendatzen duten posturak etekin baino kalte gehiago eragiten dioenean izango da, eta aldebakarreko urratseko eta herri borrokkak ekarriko dute. Indar korrelazio berri bat sortzea, langile klase eta herri sektoreak burujabetzaren alde kokatzea izango da helburua.

Eztabaidak eztabaida, eta hainbat gako itxi gabe, prozesu demokratikoa hasitzat emango da, fase politiko berri baten hasiera izango delarik.

## Konfrontazio armatuaren gainditzea, Gatazkaren konponbidea

Ez zen erraza izango aldebakartasuneko bide hori asmatu eta mar-txan jartzea, gatazkaren ondorioei zegokionean, estatuaren giltzak ezinbestekoak diren eran.

Irailaren 25ean urrats erabakigarri bat emango da, Gernikako akordioa sinatuz. Arlo politikoaz gain arlo soziala artikulatzeko eta gatazkaren konponbidean konpromisoak ezartzeko eragile politi-ko, sindikal eta sozialak bildu ziren. Gobernuari nahiz ETArri pausuak emateko eskatzen zitzaion, Bruselako adierazpenaren ildotik. Ezker Abertzaletik Batasunak, LABek eta gazte antolakundeak sinatzeaz gain, EAK, lkasle Abertzaleak eta herri mugimenduko hainbat ordezkariak sinatu zuten akordioa. Bide orri berri baten hasiera eka-rriko duelarik. Urteurrenean espetxeetan eztabaida eman ostean EPPKk ere sinatuko du akordioa.

ETAk bere egin nahi zituen prozesu demokratikoaren hastapenetan ematen ari ziren urratsak, eta bere posizioa argi utziz irailean 3 bi-der zuzenduko zaio Euskal Herriari. Irailaren hasieran iragarri zuen ekintza ofentsiboen etetea hilabete batzuk lehenagotik erabakia zuela. Ondoren, Bruselako Adierazpenaren ildoan urratsak egiteko prest agertu zen agiri batean. «Konponbideak behar dituen urra-tsak elkarrekin aztertzeko» prest zegoela adieraziz. Azkenik Garan eginiko elkarrizketa batean, konfrontazio demokratikoaz hitz egin-go du, eta hori elikatzeko edozein urrats emateko prest agertuko da.

Hilabeteen joanean, Adierazi EH edo Gernikako Akordioaren bi-dez, eskalada errepresiboari erantzuna emango zaio. Abokatuak, Askapena, Ekin eta berriz ere Segiren kontrako makro-sarekadek argi utzi nahi zuten estatuak zatiketaren alde jokatzeko karta guztiak, errepresioaren azeleradorea sakatuz. Bilbon manifa nazio-nal bat debekatu arren, milaka lagun bilduko dira, baita Donostian ere torturaren kontrako manifestazio bateratu baten, Portu eta Sa-rasolaren kasua ardatz.

Azaroan, Brian Currin buru, Nazioarteko egiaztatze batzordea aurkeztu zen Euskal Herrian. ETAre su-etena egiaztatzeko sorturiko taldeak Euskal Herriko eragile politiko, sozial eta sindikalekin harreman bira bat adieraziko du ere. Neofrankismoa urduri jartzen ari zen, Basagoitiren hitzek aditzera eman zuten erean: “si se aburren y quieren un hobby, que coleccionen insectos, pero que no se inventen un supuesto conflicto”. EPPKk ere azaroan bertan prozesu demokratikoari bere atxikimendua adieraziko dio agiri bidez. Urtarrilaren hamarrean ETAk “su eten orokor eta egiaztagarria” adieraziko du.

## Indar metaketa

Estrategia berriaren erronka eta indargune nagusia indar metaketa izanik, urratsez urrats materializatzeari ekin zitzaion. Beti egon da Euskal Herrian herri bezala batzeko nahi bat, arrazoi ezberdinak medio, gauzatzeko zailtasunak izan dituenak. Tartean, beti egon dira euskal burgesiaren klase interesak, PNV alderdiaren bitartez, oztopo bezala, eta horregatik Ezker Abertzaleak argi zuen, indar metaketa PNVren ezkerrean behar zuela izan, “polo soberanista” bezalakoekin deitu zitzaiozlarik.

Euskal Herriko historia ezagututa, epe laburreko edozein aliantzetan, koiuntura edo interes alderdikoiek indarra hartzen zutela ikusirik, akordio eta aliantzak beste bide batetik blindatu beharra ikusten zen. Horrela posible izan ziren Lortu arte (2010-06-20) eta Euskal Herria Ezkerretik (2011-01-akordio estrategikoak. Akordio hauek, hasiera batean zalantza zor bazezaketen ere, ez ziren hauteskunderi begira sortu, ez eta epe laburrerako. Esan bezala PNVren ezkerrean bloke historiko berri bati bide emango dion fronte zabal bat antolatzea izan zen xedea. Ezker Abertzalea, Euskal Langile Herriaren mugimendua izanik, aliantza estrategiko honek, langileriaren aniztasuna onartzetik osatuko dira. Ikuspegi kontrajarri batzuk egon arren, Euskal Herria lehentasun, poliki-poliki bidea egiten hasiko da.

2011ko apirilean aurkeztu zen Bildu koalizio herritarra. Bertan aipaturiko hiru indarretako ordezkariak, udal eta foru hauteskundeetan parte hartzeko apustua egingo dute. Pentsatzekoa zen borroka

armatuaren aitzakia kenduta Aralar alderdia ere bertaratu egingo zela, baina berriz ere, alderdikeriaz jokatzuz uko egin zioen oportunitateak Euskal langile herriaren alde borrokatzeari eta epe laburreko poltronerismoan mugitu ziren.

De facto debekatua izan zen koalizioa, GALEkin gusturago zegoen PSOEren jarrera demokratikoaren isla. Konstituzionalak zer esan geldituko da Euskal Herria, itzelezko apartheid berri baten bezperan. Azkenean, kanpaina hastear zegoela, Bildu legeztatua izan zen, prozesu demokratikorako mugarri izango den egoera irekiz.

Udal eta foru hauteskundeetan indar metaketaren estrategiak itzelezko emaitzak eman zizkion Bilduri. 123 alkatetza lortzeaz gain PNVk baino zinegotzi gehiago lortuko ditu 1138, historikoki izandako nagusitasun elektoralak galtzeko bidean hasiz PNV. Gutxi balitz, garaipen historikoak ere emango dira, Gipuzkoako diputazioa eta Donostiako udala irabazten direlarik. Aliantza zabalak, eta aspalditik bozka legala emateko aukerak, ikaragarriko ilusioa zabaldu zuen, eta hori izan zen arrakastarako gakoa. Esan bezala, kanpaina ondo prestatzeko astirik ez zen egon legez kanporatzea zela eta, gainera zerrenda guztiak "garbiak" izan behar zuten, koalizioan ezezagunak eta esperientziarik gabeko militantez josi zituen zerrendak. Horrek, etorkizunean lana baldintzatu zuen, batez ere, erritmoei zegokionean. Baina eman ziren baldintzengatik Bilduren emaitzak garaipen historiko kontsideratu daitezke, etorkizunean sinesteko arrazoiak berriz martxan ziren, estrategia berria herriak bere egin zuelako.

Ezker Abertzaleak parte hartu duen koaliziorik ez da egon horren botere kopuru maila handia lortuko duena hauteskunde batzuetan, horrek suposatzen duen guztiarekin. Borroka instituzionalari bide eman behar zitzaion, baina egituraren zati handiena bertara jarri behar izatea kezka ere bihurtu zen, nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala, instituzio burgesen kudeaketarekin uztartzea zaila izango da. Hala ere, langileriaren interesen alde lan eginez instituzioetarako alternatiba berri bat bilakatuko da.

Hauteskundeetan lehen arrakasta eta gero, Bildu osatzen zuten indarrek Espainiar kongresurako hauteskundeetan parte hartzeko

prestatzen hasi ziren. Horretarako gainontzeko indar soberanistei Euskal koalizio amankomun bat sortzeko proposamena luzatu zieten, bereziki PNV eta Aralarri. Lehenak ezetz esan zuen, eta bigarrenak, aurreko hauteskundeetako emaitzak ikusirik, eta marginalitate politikoan ez erortzeko, Amaiur koalizioan joatea erabaki zuten. Ez ordea liskarrik gabe. Aintzane Ezenarro buru zuen talde batek, euren proiektua soilik Ezker Abertzalearen kontrakoa zela oharturik, postuak bilatzen hasi ziren apartheidari esker lorturiko eserlekuez baliaturik, Eusko Legebiltzarrean. Ean ere, lehena go egon ziren gatazkak, eta alderdiko sektore atzerakoienak ospa egin zuen, Hamaika Bat izeneko alderdi eskuindarra sortuz (urtebete edo iraun zuena).

Abertzale eta ezkertiarren benetako batasun bat bihurtu zen Amaiurrek 7 eserleku lortu zituen espainiar kongresuan. Bestek beste Sabino Cuadraren diskurtsoek Ezker Abertzalearen eta polo soberanistaren bozgorailu bihurtuko dira, estatuko herri zapaldu eta langileen erreferente bilakatuz.

Hauteskunde hauetan, ordea, Alderdi Popular ustelenak gehiengo absolutua lortu zuen. Kriaren erantzule eginik Zapateroren gobernu (Troikaren esanetara egin zen konstituzio aldaketa barne), inoiz izandako gobernurik kontserbadoreena osatuko du Mariano Rajoy presidente berriak. Emakumeen kontrako eta bizi osoko espetxe zigorraren aldeko Gallardon, Opus Deieko Jorge Fernandez Diaz neofrankista barne ministerioan, Goldman Sachekin lotura zuzenak dituzten Montoro eta De guindos neoliberalismoaren defendatzaile sutsuak, Wert ministro ultraespañol hantustea... Estatu espainiarrak frankismotik ezagutu ez duen eskubide sozial eta politikoen atzerakadarik handiena biziko da, urteetan zehar irabaziriko ogi apurrak lehiotik behera botako dituztelarik, benetako iraultza neoliberal bati bide emanez.

Euskal Herriko gatazkarekiko immobilismoa eta inboluzioa jarriko dute praktikan. Atzera goaz aurrera ez bagoaz leloari jarraituko diote.

## ETA vs Estatuak-etik, Euskal Herria vs Estatuak

Zutik Euskal Herria baino lehen Ezker Abertzaleak hausnarketa aski konpartitu bat zuen. Gatazka termino oso militarretan ematen ari zela, erresistentzia fase batean geundela. Nolabait, demokratak vs biolentoak dikotomiak eragina, gatazka estatuak eta ETaren artekoa zela ikusten zen jendartean. Hori gainditu beharra zegoe-la aspalditik errepikatzen zelarik, herriak protagonismoa hartu eta Euskal Herria vs estatuak parametroetan kokatu beharra zegoen. Hori lehentasuna izanik, indar metaketak fruitu kualitatiboak eman zitzaizkien, eta minimo demokratikoak izango lituzkeen eszenatoki demokratiko batetarako jauzia, bide baketsuetatik egin behar zen. Konfrontazio armatuak bestela, betirako erresistentzia fase batetara kondenatuko gintuela argi ikusten zen, ofentsiba eta eraikuntza ezinezko eginez.

Testuinguru honetan, eta su-etena indarrean eman zen Aieteko deklarazio ospetsua, 2011ko urriaren 17an. Nazioarteak zuen euskal gatazkarekiko ikuspegia konferentzian berretsi egin zen, gobernuari nahiz ETari eskaerak egin zizkieten. Deklarazio ofiziala Jonathan Powell, Gerry Adams, Bertie Ahern, Kofi Annan, Gro Harlem Brundtland eta -k irakurri zuten, nazioartean ere sona ikaragarria izan zuelarik ekimenak. Hona hemen deklarazioa bere osotasunean:

1. ETari dei egiten diogu bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragartzen duen adierazpen publikoa egiteko eta soilik gatazkaren ondorioez aritzeko Espainia eta Frantziako gobernuei elkarrizketarako deia egiteko.
2. Adierazpen hori egingo balitz, dei egiten diegu Espainiako eta Frantziako gobernuei baiezkoa eman eta gatazkaren armatuaren ondorioez soilik aritzeko elkarrizketak zabaltzeko.
3. Zabaldu diren zauri pertsonalak eta sozialak sendatzeko lagungarria delako, eginiko minaren aitortzea, biktima guztien aitortza eta berauen laguntza, eta errekontziliazioan aurrera egiteko urrats sakonak eman daitezen eskatzen dugu.

4. Gure esperientziak azaltzen digunez, askotan gatazkak konpontzeko orduan badira bake iraunkorra eskuratzeko lagungarriak diren aztertu beharreko beste gaiak. Ildo horretan, eragile ez bortxatzaileak eta ordezkari politikoak bil daitezten iradokitzen dugu, gai politikoak eta gaiarekin zer ikusirik dutenak eztabaidatzeko, herritargoa kontsultatuz, horrek guztiak gatazkarik gabeko aro berria sortzen lagun dezakeelako.  
Gure esperientziak azpimarratzen duenez, hirugarren parte hartzaileek, begiraleek edota laguntzaileek, elkarrizketa bideratzen laguntzen dute. Hemen ere, gatazkarekin zer ikusirik duten parteek horrela erabakiko balute, elkarrizketa nazioarteko laguntzaileen bidez ere bidera liteke.
5. Errekomendazio hauen bideratzea aztertzeko Jarraipen Batzordea eratzeko prestutasuna adierazten dugu.

Horrela, eta zurrumbilo osoaren erdian ETAk 2011ko urriaren 20ean jarduera armatua behin betiko amaitutzat eman zuen.

52 urteko existentzian ETaren ekarpena ezinbestekoa izan da askapen mugimendua zer den eta non dagoen ulertzeko. Gatazkaren gordintasuna agerian uzteaz gain, zapalduko herri baten ahalduztze prozesua izan da ETA. Belaunaldiz belaunaldi letra larriz izkiritzen den borrokan parte hartzeko tresna teoriko eta praktikoak eskaini zaizkio euskal herritarrei. Langile kontzientzia eta borrokak muturrera eraman dira, euskal kultura eta naziotasunaren berpizkundeaz gain.

2011ean, fase politiko baten amaiera bere eskuetan egon zitekeela ulerturik erabaki historikoa hartu zuen. ETAk Euskal Herria egin nahi zuen protagonista. Euskal Herria vs Estatuak izan behar zuen askapen mugimenduaren gako nagusiak, eta horretarako indar metaketa, aldebakarreko jardunak, nazio eraikuntza eta desobediencia. Borroka fase berri batean sartzeaz, 50 urteko uzta jaso, eta irabazitakoekin, baina irabazi gabekoekin ere, fase historiko berri bat ireki behar zen: marko demokratiko bat lortzea.



Hurrengo egunetan Euskal Herrian bakeaz hitz egingo den arren, herritar gehienek bat egingo dute asko dagoela oraindik egiteko, eta lehen urratsa presoan afera konpontzea dela. Espetxeetan ere egoera esperantzarekin ikusiko da, batzuek Gabonetarako Euskal Herritik gertu diren kartzelatara joateko makutoa prestatzen dutelarik.

## Ezker Abertzalea berregituratzen

Ezker Abertzaleak, berriro ere, inizatiba politikoa berreskuratu zuen. Erresistentzia fasea zeritzonetik, marko berri batetara igarotzeko bidea martxan zen jada. Indar metaketaren bidetik polo soberanistaren artikulazioa zelarik orduan zen tresnarik eraginkorrena.

Izan ere, errepresioaren ondorioak nabarmenak ziren oraindik. Antolakunde guztietako koadro politiko gehienak espetxean edo epaiketaren zain zeudelarik, egituren osasuna ez zen batere ona. Dena den, eta Segiren hausnarketaren ildotik, tresna hauek agorturik zeuden jada euskal jendartean. Organizatiboki eta teorikoki beste molde batzuetan mugituko ziren antolakundeak beharrezkoak ziren. Honela lau antolakundeek 2010 eta 2012 artean bere buruak desegin zituzten, hainbat prozesu eratzaille abian jarritz.

Aipaturiko Segiren hausnarketak gazte mugimendua ito izana erantzukizun bezala hartuko du, bai eta erantzun eta erresistentzia dinamika batean egotean gazte estrategia eraginkor bat ez gartztea eta ondorioz gazteriarengandik urruntzen joatea.

Gauzak horrela, gazte mugimenduko hainbat kidek 2005eko Gazte mugimendi! topaketetatik eta 2009ko "Ekin dezagun batera!" topaketetatik utzitako irakaspen eta ondaretik, Marasma saretzen prozesua hasi zen 2010ean. Gazte mugimenduan praktika eta diskurtso iraultzaileak txertatu asmoz molde berriak garatzen saiatuko da, desobedientziarako oinarriak jarri nahian.

2010ean zehar gazte antolakunde ezberdinek GazteEHerria sortuko dute, ezberdinen arteko indar metaketarako baldintza nahikoak baidirela erakutsiz. Durangon egun bateko jaialdia antolatuko dute eta

hurrengo egunean egingo den Irun-Hendaia aberri egun bateratu arrakastatsuan parte hartu ere. Maiatza amaieran Bruselara martxa antolatuko da ere, euskal gazteriak bizi zuen salbuespen egoeraren etetea exijituz, eskubide zibil eta politikoen aldarria kaleratuko da.

Segik 2012ko ekainean gazte mugimenduan emandako hausnarke-tak bere egin, eta bere burua desager araziko du, euskal gazteriari antolatzeko eta borrokan jarraitzeko dei eginez. Horrela, gazte be-launaldi berri batek, Euskal Herriak behar zuen mugimendu iraul-tzaile berri baten sorrerari ekingo dio, gazte antolakunde guttiz berri bati bide emanaz. Aurretik egindako lanari jarraipena eman asmoz, baina akats berdinak errepikatu nahi gabe, ekingo zaio ez-tabaida eta formakuntza prozesu luze bati.

2012ko ikasturtearen hasieran, gazte mugimendu ezberdinetatik etorritako hainbat gaztek "Gazte ZukGua, norbanakotik kolektibo-ra" prozesua jarri zuten martxan, orotara 3000 baino gazte gehia-gok parte hartuko zuten prozesu eratzailan. Eztabaida ugariren ar-tean, azkenean 2013ko martxoaren lehenean Lizarran, Ernai gazte antolakundea sortuko da. Berritasun nagusiak feminismoa helburu estrategikoen barruan sartzea izango da, edota gazte mugimen-duarekin eduki beharreko papera birdefinitzea. Ernai, Hego Eus-kal Herrian soilik antolatuko da, Ipar Euskal Herrian Aitzina gazte antolakundea sortuko delarik. Hegoaldean jende gutxi ulertuko du antolakundea nazionala ez izatea, baina Ipar Euskal Herriko errea-litatea kontuan hartuta, bertako erritmo eta lan estiloetara egoki-turiko antolakunde propio baten beharra argia zen. Denborarekin erabakia ulertzen joango da, kontraesanak kontraesan.

Garai berean, Sortu prozesua eman zen. Ordurako jada legeztaturik zen alderdiak, oinarri ideologiko eta organizatiboak eztabaidan jarri zituen, 4 hile iraun zuen prozesuan. Ernai baino astebete lehenago aurkeztu zen zuzendaritza berria, eta bestelako ondorioak. Alderdi politikoak herri mugimenduekin izan beharreko lotura azpimarra-tzen da, Nazio Eraikuntzan Sortuk eduki beharreko gidaritza papera azpimarratzen delarik.

Presoen gaia lantzeko, 2011ean sortu zen Herrira mugimendua. Bere burua Ezker Abertzaletik kanpo kokatuta, herri mugimen-

duarekin elkarlanean, presoen gaia eskubideen planotik landuko du. Ekimen original eta ikusgarrien bidez preso eta iheslariak bizi duten gaia eremu ugarritan landuko dute. Besteak beste Josu Uribe-txeberria preso gaixoaren gose grebarekin bat egin zen, kateaketa ugari burutu, eragile eta alderdi anitzekin bildu, lipdub erraldoia antolatu eta Bilboko urtarrileko manifestan 2012an 100.000 eta 2013an 115.000 pertsona batu zituen. Gauzak ondo egiten ari zirenean seinale, eta gutxika espazio berriak zabaltzen ari zirenean seinale, 2013 irailaren 29an Herriraren kontrako sarekada bat burutuko da, mugimenduaren aktibitate guztiak 2 urtez debekatuko direlarik.

Instituzioetan Ehbilduk duen lan kargak Sortuko koadro politiko ugari lehentasuna borroka instituzionalean jartzen dutenaren tentsioa zabalduko da oinarri sozial eta militantean, eta beraz, herri borroka eta herri mugimenduak indargabetzeko arriskua ikusiko da ere. Zailtasunak zailtasun, eta Euskal Herria Bidean txostenean azpimarratu bezala, gakoa Nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialean kokatzen da, noski, hau modu anitzetan eman daitekeelarik.

## Danak ala inor ez

2011. urtea aldaketan urtea izan bazen, 2012 blokeoaren urtea izan zen. ETak borroka armatua behin betiko uzteko erabakiak ez zituen, espero zen bezala, hainbat gako askatzea ekarri, besteak beste, presoan afera. Ezker Abertzaleak berak, autokritika hori egingo du 2013an, Ernai, LAB eta Sortuk batera idatziriko dokumentuan.

Espetxeetan egoerak hobera ez egiteaz gain, okertzen ari dela esan daiteke, atzera goaz aurrera ez bagoaz lelo famatua hedatzen doalarik Ezker Abertzalearen oinarri militantean batez ere. Preso Gaixoak, Parot eta 3/4ak beteak dituzten presoak, hau da salbuespeneko neurriak, indarrean jarraitzen dute, eta dispertsioak milimetro bakar bat ere aldatu gabe jarraitzen du. Bereziki mingarriak diren lau presoren erailketek salbuespen neurrien krudelkeria islatzen dute.

Mikel Ibañez preso gaixoa bere etxean preso zegoela hil zen 2011ko apirilean. Mikel, Josu "Manueltxo" Goitia eta Luis Mari Liza-

rralderekin batera, Montevideon atxilotu zuten 9zan, bi urte beranduago Filtroko borrokako protagonistetako bat izan zelarik, Uruguako herriarekin batera.

2013ko martxoa bereziki gogorra izan zen Angel Figuroa eta Xabier Lopez Peña gaixorik ziren presoak hil baitziren. Lehena, urteak gaixorik igaro ostean etxean zegoen preso. Bigarrena, azken negoziaketa prozesuan ezinbesteko papera jokatu zuena, ospitale batean hil zen, medikuen, polizien eta espetxezainen traben artean, konfiantzazko autopsiarik egin gabe.

Zerrenda bereziki mingarri honetan azkena Arkaitz Bellon elorriotar gaztea izan zen, kondenaren 3/4ak beteta kalean behar lukeena. Gaztea bihotzekoak jota hil zen, zalantzarik gabe, espetxezainen indarkeriaren ondoren bizi zuen egoerak eraginda. Hiru aldiz jipoi-tu zuten azken urteetan Arkaitz, atearen irekiera bakoitzak nerbio sistema erasotzen zuelarik zuzenean.

Parot dotrina bezala ezagutu zenak, amaiera data zuen ordea. Guztiz legez kanpokoa zen gerra-neurria (oroitu negoziaketa prozesuan sortu zela, gerra-bahituak egiteko) espainiar epaile guztiek onartu eta gero, 2013ko urriaren 21ean Giza Eskubideen Europako Auzitegiak doktrina honek Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 5. eta 7. artikulua urratzen dituela esan zuen: askatasunerako eskubidea eta segurtasun juridikorakoa. Garaipen bezala bizi izan zen Euskal Herrian berria. Hamarnaka preso euren sorterrira itzultzeko hasiko dira, aspaldi behar zuten bezala.

## **Aldebakartasunaren bide luzea**

Herrira legez kanpo, 2014ko urtarrileko manifa tantaz tanta ekime-nak deituko du, baina Velasco epaileak Herrirarekin zer ikusia zuelakoan debekatu egingo du bezperan. Izugarritzko haserrera eragin ostean, Euskal Herriko alderdi eta sindikatu nagusiek, Sortuko eta PNVko bozeramaileak buru, manifestazioa deituko dute egun berdinean "Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea" leloarekin. Euskal Herriak inoiz ezagutuko duen manifestaziorik handiena eman zen, ilusio itzelak piztuko ditu, prozesu demokratikoan aurrera urratsak ekartzea espero den arren, epe laburrean honelakorik ez da eman-

go. Kartzela politika kriminalean aldaketarik ez dela etorriko errepikatuko dute gobernu espainol eta frantsesek.

Baina bidea egiten ari da. Estrategia politiko-militarretik soilik politikora eman beharreko aldaketen barruan, eta gatazkaren ondorioei dagokien karrilari ekarpena egin asmoz, ETAk otsailean iragarri bezala armak operatiboki funtzionamendutik kanpo uzten ari da. Nazioarteko ikuskatzaileak Entzutegi Nazionalera deituak izan direlarik, demokrazia espainolaren marka frankista nazioartean igatzen doalarik.

Baina bidea egiten ari da. Jazarpen politikoari aurre eginez, Esperantzako frontoian 2007an hasitako Desobedientziaren bideak fruitu itzelak emango ditu, Izpura, Aurore Martin, Ekaitz Samaniego, Oreretako gazteen kateaketak, Donostiako, Ondarruko eta Iruñeko Aske Guneak, epaiketara aurkeztu ez ziren lau gazteak... Erresistentzia eta ahalduntzearen bidez epaiketei eta jazarpen politikoa-  
ren kontra geroz eta herritar gehiago lerratuko dira.

Baina bidea egiten ari da. EPPK eta EIPK hainbat urrats emango dituzte ere. Presoek zituzten estrategiak birmoldatu eta kohesioa, kolektiboa eta elkartasuna ardatz eskari eta neurri berriak egiten hasiko dira dispersioarekin amaitu ahal izateko, amnistia helburu duen bide orria martxan duelarik. Iheslariak sorterrira itzultzen hasi dira, mailakatua izango den aldebakarreko prozesuan. Gure Esku Dago dinamika herritarrak erabakitze eskubidearen aldeko kanpaina izugarria du martxan Euskal Herri osoan zehar, inoizko giza katerik handiena burutuz Euskal Herrian. Udalbiltza martxan da, Euskal Herriak behar duen egitura instituzional berriak sortze bidean. Karta Soziala itxi berri da, Langileriak behar duen alternatiba martxan jarri ahal izateko.

Eta bidea egiten ari da. Sortu, LAB eta Ernai antolakundeek bitartez, herriz herri, eta zailtasunak zailtasun, antolatzen ari diren herri botereak, hamarkada luzeetako borroken irakaspenak ardatz, kritika eta autokritikaz aurrera dihardugu. Gazte borrokak behar dituen espazio berriak sortuz, aurrera dihardugu. Gazte borroka antolatuz lortuko dugu. Guri dagokigu bereziki, ondare historikoa jaso eta etorkizuna eraikitzea.

Euskal Herri Langileak behar duen euskal errepublika sozialista eta feminista lortze bidean, bidean eroritako kideak gogoan, utopia gure oinatzetan eramango dugu.

**Libre izateko eskubidea libre izateko obligazioa da**

**Jo Ta Ke!  
Independetzia  
Sozialismoa  
Feminismoa  
Lortu arte!**

**Gora Ezker Abertzalea!**

## GALDERAK

- Loiolaren ondoren zein izan zen zabaldu zen egoera politiko berria? Ezker abertzalearen estrategia zein izan zen? Zein lehentasun markatu ziren?

- Horren ondotik zein izan zen Ezker Abertzaleak egin zituen auto-kritika nagusiak? Zein da estrategia aldaketarako arrazoi handienak? Eta zein dira honen indarguneak?

- Errepresioak zein paper jokatzeko zuten eztabaida eta hausnarke-ta guzti honetan? Estrategia aldaketak soilik egoera errepresiboari erantzuten al zion ordea?

- Zein antolakuntza aldaketa etorri ziren? Zer zerikusit zuten estrategia aldaketarekin? Ze paper bete zuten antolakunde ezberdinek hamarkada honetan ezker abertzalean (EPPK, EIPK, LAB, Segi, Ekin, Batasuna, Askatasuna, Sortu, Ernai) edota gainerako herri mugimenduan (Askapena, Bilgune Feminista, Euskal Herrian Euskaraz, AdieraziEH, Herrira...) edo gazte mugimenduan (IA, gaztetxe eta gazte asanbladak, gaztesarea, topatu.info, ekin dezagun batera, marasma...).

- Zein dira gaur eguneko fase politiko erronka nagusiak epe labur eta ertainean? Zeintzuk arrisku eta zeintzuk indarguneak?

- Ze paper hartzen dute agente politikoek hamarkada honetan? (PNV, EA, Aralar, ELA, PSOE, PP, Nazioarteko komunitateak, Biktimen elkarteak, Komunikabideak, Epaileak...)















